



Izartu programaren jarraipen- eta ebaluazio- txostena 2007. urtea



AURKIBIDEA

Or.

1. AURKEZPENA	1
2. LABURPENA ETA ONDORIOAK	3
3. 2007. URTEAN IZARTU PROGRAMAREN BI DEIALDIEN ESPARRUAN EGINDAKOARI BURUZKO OROITIDAZKIA	8
3.1. 2007an IZARTU I PROGRAMAREN ESPARRUAN EGINDAKOA	9
3.1.1. 2007an egindakorako aurrez ikusitako finantza-plangintzaren gauzatzea	10
3.1.2. Programazioaren desbideratzeak	13
3.2. 2007an IZARTU II PROGRAMAREN ESPARRUAN EGINDAKOA	15
3.2.1. 2007an egindakorako aurrez ikusitako finantza-plangintzaren gauzatzea	16
3.2.2. Programazioaren desbideratzeak	19
4. IZARTU I PROGRAMAREN AMAIERAKO ETA EBALUAZIOA EGITEKO OROITIDAZKIA	23
4.1. EGOKITASUNA	25
4.1.1. Abiapuntuko egoera. Tokian tokiko beharrak, helburuak eta emaitzak	25
4.1.2. Programaren koherentzia eta kohesio-faktore berriak	33
4.1.3. Egokitasunari buruzko ondorioak	35
4.2. EMAITZAK ETA ERAGINA	36
4.2.1. Finantza-plangintzaren gauzatzea eta denborazko plangintza	36
4.2.2. Emaitzak eta eragina	39
4.2.3. Onuradunen iritzia emaitzei eta eraginari buruz	58
4.2.4. Emaitzei eta eraginari buruzko ondorioak	62
4.5. BIDERAGARRITASUNA ETA IRAKASPENAK	65
4.5.1. Bideragarritasuna	65
4.5.2. Irakaspenak	67

5. IZARTU II PROGRAMAREN AURRERAPENARI BURUZKO OROITIDAZKIA 72

5.1. PROGRAMAREN AURRERAPENARI BURUZKO EBALUAZIOA IKUSPEGI FUNTZIONALETIK ETA LURRALDE-IKUSPEGITIK	72
5.1.1. Programaren aurrerapena, inbertsioaren ikuspegitik	72
5.1.2. Programaren aurrerapenari buruzko ebaluazioa, udalen ikuspegi orokorretik	76
5.1.3. Programa aurrera egiten laguntzeko neurriak	78
 5.2. HIRIGUNEAK BIZIBERRITZEKO PROZESUEN AURRERAPENAREN EBALUAZIOA	 80
5.2.1. Lurralde-batasuna	83
5.2.2. Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak erabiltzen hasia	84
5.2.3. Degradatutako ingurumeneko eremuak lehenera ekartzea	84
5.2.4. Enpresaburuak, enpresa txikiak eta ertainak, turismoa eta udal-ondarea sustatzea	86
5.2.5. Hirigunearen itxura eta egoera hobetzea	86
5.2.6. Gizarte eta kultura arloko eta laguntza arloko zerbitzuak eta ekipamenduak	87

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Or.

3. ATALA. 2007. URTEAN IZARTU PROGRAMAREN BI DEIALDIEN ESPARRUAN EGINDAKOARI BURUZKO OROITIDAZKIA

1. grafikoa: <i>Izartu I programa. 2007an egindako gastua, urte horretarako programatutakoaren aldean</i>	10
2. grafikoa: <i>Esku hartzeko esparruak. Izartu 2001-2007 programek 2007an egindako inbertsioa, aldi osoan (2001-2007 aldian) metatutako gastuaren aldean</i>	11
3. grafikoa: <i>Eskualdeak. Izartu 2001-2005 programek 2007an egindako inbertsioa, aldi osoan (2001-2007 aldian) metatutako gastuaren aldean</i>	12
4. grafikoa: <i>Ekintzak. Izartu 2001-2005 programen desbideratzea 2007ko programazioaren aldean</i>	14
5. grafikoa: <i>Izartu II programa. 2007an egindako gastua, urte horretarako programatutakoaren aldean</i>	16
6. grafikoa: <i>Esku hartzeko esparruak. Izartu 2004-2008 programek 2007an egindako inbertsioa</i>	17
7. grafikoa: <i>Eskualdeak. Izartu 2004-2008 programek 2007an egindako inbertsioa</i>	18
8. grafikoa: <i>Ekintzak. Izartu 2004-2008 programen desbideratzea 2007ko programazioaren aldean</i>	19
9. grafikoa: <i>Udalerrriak. Izartu 2004-2008 programen desbideratzea 2007ko programazioaren aldean</i>	20

4. ATALA. IZARTU I PROGRAMAREN AMAIERAKO ETA EBALUAZIOA EGITEKO OROITIDAZKIA

10. grafikoa: <i>Izartu 2001-2005 programak (2001. urtea)</i>	29
11. grafikoa: <i>Izartu I programen ekarpena lurralde-batasuna lortzeko</i>	41
12. grafikoa: <i>Izartu I programen ekarpena informazio- eta komunikazio-teknologia berriak erabiltzen hasteko</i>	43
13. grafikoa: <i>Izartu I programen ekarpena ingurune andeatuak bere onera ekartzeko</i>	45
14. grafikoa: <i>Izartu I programen ekarpena, enpresa berriak sustatuz, jardun ekonomikoa sustatzeko</i>	47
15. grafikoa: <i>Izartu I programen ekarpena enpresaburuak, enpresa txikiak eta ertainak, turismoa eta udal-ondarea sustatzeko</i>	49
16. grafikoa: <i>Izartu I programen ekarpena hiriguneko ingurumena hobetzeko</i>	51
17. grafikoa: <i>Izartu I programen ekarpena udalerrriak gizarte-ekipamenduez hornitzeko</i>	53

18. grafikoa: Izartu I programen ekarpena, eraberritze-proiektuen bidez, hirigunearen itxura hobetzeko	55
--	----

5. ATALA. IZARTU II PROGRAMAREN AURRERAPENARI BURUZKO OROITIDAZKIA

19. grafikoa: Esku hartzeko esparruak. Izartu 2004-2008 programen esparruan orain arte metatutako gastua, inbertsio osoaren aldean	73
20. grafikoa: Eskualdeak. Izartu 2004-2008 programen esparruan orain arte metatutako gastua, inbertsio osoaren aldean	74
21. grafikoa: Izartu II programarako laguntza teknikorako gastua 2004 eta 2007 artean ..	78
22. grafikoa: Izartu 2004-2008 programetarako laguntza tekniko emateko jarduera nagusiak 2007. urtean	79
23. grafikoa: 2007. urtean Izartu 2004-2008 programen esparruan erabilitako komunikazio-, informazio- eta zabalkunde-bitartekoak	79
24. grafikoa: Kohesio-helburu orokorrak. 2001-2007 aldian egindako gastua, inbertsio osoaren aldean	81
25. grafikoa: Kohesio-helburu orokorrak. 2001-2007 aldiko lorpenak, hasierako aurreikuspenen aldean	82

TAULEN AURKIBIDEA

Or.

1. taula: IZARTU I programen esparruko ekintzen analisia, esku hartzeko esparruen arabera (2007. urtea)	9
2. taula: Izartu I programaren onuradunek 2001-2007 aldian gastatutakoaren konparazioa	10
3. taula: IZARTU 2004-2008 programen esparruan proposatutako ekintzen analisia, esku hartzeko esparruen arabera (2007. urtea)	15
4. taula: Izartu I programen esparruan egindako ekintzak, kohesio-helburu orokorren arabera (2001-2007)	30
5. taula: Izartu I programetarako aurrez ikusitako inbertsioaren gauzatzea, kohesio-helburu orokorren arabera (2001-2007)	37
6. taula: Izartu I programen esparruan egindako ekintzak, lorpenei eta emaitzei buruzko adierazleen arabera (2001-2007)	40
7. taula: Izartu 2004-2008 programek amaitutako ekintzen analisia, esku hartzeko esparruen arabera (2007. urtea)	77

1. AURKEZPENA

Izartu programaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko 2007ko txostenak Izartu programaren bi deialdien (2001-2005 eta 2004-2008 aldietarako deialdien) bidez hiriguneak biziberritzeko sustatutako 117 programa orokorren bilakaeraren laburpena dakar, eta onuradun udalerrriak lurralde, gizarte eta ekonomia arloan egituratzen izandako emaitza eta ondorioak nabarmenenena.

Jarraian dugun txostenak, bi urteko luzapenaren ondoren, 2007an bukatu diren 49 Izartu I programen amaierari eta ebaluazioari buruzko datuak biltzen ditu lehen aldiz. lortutako emaitzak eta ondorioak analizatzen ditu, hasieran finkatutako helburuen aldean, eta, horretarako, programen amaierako ebaluazio-txostenek biltzen duten informazioan oinarritzen da. Bestalde, Izartu II programari dagokionez, aurreko urteetan bezala, programa abian egon den lau urteetan izandako aurrerapena erakusten du, eta informazioa tokiko arduradunek beraiek 2007an egindakoari buruzko txostenetan bildutako datuetan oinarritzen da.

Bi ekimenak egoera ezberdinean daudenez gero -Izartu I programak amaitu egin dira, eta Izartu II programak, berriz, amaitzeaz daude-, datuak bereiz analizatu behar izan ditugu eta, horren ondorioz, jarraipen-txostenaren egitura ezberdina da aurrekoenaren aldean.

Alde horretatik, txostenaren abiapuntua atal komun bat da, aztertzen duena nola gauzatu diren 2007ko ekitaldian Izartu programa guztiak, baina, ondoren, txostena bi ataletan banatuta dago, bi deialdien bilakaera eta emaitzak bereiz aztertzeke.

Hartara, hasierako laburpenak ez ezik, hiru atal nagusik osatzen dute Izartu programaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko 2007ko txostena.

Lehen atala, "2007. urtean Izartu programaren bi deialdien esparruan egindakoari buruzko oroitidazkia", aurreikuspenen bilakaerari buruzko analisi teknikoa da, programen egiazko aurrerapenaren aldean, eta programak gauzatzeari buruzkoa; analisisa sailkapen funtzionalari (ardatzei eta neurriei) eta lurralde-sailkapenari (eskualdeei eta udalerriei) jarraiki egin dugu. Hain zuzen, programetarako aurrez ikusitako finantza-plangintzaren gauzatzea, programazioaren aldaketa edo desbideratzeak eta haien arrazoiak eta erabilitako konponbideak azaltzen ditu.

Bigarren atala, "Izartu I programaren amaierako eta ebaluazioa egiteko oroitidazkia", luzeena da. Izartu I programen amaierako ebaluazioa egiteko txostenetako analisiaren emaitza nagusiak biltzen ditu, Ebaluazioa egiteko gida praktikoa aipatzen dituen arauei jarraiki; lortutako emaitzak hainbat irizpideren (egokitasunaren, eraginkortasunaren, eraginaren eta bideragarritasunaren) arabera aztertzeke oinarriak ezartzen ditu gidak.

Hau aztertuko dugu atala osatzen duten azpiataletan: onuradun programak zenbateraino egokitu diren emandako laguntzen helburuetara eta ekimenean parte hartu dutenean tokian-tokian zeuden beharretara eta lehentasunetara; emaitzak zenbateraino lortu diren aurrez finkatutako lekuan eta epean, zenbateraino diren aurrez finkatutako kalitatekoak eta zenbateraino lortu diren aurrez finkatu bezainbat; bideratutako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak egokiak diren eta zenbateraino izan diren eraginkorrak; programak amaitu ondoko ageriko emaitza nagusien arabera, zer helburu lortu diren; eta, azkenik, nola iraungo duten lortutako aldaketa positiboak.

Hirugarren atalak, "Izartu II programaren aurrerapenari buruzko oroitidazkia" k, aurreko analisisien egitura berbera erabiliz, lehentasunetako ardatzen eta bigarren deialdian onuradun izandako udalerrien aurrerapena aztertzen du, lau urteotan tokian-tokian egindako inbertsioaren eta ahaleginaren arabera, eta zenbateraino lagundu duten egoera aldatzen. Hau da, Izartu II programaren kohesio-helburu orokorrak lortzen egindako aurrerapenari buruzko ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboa da; 68 udalerri izan dira onuradun bigarren deialdian.

2. LABURPENA ETA ONDORIOAK

2007. urtea Izartu I programen amaierako ekitaldia izan da, udalerrien heren batek baino gehixeagok luzapena eskatu baitzuten. Lortutako emaitzak eta ondorioak nabarmenki onak izan dira programen tokiko arduradun guztien eta onuradun udalerrietako eta eskualdeetako herritarren ikuspegitik.

2001-2005 aldiko 49 Izartu programen gauzatze-erritmoari esker, ekimen osorako aurrez ikusitako inbertsio guztia erabili ahal izan da, eta eragin nabarmena izan du horrek Euskadiko udaletan. 215,7 milioi eurotik gorako inbertsioak bideratu dira Hiriguneak Biziberritzeko Programa Orokorraren lehen deialdian onuradun udalerrietan, eta Programak neurri handi batean lagundu ditu diruz, inbertsioaren %70 lagundu baitu ia. Era berean, Programak eragin nabarmena izan du onuradun herritarrengan, eta biztanleko batez besteko inbertsioa 2.000 eurokoa izan da programen esparruan; are gehiago, zenbaitetan (bereziki, aldirietako auzoetako eta eskualdeetako proiektuetan), biztanleko batez besteko inbertsioa 10.000 eta 15.000 euro artekoa izan da.

Inbertsio handioi eta banatutako laguntzen bidez emandako babes handiari esker, udalerriek arazo nagusiei aurre egin ahal izan diete. Beren baliabideez nekez egin zitzaketen inbertsio handiak egiteko aukera aprobetxatu dute, eta udal-erakundeek gizartearen hainbat helbururi eta beharri erantzun diete azkenean, duela urte askotatik saiatzen ari baitziren.

Programaren gauzatzeari buruzko datu ekonomikoen hastapen hauek Izartu I programaren arrakasta handiaren adierazgarri dira; izan ere, programak inbertsio handia egin du, onuradun udalerrietan kohesio sozioekonomiko handiagoa lortzeko eta hiriguneak antolatzeko. Gainera, **programak diruz lagundutako ia 300 ekintzei esker lortutako emaitzen eraginetik ondorioztatzen da onuradun udalerrietako hiriguneak oro har biziberritzeko estrategiarik egokienak izan direla Izartu I programak; era berean, Izartu programaren bidez lortu nahi diren helburuekin bat etorri dira.**

Alde horretatik, Izartu I programa aitzindaria eta orokorra izan da lurraldean, eta baztertutako eremuetan esku hartzeko esparru berri bat ezarri du. Esparru horren oinarria hiriguneak oro har biziberritzeko politika lantzea da, eta, azkenean, esku-hartzea

udalek prestatu eta gauzatzea nagusiki. Era berean, programaren berritasuna ikuspegi orokorra ere izan da; izan ere, babestu dituen lan-ildoak eta proiektuak tokiko erakundeen eskumenen esparruan egituratutakoak izan dira, eta elkarren osagarriak, eta, hartara, programak oro har heldu die eremuotako arazo espezifiko guztiei.

Onuradun udalerrien ikuspuntutik, Izartu I programak lurraldearen garapenean ikuspegi orokorretik lan egiteko aukera eman du lehenengo aldiz, eta udalerrietan oro har esku hartzearen aldeko ikuskera funtsezko faktorea izan omen da ekimena arrakastatsua izateko. Onuradun guzti-guztiek uste dute ezinbestekoa izan dela programak bide ematea elkarri lotutako askotariko neurriak eta ekintzak finantzatzeko; hartara, beste sail edo erakunde batzuen laguntza partzialen bidez nekez egin ahal izango zituzketen ekintzak bateratu dituzte. Hain zuzen ere, programari esker, batera edo elkarren osagarri heldu ahal izan diete hainbat beharri eta eskakizuni, eta ekintzen artean koherentzia izatea eta ahalik eta sinergia gehien sortzea lortu dute; ekintzen eragina are handiagoa izan da horren ondorioz.

Zehatz-mehatz, Izartu 2001-2005 programak 49 programa sustatu ditu, andeatutako hiriguneetan. Ekonomia-, gizarte- eta hirigintza-arazoak zituzten hiriguneak ziren, eta 1980ko hamarkadako industria-krisiaren eta ekonomia-iturri nagusiak desagertzearen ondoriozko arazoak zituzten, beste udalerrri batzuenak baino larriagoak. Egitura sozioekonomikoaren geldialdi- eta gainbehera-egoera larrian zeuden, eta hainbat fenomenok bat egiten zuten: biztanleria gero eta urriagoa izateak eta zahartzeak, langabeziak, pobrezia, gizarte-bazterketak, hiriguneko ekipamenduen defizitak, metaketak eta hirigunearen hausturak, inguruko ingurumenaren degradazioak... Hori dela-eta, programek oro har esku hartzea proposatu zuten, enpresentzako ekipamendua eta lekuak hobetzeko; komunikabideak eta sarbideak hobetu eta aldirietako eremuak hirigunean barneratzeko; hirigunean laguntza-, gizarte- eta kultura-ekipamenduak egiteko; andeatutako eremuak bere onera ekarri eta hirigunearen itxura eta ingurumena hobetzeko; eraikinak eta etxebizitzak eraberritzeko; elkarrekin egoteko eta aisia emateko lekuak paratzeko; hiriguneko instalazioak eta zerbitzuak berrantolatu, urbanizatu eta hobetzeko...

Behin esku hartzen amaitu eta gero, emaitzak eta eragina askoz hobeak izan dira esku hartzearen tokiko arduradunek espero zutena baino, eta ekimenari atxiki zitzaizkionean (2001. urtean) eta baita egun (programak amaitu ondoren) ere izan omen da egokien tokian tokiko kohesio-lehentasunak ezartzeko estrategia.

Alde horretatik, tokiko arduradunen bi herenek baino gehixeagok uste dute, **behin betiko emaitzen kariatara, planteatutako ekintzek hein handi batean lagundu dutela 2001ean arazotzat hartu zituzten egoerak konpontzen: andeatutako eremuek andeatutzat hartzeko modukoak izateari utzi diote, lehenera etorri direlako, eta Izartu programaren ondoren andeatutzat hartu ezin diren adierazgarri da hori.** Beste arduradunen ustez, berriz, Izartu programak ez ditu konpondu arazo guztiak, asko zeudela-eta, **baina programa trakzio-elementu izan da andeatutako eremuok berritzeko prozesuan, eta sustatu dituen udalerrietako eta eskualdeetako sozioekonomia eta hirigintza eraldatzeko prozesua abian jartzearen oinarri edo eragile bilakatu da.**

Nolanahi ere, arduradun guztiak bat datoz, eta nabarmendu dute, programei esker, nor bere udalerriek asko aurreratu dutela lurraldearen batasunaren, andeatutako eremuak bere onera etortzearen, hirigunearen itxura hobetu eta ingurumena zaintzearen, jardun ekonomikoa sustatu eta lanpostuak sortzen laguntzearen, ekipamendu berriak egitearen eta teknologia berriak eskura jarri edo hedatzearen aldetik. Hartara, onuradunen bizi-baldintzak eta bizi-kalitatea hobetzeko ez ezik, esparru honetan ekintza gehiago egitea piztu eta eragiteko ere balio izan du programak, programaren ondoren konfiantza handiagoa izan baitute andeatutako eremuak garatu egingo zirela.

Udalerrri bakoitzeko programen emaitza onak onuradun biztanleriak berak ere sumatu ditu eta, inkesten bitartez, adierazi dute nor bere auzoan eta hirigunean egindako hobekuntzek eragin argia izan dutela eguneroko bizitzan. Nabarmendu dutenez, programen esparruan egindako ekintzak hein handi batean etorri dira bat haien beharrek, eta guztiz bat etorri dira espero zutenarekin: udalerrriak berri, polit eta zabalagoak dira eta errazago ibil daitezke; erakargarriak dira bai bertakoen, bai kanpokoek ikuspegitik; kalitateko bizilekuak eta zerbitzuak daude... Azken batean, hori guztia lortzea beharrezkoa omen da dendatarako guneak lehenera etortzeko, jardun ekonomikoa biziberritu eta berpizteko eta aberastasuna sortzeko.

Gaur egun, lehen bezala, onuradun guztiek diote esku hartzea baliagarria izan dela eta Eusko Jaurlaritzak Izartu programaren bidez bultzatu duen ekimena koherentea izan dela, eta nabarmendu dute duela zazpi urte proposatu zituzten neurriak beraiek gomendatzen eta antolatzen dituztela Erkidegoko, Espainiako eta eskualdean eskualdeko programek. Ildo horretan, onuradunen %75ek erronka berri jakin batzuk proposatu ditu: Izartu 2001-2005 programak diruz lagun zitzakeen ekimenen eta ekintza-moten xedeekin bat, programak

sustatu zituen eremuetan edo beste batzuetan ekintzak egitea, kohesio sozioekonomikoa lortzeko eta hiriguneak egituratzeko.

Bestalde, **programak ez zukeen arrakastarik izango parte hartu duten eragile guztiek egokiro kudeatu izan ez balituzte eskura zituzten baliabideak**. Alde horretatik, Izartu programaren ikuskera orokorrak udal bakoitzeko sailen arteko lankidetzari ere bide eman dio eta, hartara, elkarlanean aritu dira proiektua sortu zutenetik (diagnostiko orokorra egin zutenetik) programa kudeatu eta abian jarri arte. Izartu programari esker, lan egiteko modu berri bat sortu da hainbat udalerritan, udaletako sailen eta departamentuen eta erakundeen arteko koordinazioan oinarritutakoa. Koordinazioaz gain, tokian tokiko agintari nagusiek eta udal-teknikariek esku hartzea ere funtsezkoa izan da, baita programaren gauzatzea hurbiletik jarraitu eta kontrolatzea eta herritarrei informazioa emateko eta parte harrarazteko bideak ezartzea.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da programen oztopo nagusiak eta atzerapenak izan direla halako ekimenak (hain inbertsio handikoak) kudeatzeko esperientzia eskasaren ondorio, eta programaren bitartez diruz lagundutako ekintza askoren garrantziaren eta konplexutasunaren ondorio. Hori dela-eta, esku hartzeko gastuak eta desbideratzeak zorrotz kontrolatzeko bideak ezarri dituzte, eta eskalako ekonomiak aprobetxatu eta beste laguntza batzuekin bat egin dute, Izartu programarekin bateragarriak baitziren.

Bestalde, **Izartu programa administratu duen unitatea funtsezko kanpo-eragilea izan da programak modu eraginkorrean gauzatzeko**, udalerriei beharrezko aldaketak egiten lagundu baitie ekintzak eta aurreikuspenak esku hartzeko benetako modura eta haien garapen-beharretara egokitzeko, aurrez finkatutako helburuak lortze aldera.

Izartu 2004-2008 programen aurrerapenari dagokionez ere, onuradun udalerrriak oso-oso lan onuragarria egiten ari dira programak gauzatzeko bidean, amaieraren hasieran dauden honetan.

Izartu II programaren onuradun 68 udalerriek diruz lagun daitekeen inbertsio guztiaren bi heren baino gehiago (116, 5 milioi, %67) erabili dituzte orain arte eta, era berean, 2007. urterako aurrez ikusitako ia gastu-aurreikuspen guztiak gauzatu dituzte. **%13k, berriz, programak amaitu ditu**. Hain zuzen ere, Abantoko, Andoaingo, Otxandioko eta Zegamako programak amaitu dira, eta Arrigorriagako, Lekeitioko, Gasteizko eta

Zierbenako programak amaituta daude ia; aurrez, 2006an, Hondarribikoa amaitu zen. Ildo berean, **Izartu II programaren esparruko 126 ekintza (diruz lagundutako guztien %50 inguru) amaitu dira.**

Tokian-tokian pozik daudela nabari da, Izartu II programaren orain arteko denboran lortutako emaitzak direla eta. Izan ere, *lurralde-batasunaren arazoak ebaztea xede, hiriguneetako oztopoak kendu dituzte eta hiriguneen egoera hobetu dute, oztopo fisikoak gainditu eta kohesiodun egitura antolatu dute hiriguneetan: 35.520 m² bide berritu dituzte, 8 km errepide hobetu, 30 km pasealeku eta espaloi eraberritu, eta zortzi bide mekaniko berri eta oinezkoentzako bi pasabide berri egin. Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak erabiltzen hastea (zuntz optikoa erabiltzea eta administrazio-zerbitzuak digitalizatzea) helburu, sareak, ekipamenduak eta programak instalatu dituzte, eta 39.000 erabiltzaile baino gehiago dituzte jadanik. Hondatutako edo/eta bazter utzitako eremuak bere onera ekartze aldera, 600.000 m²-ko baino gehiagoko eremua berritu dute eta, tartean, 250.000 m² inguru garbitu eta egokitu dituzte, ingurune naturalean eta hirigunean, plazak, lorategiak eta parkeak, etab. egiteko. Enpresaburuak, enpresa txikiak eta ertainak, turismoa eta udal-ondarea sustatzea xede, 154 ekimen eta ekintza gauzatu dituzte enpresei lagundu eta azpiegiturez hornitzeko eta, hartara, garapen ekonomikoa eta merkataritza sustatzeko. Hiriko jardunak ingurumenean duen eragina txikitze aldera, auzoetako eta hiriguneetako 77.800 m² baino gehiago berrurbanizatu eta zerbitzuetarako eta hornikuntzarako 20.000 m baino gehiago berritu dituzte, eta 9.320 m² egokitu dituzte, kulturarako eta gizarte-gaietarako. Azkenik, ekipamendu eta hornidura berriak sortu dituzte, eta espero dute 13.000 lagunek baino gehiagok erabiliko dituztela.*

**3. 2007. URTEAN IZARTU PROGRAMAREN BI DEIALDIEN
ESPARRUAN EGINDAKOARI BURUZKO OROITIDAZKIA**

Atal honetan Izartu I eta Izartu II programen 2007ko bilakaera nolakoa izan den eta 2007an zenbat aurreratu duten aztertuko dugu; esku hartzeko esparru bakoitzean eta programaren onuradun lurralde bakoitzean finkatutako helburuen lorpenaren arabera neurtuko dugu aurrerapena.

Helburua analisi teknikoa egitea da, sailkapen funtzionalari (ardatzei eta neurriei) eta lurralde-sailkapenari (eskualdeei eta udalerriei) jarraiki, jakiteko nola gauzatu diren Izartu I programaren esparruko 18 programen eta Izartu II programaren esparruko 67 programen plangintzako 2007rako aurreikuspenak -Izartu I programaren esparruko beste 31 programak 2001-2006 aldian amaitu ziren, eta Izartu II programaren esparruko bat, Hondarribikoa, 2006an-, nola esku hartu duten eta, azken batean, nolakoa izan den ekimenaren beraren bilakaera.

Sailkapen funtzionala egiteko, Izartu programen esparruan proposatutako ekintzak multzo homogeneoetan bildu ditugu: orokorrak, ARDATZETAN, eta espezifikoak, NEURRIETAN; helburua da errazago egitea laguntzen erabilera orokorraren jarraipena eta analisisia. Izartu 2004-2008 programa eratzen duten esparruak ezberdinak dira Izartu 2001-2004 eratzen zutenen aldean, eta lau ARDATZEK (ekoizpen-inguruak, tokiko oinarritzko azpiegiturek, gizarteratzeak eta tokiko zerbitzuek, eta laguntza teknikoak) eta 20 neurrik osatzen dute. Izartu I programarekiko desberdintasun nagusia da hartako hirugarren eta laugarren ardatzak ardatz bakarrean (HIRUGARREN ARDATZEAN) bildu izana. Programa hura bost ARDATZEK osatzen zuten: ekoizpen-inguruneak eta enpleguak, tokiko oinarritzko azpiegiturek, giza baliabideek eta gizarteratzeak, tokiko oinarritzko azpiegituren sorrerak eta garapenak, eta laguntza teknikoak.

Lurralde-sailkapena egiteko, berriz, bi deialdietan (2001-2004 aldiko eta 2004-2008 aldiko deialdietan) programaren onuradun izan diren eskualdeak izan ditugu kontuan. 88 udalerrik (117 programak) osatzen dituzte, eta EAE guztikoak dira, hiru lurralde historikoetakoak: Arabakoak (*Aiaraldea eta Arabako Lautada*), Bizkaikoak (*Nerbioi Garaia, Arratia-Nerbioi, Bilbo, Durangaldea, Enkarterri, Gernika-Bermeo, Eskuinaldea, Ezkerraldea, Markina-Ondarroa, Plentzia-Mungia eta Txorierrri*) eta Gipuzkoakoak (*Debagoiena, Bidasoa Beherea,*

Debabarrena, Donostia, Donostialdeko ekialdeko eta mendebaldeko ingurabideak, Goierri, Tolosa eta Urola Kosta).

3.1. 2007an IZARTU I PROGRAMAREN ESPARRUAN EGINDAKOA

Izartu I programaren azken urtean ez da izan ia aldaketarik ekintzen kopuruan; salbuespen bakarra izan da Gernika-Lumoko Udalak programan parte hartzeari uko egin diola, aurrez ikusitako ekintza egitea bideraezina zela eta. Hartara, 2007an 325 ekintza lagundu ditu diruz programak eta, gehienbat, BIGARREN ARDATZEKO ("Tokiko oinarritzko azpiegiturak" ardatzeko) 2.5. neurriaren ("Antolamendu- eta eraberritze-azpiegiturak" neurriaren) esparruan bildu dira.

1. taula: IZARTU I programen esparruko ekintzen analisia, esku hartzeko esparruen arabera (2007. urtea)

ARDATZAK ETA NEURRIAK	2006. URTEKO EKINTZAK	
	Kopurua	%
1. ARDATZA. EKOIZPEN-INGURUNEA ETA ENPLEGUA	27	%8
1.1. Jardunean laguntzeko egiturak sortu eta garatzea	9	%2,7
1.2. Ekoizteko azpiegiturak sortu eta garatzea	3	%0,9
1.3. Enpresaburuak, enpresa txikiak eta ertainak, eta eskulan-enpresak laguntzea	5	%1,5
1.4. Tokiko sustapena, turismoa eta ondarea	10	%3,0
2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	237	%73
2.1. Garraio-azpiegiturak	19	%5,8
2.2. Telekomunikazio-azpiegiturak eta informazio-gizartea	4	%1,2
2.3. Energia-azpiegiturak	1	%0,3
2.4. Ingurumen-azpiegiturak	24	%7,3
2.5. Antolamendu- eta eraberritze-azpiegiturak	145	%43,8
2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegiturak	10	%3,0
2.7. Aisia- eta kultura-azpiegiturak	32	%10,9
2.8. Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegiturak	2	%0,6
3. ARDATZA. GIZA BALIABIDEAK ETA GIZARTERATZEA	29	%9
3.1. Lan-merkatuko politikak	8	%2,4
3.2. Gizarteratzea	9	%2,7
3.3. Aukera-berdintasuna	6	%1,8
3.4. Hezkuntza eta prestakuntza	6	%2,1
4. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO EGITURAK SORTZEA	6	%2
4.1. Tokiko oinarritzko zerbitzuak	5	%1,8
4.2. Herritarren segurtasuna	-	-
4.3. Gizarte-hezkuntza eta gizarte-prestakuntza	1	%0,3
5. ARDATZA. HAINBAT	26	%8
5.1. Laguntza teknikoa	26	%7,9

3.1.1. 2007an EGINDAKORAKO AURREZ IKUSITAKO FINANTZA-PLANGINTZAREN GAUZATZEA

2007an amaitzeke zeuden 18 Izartu I programek 30.214.207 euro gastatu dituzte guztira urte horretan. Hartara, Izartu I programak iraun duen bitartean egin diren inbertsioetan bigarren handiena egin da azken urtean, eta orduan izan da programako batez besteko gastua handiena. Hain zuzen ere, 2001ean, onuradun programa bakoitzeko batez besteko gastua 274.545 eurokoa zen eta, 2007an, 1.678.567 eurokoa ere.


2. taula: Izartu I programaren onuradunek 2001-2007 aldian gastatutakoaren konparazioa

URTEA	GUZTIRA EGINDAKO INBERTSIOA	DENA DELAKO URTEAN ABIAN ZEUDEN PROGRAMEN KOPURUA (*)	ONURADUN PROGRAMA BAKOITZEKO BATEZ BESTEKO GASTUA
2001	14.001.800	49	274.545
2002	34.406.963	49	674.646
2003	46.012.874	48	958.602
2004	30.838.806	47	656.145
2005	36.953.428	44	839.851
2006	22.800.109	31	735.487
2007	30.214.207	18	1.678.567

(*) Zumarragako eta Gernika-Lumoko Izartu I programak kanpo.


Tokiko arduradunek programaren amaiera aldean egin duten ahaleginaren adierazgarri, 2007rako aurrez ikusitako gastua zenbateraino gauzatu duten ere dugu, eguneratu eta onuradunek beraiek aurreko urteetan gastatzea erabaki baina gastatu ez zutena ere erabili baitute.

1. grafikoa: Izartu I programa. 2007an egindako gastua, urte horretarako programatutakoaren aldean




2007ko ekitaldian, Izartu I programaren esparruko programen ahalegina bildu da programak irauten zuen bitartean, ekintzen konplexutasuna eta elkarren arteko mendekotasuna zela-eta, programaziora egokitzeko zailtasun gehien zituzten esparruetan, alegia, *4.1. Tokiko oinarritzko zerbitzuak, 2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegiturak, 2.5. Antolamendu- eta eraberritze-azpiegiturak eta 2.1. Garraio-azpiegiturak* neurrien esparruko ekintzetan.

2. grafikoa: Esku hartzeko esparruak. Izartu 2001-2005 programek 2007an egindako inbertsioa, aldi osoan (2001-2007 aldian) metatutako gastuaren aldean



Lurralde-ikuspegitik, 2007an zortzi eskualdetan bakarrik zeuden Izartu programak abian: *Nerbioi Garaia, Debabarrenean, Aiaraldean, Donostialdeko ekialdeko ingurabidean, Durangaldean, Goierriin, Ezkerraldean eta Txorierriin.*

3. grafikoa: Eskualdeak. Izartu 2001-2005 programek 2007an egindako inbertsioa, aldi osoan (2001-2007 aldian) metatutako gastuaren aldean



Aurreko atalean azaldu dugunez, ahaleginik handiena aurreko urteetako programazioaren aldean gehien desbideratu diren udalerriek egin dute. Esate baterako, Sestaok programak irauten zuen aldi osorako aurrez ikusitako inbertsio osoaren bi heren baino gehiago egin du 2007an. Ildo berean, Alonsotegiko eta Portugaleteko (San Rokeko) Izartu programek inbertsio osoaren erdia baino gehiago (hurrenez hurren, %57 eta %56) egin

dute azken urtean, eta beste udalerri hauek, %40 baino gehiago: Erandiok (%48), Eibarrek (%48), Laudiok (%42), Trapagaranak (%41), Zaldibarrek (%41) eta Pasaia (%40).

3.1.2. PROGRAMAZIOAREN DESBIDERATZEAK

Aurreko ataletik ondorioztatzen denez, aurreko urteetan hainbat udalerritan izandako atzerapena gorabehera, ahalegin handia egin dute Izartu I programaren azken luzapen-urtean diruz lagundutako ekintza guztietarako aurrez ikusitako inbertsio osoa egiteko. Hartara, Gernika-Lumon eta Zumarragan izan ezik -tokiko arduradunek programan parte hartzeari uko egin zioten, 2007an eta 2003an hurrenez hurren, diruz lagundutako ekintzak egitea bideraezina zela eta-, **onuradun 49 programek aurrez ikusitako inbertsioa %100 gauzatu da guztira 2007 amaitzerako**. Hain zuzen, gastua 215.228.186 eurokoa izan da, eta aurrez ikusitako inbertsio osoa 215.722.025 eurokoa zen.


2007ko ekitaldian gertatutako desbideratzeei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak **zazpi programa aldatzeko eskaerak** onartu ditu. Zehazki, ekintza bati zegokion aurrekontua beste batera aldatzea edo ekintzak indargabetu edo/eta ekintza berriak proposatzea onartu du, eta hori eskatzeko arrazoia izan da kudeaketa sinplifikatu izana, ekintza bideraezinak indargabetu izana edo beste ekintza batzuei eman izana lehentasuna.

Bestalde, **aurrez ikusitako inbertsio osoaren %100 gauzatu da batez beste baina, programak bereiz aztertzen baditugu, desberdintasunak ikusiko ditugu**. Batetik, Izartu programari esker, udalek diruz lagundutako inbertsioaren bidez egin zitzaketenak baino inbertsio handiagoko ekintzak egin ahal izan dituzte, eta gastu metatua ekintzak egiteko aurrekontua baino handiagoa izan da.

Bestetik, hainbat onuradun udalerririk (Arrigorriagak, Barakaldok -Gurutzetak-, Erandiok, Galdakaok, Leioak, Ordiziak eta Santurtzik) ez dute osatu nork bere Izartu programarako aurrez ikusitako inbertsioa, zenbait arrazoi direla medio: ekintza batzuen kostua hasieran kalkulaturakoa baino txikiagoa izatea, beste finantzazio-iturri batzuk erabiltzea, zenbait proiektu bideraezinak izatea edo, luzapena gorabehera, ekintzak egiteko epea nahikoa ez izatea. Alabaina, azkenean Izartu I programaren esparruan egindako 299 ekintzen %15en harira soilik gertatu da desbideratzea, aurrez ikusitako inbertsioa ez gauzatzea -alde batera utzi ditugu laguntza teknikoari dagozkion 26ak-. Ildo berean, nabarmentzekoa da, aurrez ikusitako inbertsioa baino txikiagoa erabili duten 45 ekintzetan, ia erdiak (19k) inbertsio osoaren %90 egin dutela; hau da, azken batean, programazioaren desbideratzea oso txikia izan da.

Horrek guztiak esan nahi du Izartu I programaren bidez diruz lagundutako ekintzen %85 aurreikuspenekin bat egin dela; hots, hasieran finkatutako gastu-aurreikuspenekin edo Eusko Jaurlaritzak onartutako aldaketekin bat egin dela.

4. grafikoa: Izartu 2001-2005 programen desbideratzea 2007ko programazioaren aldean



3.2. 2007an IZARTU II PROGRAMAREN ESPARRUAN EGINDAKOA

Sarreran azaldu dugunez, Izartu 204-2008 programaosatzen duten esparruak ezberdinak dira Izartu I programakoen aldean, eta lau ARDATZETAN eta 20 neurritan biltzen dira; egia esan, 17 neurritan sailkatzen dira, ez baitzuten ekimenik proposatu HIRUGARREN ARDATZEKO hiru neurriren esparruan. **326 ekintzak eratzen dute sailkapena, 2006ko ekitaldian baino lau gutxiagok.** Izan ere, aldaketak eskatu dituzte 2007. urtean baina, hala ere, horrek ez du eragin aldaketa esanguratsurik ekintzen banaketan: **aurreko deialdian bezala, BIGARREN ARDATZAK ("Tokiko oinarritzko azpiegiturak" ardatzak) bildu ditu ekintza gehien eta inbertsiorik handiena (inbertsioaren %96 eta ekintzen %77).**

3. taula: IZARTU 2004-2008 programen esparruan proposatutako ekintzen analisia, esku hartzeko esparruen arabera (2007. urtea)

ARDATZAK ETA NEURRIAK	2007. URTEKO EKINTZAK	
	Kopurua	%
1. ARDATZA. EKOIZPEN-INGURUNEA	14	%4
1.1. Jardunean laguntzeko egiturak sortu eta garatzea	7	%2
1.2. Ekoizteko azpiegiturak sortu eta garatzea	2	%1
1.3. Enpresaburuak, enpresa txikiak eta ertainak, eta eskulan-enpresak laguntzea	1	%0,3
1.4. Tokiko sustapena, turismoa eta ondarea	4	%1
2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	251	%77
2.1. Garraio-azpiegiturak	21	%6
2.2. Telekomunikazio-azpiegiturak eta informazio-gizartea	4	%1
2.3. Energia-azpiegiturak	6	%2
2.4. Ingurumen-azpiegiturak	46	%14
2.5. Antolamendu- eta eraberritze-azpiegiturak	156	%48
2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegiturak	5	%2
2.7. Aisia- eta kultura-azpiegiturak	11	%3
2.8. Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegiturak	2	%1
3. ARDATZA. GIZARTERATZEA ETA TOKIKO ZERBITZUAK	4	%1,3
3.1. Gizarteratzea	1	%0,3
3.2. Aukera-berdintasuna	1	%0,3
3.3. Gizarte-hezkuntza eta gizarte-prestakuntza	-	-
3.4. Herritarren segurtasuna	-	-
3.5. Gizarte- eta laguntza-zerbitzuak	-	-
3.6. Zerbitzu soziokulturalak	1	%0,3
3.7. Tokiko oinarritzko beste zerbitzu batzuk	1	%0,3
4. ARDATZA. LAGUNTZA TEKNIKOA	57	%17
5.1. Laguntza teknikoak	57	%17


3.2.1. 2007an EGINDAKORAKO AURREZ IKUSITAKO FINANTZA-PLANGINTZAREN GAUZATZEA

2007a Izartu II programen amaieraren hastapena izan da. Areago, Hondarribikoa, batetik, eta Abantokoa, Andoaingoa, Otxandioko eta Zegamakoa, bestetik, amaitu dira dagoeneko; bata 2006an amaitu zen, eta besteak 2007an.

Izartu 2004-2008 programaren onuradun 67 udalerriek 45.520.643 euro gastatu dituzte guztira 2007. urtean; urte horretarako aurrez ikusitako inbertsioaren %82 da hori, aurreikuspenetara neurri handi batean egokitu diren adierazgarri. Izartu II programaren lehen erdialdean (2004 eta 2006 artean), programarako inbertsio osoaren %46,5 erabili zuten; 2007ko ekitaldian erabilitakoa batuta, guztira, diruz lagundutako zenbateko osoaren bi heren baino gehixeago (%67,4) erabili dute.


Alde horretatik, Izartu II programen lau urteetako bilakaera Izartu I programenarekin alderatuz gero, agerian gelditzen da bigarren deialdiko onuradunak hein handiago batean egokitu direla programaziora. Hain zuzen ere, Izartu I programek urteko aurrez ikusitako gastuaren %56 egin zuten batez beste lehen lau urteetan; Izartu II programek, berriz, %84koa egin dute batez beste.

5. grafikoa: Izartu II programa. 2007an egindako gastua, urte horretarako programatutakoaren aldean



Bestalde, inbertsioaren zenbatekoa ezberdina izan da esku hartzeko esparru batzuetan eta besteetan. BIGARREN ARDATZAK programa osoaren barnean garrantzia handia duela-eta, baldintzatzen du zenbateraino egokitzen den aurrez ikusitako inbertsioa programaziora; nolahi ere, alde handiak daude neurri batzuen eta besteen artean. Esate baterako, 2.3. Energia-azpiegiturak eta 2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegiturak neurrien esparruan aurrez finkatutakoa baino nabarmen gehiago gastatu dute, eta 2.8. Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegiturak eta 2.4. Ingurumen-azpiegiturak neurrienean, 2007rako programatutako gastua baino askoz gutxiago. 2.5. Antolamendu- eta eraberritze-azpiegiturak neurriaren esparruko ekintzek -ekintza guztien erdia osatzen dute ia-, berriz, programazioaren %88 baino gehiago gauzatu dute, eta LEHEN eta HIRUGARREN ARDATZEKOEK, are gehiago; ekintza gutxiago proposatu dituzte haien esparruan, eta batez besteko gastua %112koa eta %110ekoa izan da programazioaren aldean, hurrenez hurren.


6. grafikoa: Esku hartzeko esparruak. Izartu 2004-2008 programek 2007an egindako inbertsioa



Lurralde-ikuspegitik, Gipuzkoan eta Bizkaian neurri handi batean egokitu da gastua 2007. urteko programaziora: %86 eta %83, hurrenez hurren. Araban, ordea, 2007rako aurrez ikusitako inbertsioaren %19 besterik ez dute gauzatu. Dena dela, programak iraun duen bitartean egindako inbertsioa kontuan hartuta, Araban aurreratu dute gehien, programaren indarraldi osorako aurrez ikusitako inbertsioaren %73 erabili baitute.

Zehatz-mehatz, eskualdeei dagokienez, Izartu II programaren onuradun zazpi eskualdek programatutakoa baino inbertsio handiagoa egin dute: *Bidasoa Behereak, Donostialdearen ekialdeko ingurabideak, Donostiak, Enkarterrik, Goierrik, Plentzia-Mungiak eta Tolosak*. Aitzitik, *Bilbok, Arabako Lautadak, Eskuinaldeak eta Markina-Ondarroak* ez dute egin programatutako gastuaren erdia ere.

7. grafikoa: Eskualdeak. Izartu 2004-2008 programek 2007an egindako inbertsioa




3.2.2. PROGRAMAZIOAREN DESBIDERATZEAK

Aurreko datuek adierazten dutenez, desberdintasun handiak izan dira gauzatze-erritmoan Izartu 2004-2008 programa batzuen eta besteen artean. Xeheki analizatuz gero, nabari da desbideratzea izan dela, bai superabita eta bai defizita izan baita 2007. urterako aurrez ikusitako inbertsioa gauzatzen. Lehenik eta behin, aipatzekoa da, programak amaiera aldean dauden honetan, hasiera batean finkatutako programazioa aldatzeko eskaera gehiago egin dituztela lehen urteetan baino. **Hain zuzen, onuradunen %28k (20 udalerrrik) eskatu ditu aldaketak: ekintzak egiteko zenbateko osoaren aldaketak (aurrekontua ekintza batetik bestera aldatzea) edo indarrean zegoen programari ekintzak erantsi edo/eta kentzea.** Zehazki, udalerrri hauek aldatu dituzte programak 2007an: Antzuolak, Areatzak, Balmasedak, Basaurik, Elgoibarrek, Elorriok, Irunek, Legazpik, Legorretak, Lezok, Mungiak, Oiartzunek, Otxandiok, Portugaletek, Sopuertak, Tolosak, Turtziozek, Zaldibiak, Zegamak eta Zierbenak. Hartara, inbertsioa ekintza batetik bestera aldatzeaz gain, **hiru ekintza gehiago programatu eta hasierako programako zazpi ezabatu dituzte.**

Bigarrenik, laguntza teknikoari dagokion ardatzetik at **diruz lagundutako 269 ekintzen %48ren esparruan ez da izan inolako desbideratzerik,** dela ez zutelako aurrez ikusi 2007an inbertsiorik egitea, dela jakineko helburua aurreko urteetan lortu zutelako, dela 2007rako programatutako gastuarekin bat etorri direlako.


8. grafikoa: Ekintzak. Izartu 2004-2008 programen desbideratzea 2007ko programazioaren aldean



Desbideratzerik izan denean, berriz, erdia ia (%49) superabitagatiko desbideratzea izan da, alegia, gehiago gastatu dute programatutakoa baino: inolako gasturik aurrez ikusi ez zuten hainbat ekintzaren esparruan gastatu egin dute, edo beste hainbat ekintza egiteko gehiago gastatu dute hasieran pentsatutakoa baino. **Gainerako desbideratzeak aurrez finkatutakoa baino gutxiago gastatzearen ondorio izan dira**, edo, programazioa gorabehera, gasturik egin ez dutelako.

Aurrez ikusitakoa baino gehiago Izartu II programaren onuradun izan diren udalerrien heren batek baino gehiagok (%40k) gastatu dute. Zehatz-mehatz, 27 programaren esparruan izan da superabita eta, gainera, beste hamarrek (%15ek) programazioa bete edo ia bete dute. Programaziora gutxien egokitu diren programen artean, nabarmentzekoak dira aurreikuspenen heren batetik behera gelditu diren 14.

9. grafikoa: Udalerriak. Izartu 2004-2008 programen desbideratzea 2007ko programazioaren aldean



Bereziki, Abanton, Andoainen, Balmasedan, Elorrion, Gueñesen, Ibarrran, Lekeitio, Lemoizen, Otxandion, Sopuertan eta Tolosan egin dute programatutakoa baino gehiago. Ildo horretan, udalerririk aurreratuenak ere dira horiek, 2007ko gastuen aurreikuspenez gain, programak irauten duen aldi osoan diruz lagun daitekeen inbertsio osoa ere gainditu dutelako; are gehiago, Otxandiok uste baino urtebete lehenago amaitu du programa.

2006an Hondarribiko programa amaitu zen, eta 2007ko ekitaldian, berriz, Abantoko, Andoaingo, Otxandioko eta Zegamako Izartu 2004-2008 programak amaitu dira. Ildo berean, Arrigorriagako, Lekeitioko, Gasteizko eta Zierbenako programak amaitzeaz daude, eta dagoeneko inbertsioaren zatirik handiena erabili dute udalerriotan.

Aurrez ikusitako inbertsio osoa baino handiagoa egin duten udalerrietako tokiko arduradunek jakinarazi dutenez, onuradun programetan uste baino gehiago gastatzeko arrazoi nagusia izan da ekintzen kostua handiagoa izatea Izartu 2004-2008 programak diruz laguntzen zuena baino. Aurreko ekitaldietan bezala, hauek izan dira arrazoi nagusiak Arrigorriagak, Balmasedak, Elorriok, Gueñesek, Igorrek, Lemoizek, Otxandiok, Sopuertak eta Tolosak gehiegizko gastua egiteko: ekintzak garestiagoak izatea hasiera batean kalkulaturakoa baino, hobekuntzak egin dituztela-eta proiektuetan; eremu handiagoetan esku hartzea; eta aurrez ikusitako ekintzak errotik aldatzea. Beste udalerrri batzuetan, berriz, hasieratik zekiten ekintzen edo programen kostua handiagoa izango zela eta, hortaz, udalek ahalegin handiagoa egin dute haiek batera finantzatzeko, garrantzi handikoak eta lehentasunezkoak zirela eta. Andoainen, Ibarren, Leketion eta Gasteizen gertatu da hori.

Bestalde, Areatzako, Astigarragako, Bilboko, Donostiako, Irungo, Karrantzako, Legazpiko, Legorretako, Mungiako, Orioko, Portugaleteko eta Segurako udalek aurrez ikusitako inbertsioaren ia osotasuna (%75 baino gehiago) gauzatu dute, eta gauzatze-erritmoa finkaturakoa baino azkarragoa izateko arrazoiak izan da zenbait hobekuntza eta ekintza (nagusiki, hirigintza arloko hobekuntzak) egin beharra beharrezkoa eta premiazkoa izatea, edo/eta esku hartzeko udal-plangintzako aurreikuspenak betetzea.

Aitzitik, Leioak, Sestaok eta Trapagaranak gastatu dute gutxien programaturakoa aldean eta, ildo horretan, haiek dabiltza beranduen diruz lagundutako inbertsioa erabiltzen; inbertsio osoaren %10 baino gutxiago erabili dute. Bermeo, Elgoibar, Erandio, Etxebarri, Gernika-Lumo, Lezo, Oiartzun, Soraluze eta Turtzioz ere aipatzekoak dira inbertsioaren zenbateko txiki bat erabili duten udalerrien artean, baina hango egoera hobe da, inbertsio osoaren heren bat baino gutxiago egin baitute.

Atzerapen gehienak hirigintza arloan kudeatzen zailak diren ekintzei dagozkie. Esate baterako, Elgoibarren, Lezon eta Trapagaranen baimenak eta beste erakunde edo eragile batzuekiko akordioak behar dira; Leioan, Bermeon eta Sestaon azterketa gehiago egin behar dira esku hartzeko, aurreko proiektuak konplexuak edo bideraezinak zirelako; eta Gernika-Lumon, Oiartzunen eta Soraluzen atzerapenak izan dira izapideak egiten, edo mendekotasuna dago egin beharreko ekintzen eta beste erakunde batzuek egin beharreko lanen artean.

Hori dela-eta, tokiko arduradunek uste dute ekintzak eta inbertsioak berriz programatu beharra dagoela, eta litekeena dela programen gauzatzea 2010 arte luzatu behar izatea.

Gainerako programek ere agerian uzten dute aurrez ikusitako inbertsioa gauzatzeko itxurazko atzerapenak ez dutela esan nahi tokiko arduradunek iritzi txarra edo kezka dutenik nork bere programak gauzatzeko erritmoari buruz. Izan ere, hainbat arrazoi (eraikuntzan erabili beharreko elementuak berriz zehaztea, programatutako ekintzen kostuak gora egitea, obra-egiaztagirien atzerapenak...) direla medio, oztopoak izan dira, baina Etxebarriko, Turtziozko eta Erandioko programen arduradunek uste dute aurrez ikusitakoarekin bat amaituko dutela, 2008an.

4. IZARTU I PROGRAMAREN AMAIERAKO ETA EBALUAZIOA EGITEKO OROITIDAZKIA

Atal honetan, Izartu I programaren amaierako ebaluazioa egiteko txostenetako analisien emaitza nagusiak bildu ditugu. Hain zuzen, aztertuko dugu zenbateraino egokitu diren onuradun programak emandako laguntzen helburuetara eta tokian-tokian zeuden beharretara eta lehentasunetara; zenbateraino lortu dituzten aurrez finkatutako xedeak diruz lagundutako ekintzen bidez; behin programak amaitu osteko ondorio agerikoen arabera, zer helburu lortu dituzten; eta onuradunek beraiek zer irakaspen ikasi dituzten eta ekimenari buruz zer iritzia duten.

Jarraian datozen ondorioak eta baieztapen nagusiak hitzez hitz hartu ditugu amaierako ebaluazioa egiteko txostenetatik. Hainbat ebaluazio-taldek (onuradun udaletatik kanpoko 20 enpresak baino gehiagok) egin dituzte txostenok, Izartu 2001-2005 programen tokiko arduradunen eta azkeneko onuradunen iritzia objektiboki bilduz, eta, horretarako, Izartu I programaren amaierako ebaluazioa egiteko gida praktikokak aipatzen dituen arauei jarraiki zaizkie.

Hartara, Izartu 2001-2005 programaren amaierako ebaluazio guztiak egiteko metodologia, datu ekonomikoen eta programen jarraipenari buruzko adierazleen analisiak ez ezik, udal-arduradunekiko (politikoeikiko eta teknikoekiko) elkarrizketek eta onuradun biztanleriaren lagin adierazgarri bati egindako inkestek ere osatu dute betiere; gainera, programa gehienen ebaluazioa osatzeko, gizarte eta ekonomia arloko hainbat elkarteren ordezkariak ere galdetu diete txostengileak.

Horri esker, programari buruzko atal honetako hausnarketek hitzez hitz biltzen dute Izartu I programen tokiko arduradunek, hartzaileek eta amaierako ebaluazioa egin duten taldeek adierazitako iritzia.

Bestalde, aurreko jarraipen-txostenetan egin izan dugun bezala, **emaitza nagusiak azalduko ditugu Izartu programaren esparruan diruz lagundutako ekintza bakoitzaren kohesio-helburuen arabera.** Ekintzak zortzi kohesio-helburu orokorren arabera sailkatuz, Eusko Jaurlaritzak programa jarraitu eta kontrolatzeko erabiltzen duen sailkapen

funtzionala (esku hartzeko esparruen, alegia, ARDATZEN eta neurrien arabera) osatuko dugu eta, hartara, ikuspegi hurbileko eta ulerterrazagoa emango dugu Izartu programak udalerrietako kohesioa handitzeko bidean izan dituen lorpen nagusiei buruz.

Kohesio-politikaren arabera sailkapena Izartu programa administratzen duen unitatearen laguntzaile teknikoek egin dute, eta ekintza-moten eta ekintzen bidez lortu edo espero zutenaren arabera sailkatzen ditu ekintzak. Azken batean, kohesio-helburu orokorrak dira, udalerrietako sozioekonomia gehiago kohesionatu eta hiriguneak hobeto egituratze aldera, lehen deialdiko 49 programek lortu nahi zituzten xedeak.

4.1. EGOKITASUNA

Amaierako ebaluazioetako egokitasun-analisiak aztertzen du zenbateraino egokitu diren gauzatutako onuradun programak emandako laguntzen helburuetara eta bakoitzaren kohesio-politiketara, baita tokiko beharretara eta lehentasunetara. Azken batean, **kontua da ebaztea erabilitako estrategia (biziberritze-programa orokorren esparruko ekintzak egiteko erabilitakoa) izan den egokiena; hauek dira horretarako irizpideak: udalerrri bakoitzaren hasierako egoera** (hasiera batean zehaztutako arazoa), **emaitzak eta, behin emaitzak lortu eta gero, emaitzak nola egokitu diren tokiko arduradunen helburuetara** (hobekuntzarik sumatu den udalerrietan) **eta Izartu programaren helburu orokorretara (kohesio sozioekonomikoa lortzera eta hiriguneak egituratzera).**

4.1.1. ABIAPUNTUKO EGOERA. TOKIAN TOKIKO BEHARRAK, HELBURUAK ETA EMAITZAK

Abiapuntuko egoera eta tokian tokiko beharrak

Izartu programaren lehen deialdiari buruzko araudiak (Euskal Autonomia Erkidegoan hirialdeak biziberritzeko erabateko jardunei laguntzeko neurriak ezartzen dituen azaroaren 28ko 236/2000 Dekretuak) dioenez, "ekonomiaren hazkunde-prozesuetan desorekak izaten dira ekonomia esparru guztietan, eta Euskal Autonomia Erkidegoa ez da horretan salbuespena".

Horren ondorioz, hainbat udalerrri eta hirigune andeatuta daude. Arazo ekonomiko larriak dituzte edo ekonomia gainbehera dator eta, oro har, giroa eta ingurumena degradatzea dakar horrek: "hazkunde ekonomikoan parte-hartze txikia duten inguruetan era askotako eraginak nabaritzen dira, zuzenean egoera horri lotuta: hiriko bizimodua okertu egiten da, gizartea hautsi (langabezia-maila handia, gazte gaizkile asko, gizartean moldatzeko arazoak, etab.), ingurumenaren narriadura, udalerrriko gainerako auzo eta aldeetatik banandu eta urrundu, eta abar".

Horiexek ziren Izartu 2001-2005 programaren jomuga: hondamen ekonomikoak eta sozialak jotako hirigune andeatuak, arazo jakin batzuk (langabezia, jardun ekonomiko urria, osasungarritasun-arazoak, pobrezia, gizarte-bazterketa, hiriguneko ekipamenduen defizita, metaketa eta hirigunearen haustura, inguruko ingurumenaren degradazioa...) lurraldeko

beste leku batzuetan baino neurri handiagoan zituztenak, *hondamen sozioekonomikoa eta lurraldearen hondamena neurtzeko irizpideekin bat.*

Programan parte hartzeko eskaera onar zezaten, Izartu I programaren 49 onuradunek nork bere abiapuntuko egoera edo sumatu zituzten arazoak azaldu zituzten eta, egin zuten deskripzioari erreparatzen badiogu, bi programa mota bereiz ditzakegu:

- 1) **Ezaugarri sozioekonomikoen bilakaeraren analisitik eta EAeko beste hiri eta herri batzuekin konparatzetik ondorioztatzen denez, egitura sozioekonomikoaren geldialdi- eta gainbehera-egoera larrian zeuden udalerrietako programak.** Hainbat fenomenok bat egiten zuten han: biztanleria gero eta urriagoa izateak eta zahartzeak, ekipamendu eta zerbitzu publikoen defizitak, jardun ekonomikoan aritzeko aukera eskasek, hirigunearen irudi eta egoera txarrak...
- 2) **Gaur egun gure herri eta hiri gehienetako hirigintzaren kalitate-estandarren aldetik, udalerri osoaren aldean egoera okerragoan zeuden hiriguneetako eta auzoetako programak.** Dentsitate handia eta hirigunearen haustura edo sustatu beharreko eremuaren eta udalerriko gainerako egituraren arteko batasun eskasa sumatzen da han, azpiegiturak eta sareak zaharkituta daudela, ekipamendu eta zerbitzu publikorik ez dagoela, pobrezia, gizarte-bazterketa, biztanleriaren zahartzea...

Lehenbiziko multzoak 1980ko hamarkadako industria-krisiaren eta udalerrietako jardun ekonomikoaren iturri nagusiak desagertzearen ondoriozko arazoak zituen: ez zen aukerarik ekonomia askotariko esparruetara hedatzeko, ez zegoen enpresak erakartzeko ekoizpen-ingurune eta azpiegiturarik; gainera, hirigune gehienak andeatuta zeuden, edo banatuta, oztopo fisikoak zeudelako oraindik. Horren guztiaren ondorioz, biztanleen kopurua behera egiten ari zen, migrazio-balantzea negatiboa zen eta biztanleria zahartzen ari zen; halaber, langabezia-maila handia zegoen eta tokiko lanpostuen kopurua gero eta txikiagoa zen, eta horrek gizarte eta hirigintza arloko gainbehera areagotzen zuen. Egoera horretan zeuden 2001ean Izartu I programaren hainbat onuradun udalerri: Alonsotegi, Amurrio, Bermeo, Deba, Elgoibar, Erandio, Ermua, Errenteria, Galdakao, Lezo, Oiartzun, Laudio, Mungia, Urduña, Pasaia, Sestao eta Trapagaran.

Egoera are larriagoa zen garapen ekonomikoaren ardatzetatik urrun zeuden landa-giroko udalerrietan, hala nola, Gordexolan, Karrantzan, Legazpin, Mendaron, Muskizen, Mutrikun, Soraluzen, Zaldibarren eta Zegaman.

Bigarren multzoa auzo zaharrek (1950eko hamarkadaren aurrekoek) edo/eta 1960ko eta 1970eko hamarkadetako hirigintza garapenzalearen garaian eraiki zituztenek osatzen zuten. Garai haietan, langile etorkinei etxebizitza merkeak eskaintzeko sustapenak egiten zituzten: gorantz eraikitzen zuten, eta oso leku gutxi uzten zuten ekipamendu eta instalazio publikoak egiteko. Hori dela-eta, gaur egun, urbanizazio eskas eta zaharkituak daude, ekipamendu-defizitak, aisia emateko gune gutxi eta metaketa-arazoak, gazteek alde egitea eta baztertuta dauden pertsonen pilaketa. Programa hasi zutenean, egoera horretan zeuden Arrigorriaga (Abusu), Barakaldo (Gurutzea eta Lutxana-Enekuri), Basauri (Kalero-Basozelai), Berriz (Berriz-Olakueta), Bilbo (Otxarkoaga eta Bilbo Zaharra), Donostia (Altza eta Loiola), Eibar (Matsaria), Etxebarri (San Antonio), Gueñes (Elubarri), Irun (Bidasoaren ibaiertza), Leioa (Lamiako eta Txopoeta), Loiu (Elotxelerrri), Ondarroa (Kamiñalde), Ortuella (La Ralera eta Golifar), Portugalete (Azeta eta San Roke) eta Santurtzi (Donibane).

Multzo horretan Balmedakoa, Ordiziako, Tolosako eta Urretxuko alde zaharrak ere sartu beharrean gaude. Zaharrak ziren eta urteetan ez zituzten behar bezala zaindu; horregatik, hirigintza eta sozioekonomia arloko arazo berberak zituzten. Alde horretatik, litekeena da haien arazoak are larriagoak izatea; izan ere, zailagoa zen esku hartzea, eremuon baldintza bereziak zirela eta.

Helburuak eta egokitasuna, emaitzen arabera


Hasiera bateko arazoak gorabehera, **onuradunek adierazitako beharrei erantzuteko, irtenbide orokorrak behar ziren** bi programa-moten esparruan. Hau da, programa orokorrak behar ziren, elkar osatzen zuten lan-ildo eta proiektu egituratuek osatutakoak, tokian tokiko arazo espezifiko guztiak oro har konpontzeko.

Tokiko lehentasunei erantzuteko proposatutako udal-estrategiak Izartu programaren esparruan finkatutako helburuekin eta antolatutako babes-ildoekin ere ziren koherenteak, diruz lagun zitezkeen ekintzekin alegia, azaroaren 28ko 236/2000 Dekretuko 5. artikuluari jarraiki. **Alde horretatik, hauek ziren Izartu I programaren esparruan proposatutako eta sustatutako ekintzen helburu orokorrak:**

- ❖ **Lurralde-batasunaren alorreko arazoak konpontzea** (bide eta sarbide berriak egitea; ibilgailuen eta oinezkoen komunikabideak hobetzea, gune guztiak hiriguneko egiturarekin lotzeko; oztopo arkitektonikoak kentzea eta oinezkoentzako eremuetako metaketa arintzea; eta auzoetako komunikazioa eta sarbideak hobetzea).
- ❖ **Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak erabiltzen hastea** (herritarrek, oro har, eta talde jakin batzuek informazio- eta komunikazio-teknologia berriak erabil ditzaten bultzatzea; eta horretarako hornitutako lekuak eta zerbitzuak prestatzea, horretarakoxe).
- ❖ **Ingurune degradatuak bere onera ekartzea** (industrialdeak eta hirialdeak egokitzea, ingurune naturalak lehenera ekartzea eta hiriguneko ingurumena hobetzea).
- ❖ **Jardun ekonomikoa sustatzea, enpresa berriak sustatuz** (ekintzaileei eta enpresa berriak sortzen dituztenei laguntzeko programak; eta enpresa-jarduna, industria-sektorekoa zein hirugarren sektorekoa kokatzeko eta aurrera eramateko guneak eta lokalak).
- ❖ **Enpresaburuak, enpresa txikiak eta ertainak, turismoa eta udal-ondarea sustatzea** (tokiko enpresen eta hirugarren sektoreko zerbitzuen lehiakortasuna handitzeko ekintzak, eta, bereziki, turismo-sektorekoena handitzekoak: udal-ondarea eraberritzea, turismoa erakartzeko guneak eta ekitaldiak, etab.).
- ❖ **Hiriguneko ingurumena hobetzea** (hiriko jardunak ingurumenean duen eragina txikitzea eta iraunkortasun-irizpideak betetzen dituzten azpiegiturak instalatzea, kutsadura- eta metaketa-maila txikiagotzea, eremu publikoak...).
- ❖ **Udalerriak gizarte-ekipamenduez hornitzea** (hirugarren sektoreko zerbitzuak eta hornidurak; gizarte- eta kultura-etxeak; zaharrentzako, emakumezkoentzako, gazteentzako eta bazter daudenentzako guneak; erabilera anitzetarako eraikinak; gizarte-zerbitzu eta gizarte-programa espezifikoak...)
- ❖ **Eraberritze-proiektuen bidez, hirigunearen itxura hobetzea** (urbanizazio-lanak; etxebizitzak, eraikinak eta ondarea eraberritzeko eta lehenera ekartzeko lanak; eta erdialdeko auzoetan eta auzo berezietan hobekuntzak egitea, baita auzo andeatuetan ere).

Udalek azaldutako arazoak eta udalek beraiek arazooi aurre egiteko proposatutako plangintza orokorrak Izartu I programaren helburuekin bat zetozeela ikusita, 2001ean, 2001eko ekainaren 13ko Ebazpenaren bidez, Eusko Jaurlaritzak onartu zuen 222 bat milioi euroko inbertsioa egitea, 51 Izartu programatan. Diru-inbertsio horretatik Euskal Autonomia Erkidegoko 48 udalerririk atera zuten etekina zuzenean; izan ere, 50.000 biztanletik gorako lau udalerritan eta bi udalerritan zortzi Izartu programa onartu zituzten.

10. grafikoa: Izartu 2001-2005 programak (2001. urtea)



336 ekintza lagundu zituzten diruz hasiera batean, baina 299 gauzatu zituzten azkenean. Honela sailka daitezke ekintzok Izartu 2001-2005 programaren kohesio-helburu orokorren arabera:

4. taula: Izartu I programen esparruan egindako ekintzak, kohesio-helburu orokorren arabera (2001-2007)

HELBURU OROKORRAK ETA EKINTZA-MOTAK	EKINTZAK	PROGRAMAK (*)
LURRALDE-BATASUNA	43	29
Bide eta sarbide berriak egitea edo zaharrak hobetzea	29	23
Bide mekaniko (arrapala, eskailera, igogailu) berriak	3	3
Oztopo arkitektonikoak kentzea eta oinezkoentzako eremuetako metaketa arintzea	11	10
INFORMAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-TEKNOLOGIA BERRIAK ERABILTZEN HASTE	6	6
Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak erabiltzeko gunez eta ekipamenduz hornitzea	3	3
Informazio-gizartea eta e-administrazioa sustatzea	3	3
ANDEATUTAKO INGURUNEAK LEHENERA EKARTZEA	34	20
Industria-inguruneak lehenera ekartzea	14	6
Ingurune eta paisaia naturalak lehenera ekartzea	9	7
Hiriguneko eremu andeatuak berrurbanizatzea	11	10
JARDUN EKONOMIKOA SUSTATZEA, ENPRESA BERRIAK SUSTATUZ	15	14
Enpresa-ekimenerako eta enpresak sortzeko guneak eta zerbitzuak	7	7
Jardun ekonomikoan aritzeko lekuak egokitzea	8	6
ENPRESABURUAK, ENPRESA TXIKIAK ETA ERTAINAK, TURISMOA ETA UDAL-ONDAREA SUSTATZEA	28	15
Lanerako prestakuntza eta orientazioa	12	7
Merkataritza sustatzea	4	4
Ondarea eta turismoan interesa pizten duten lekuak eraberritzea	9	6
Turismo-sustapena eta ekitaldiak antolatzea	3	2
HIRIGUNEKO INGURUMENA	45	24
Sareak eta azpiegiturak (saneamenduak, hornikuntzakoak, etab.) hobetzea	16	13
Kaleak oinezkoentzako bihurtzea	5	3
Plazak urbanizatzea	9	5
Parkeak eta aisia emateko lekuak egitea	15	9
UDALERRIAK GIZARTE-EKIPAMENDUEZ HORNITZEA	58	27
Gizarte- eta kultura-ekipamenduak	37	21
Udal-zerbitzuak eta udal-programak	21	11
HIRIGUNEAREN ITXURA HOBETZEA, ERABERRITZE-PROIEKTUEN BITARTEZ	70	25
Eraikinak eta eraikinen aurrealdeak eraberritzea	14	9
Alde zaharren itxura hobetzea	25	8
Auzoetako kaleetako egoera hobetzea	31	12

(*) Izartu I programaren 49 onuradun programen artean, Helburu honen esparruko ekintzek ere osatzen zituzten programen kopurua.

Amaierako ebaluazioa egiteko txostenetatik ondorioztatzen denez, tokiko arduradunen ustez, koherentzia handia izan da proposatutako estrategien (programa orokorren esparruko ekintzen) eta tokian tokiko beharren (hasiera bateko arazoan) artean; horren adierazgarri garbi, ekintzek herri guztietan izan dituzten emaitzak ditugu.

Onuradun udalerrien %100en ustez, Izartu programen egokitasuna oso handia izan da. Tokiko arduradun guztien aburuz, programa guztien gaineko ikuspegia orokorra izatea (elkar osatzen zuten eta elkarrengan eragina zuten alderdi askori heltzea) izan da egokiena udalerrien 2001eko (programak proposatu zituzteneko) egoera ekonomikoa eta soziala kontuan izanda.

Alde horretatik, onuradunen %72ren ustez, behin betiko emaitzen kariatara, argi dago planteatutako ekintzek hein handi batean lagundu dutela 2001ean arazotzat hartu zituzten egoerak konpontzen; onuradunen bi herenek baino gehixeagok uste dute hasierako egoera errotik aldatu dela, eta ez dagoela arrazoirik hainbat udalerri eta auzo hirigune andeatutzat hartzeko:

- ❖ Ebaluazioa egiteko txostenen %40k nabarmentzen duenez, hasierako langabezia-tasa handiak behera egin du, eta nabarmen hobetu da udalerri hauetako guztietako egoera udalerrien kohesio sozialari buruzko adierazle bati dagokionez. Hain zuzen ere, lan egiteko eta jardun ekonomikoa aritzeko aukerak azpimarratu dituzte, funtsezkoak izango baitira etorkizunean udalerrien garapenerako eta talde jakin batzuen aukera-berdintasunerako, baita taldeok gizarteratzeko aukera gehiago izateko ere.
- ❖ Onuradunen %35ek adierazi duenez, jazoetako aldaketak oso esanguratsuak izan dira udalerri hauek guztiak despulatzeke prozesuak alderantzizatzeko eta biztanle berriak (bereziki, gazteak) erakartzeko. Izan ere, hiriguneko baldintzak erakargarriagoak dira, zerbitzuek gora egin dute, enpresa berriek erakarri dituzte eta lan egiteko aukerak sortu dituzte.
- ❖ %46k nabarmendu du, ingurumen eta hirigintza arloko eraberritzeari esker, andeatutako eremuak andeatutzat hartzeko modukoak izateari utzi diotela, lehenera etorri direlako, eta Izartu programaren ondoren andeatutzat hartu ezin diren adierazgarri dela hori. Areago, gaur egun, oso erakargarriak dira bertakoen, biztanle berrien eta turisten ikuspegitik, eta asko erabiltzen dituzte, hau egin izanari esker: azpiegiturak modernizatu; gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzak eraitsi; ingurune naturalak eta historia- eta arte-ondarea berri; oinezkoentzako eta aisialdirako, hirugarren sektorerako azalera handitu; errepedeetako segurtasuna handitu...

- ❖ Azkenik, %48k lurralde-batasunaren aldetik eta auzoetan hirigintzaren gaur egungo kalitate-estandarretara egokitzen izandako lorpenak aipatu ditu. Hiriguneetako sarbideen arazo nagusiak konpondu dituzte, baita hiriguneen hondamen-egoera ere. Ezaugarri nagusia zen hirigune kaotiko, hondatu edo/eta bakartuak izatea, baina biztanleen bizi-kalitatea nabarmenki hobetu da eta gizartetik bazter gelditzeko arriskuan daudenak haietan metatzeko prozesurik jazotzea saihestu dute.

Aitzitik, onuradunen %28k uste du programak eta proposatutako konponbideak izan bazirela egokiak, baina hobetu beharreko gauza asko daudela oraindik hiriguneetan. 14 udalerri adierazi dutenez, ezin eztabaidatuzkoa da oso aldaketa esanguratsuak gertatu direla, eta aldaketok hiriguneetako bizi-kalitatea hobetu dutela; halaber, onartutako estrategien arrakasta azpimarratu dute. Alabaina, nabarmendu dute, arazo handiak zeudela-eta, oraindik ez dietela erantzun hainbat beharri eta helbururi. Haien ustez, jazotako aldaketa azken hamarkadetako eraldaketarik handiena izan da, eta horren adierazgarri da programak mugarri izatea, baina sustatutako eremuetan izandako ageriko hobekuntzak adierazten du lanean jarraitu beharra dagoela, eraberritzea guztiz osatzeko.

Programan parte hartu dutenen ikuspuntutik, Izartu programak ekarri du eskakizun-maila handitzea eta bultzatu du orain arte finkatutakoak baino asmo handiagoko helburuak finkatu eta lortzera. Ez ditu konpondu arazo guztiak, baina hirigintza eta ingurumena eraldatzeko eta sozioekonomia garatzeko oinarri edo eragile bilakatu da. **Programa trakzio-elementu izan da andeatutako eremuak berritzeko prozesuan.** Alde guztietatik, programen lorpenak prozesu baten abiapuntu izan dira: eraberritze-prozesuei ekiteko baliabide ekonomiko urriak dituzten udalerrietako sozioekonomia eta hirigintza erroreik eraldatzeko prozesuarena.

Azkenik, Izartu I programaren babespean egindako ekintzen egokitasunaren adierazle, onuradunen beraien iritzia dugu, egokiak eta premiazkoak zirela nabarmendu baitute. Onuradunei ekintzen garrantziari buruz galdetu dieten udalerri guztiek oso iritzi onak bildu dituzte: onuradunen arabera, ekintzen eta tokian tokiko premien arteko egokitasuna %100ekoa izan da ia eta, gainera, oso pozik omen daude lortutako emaitzekin; atal honetan arituko gara horretaz, aurrerago.

4.1.2. PROGRAMAREN KOHERENTZIA ETA KOHESIO-FAKTORE BERRIAK

Gaur egun ere, lehen bezala, onuradun udalerri guztiek diote esku hartzea baliagarria izan dela, eta nabarmendu dute duela zazpi urte proposatu zituzten neurriak beraiek gomendatzen eta antolatzen dituztela Erkidegoko, Espainiako eta eskualdean eskualdeko programek. Ildo horretan, hauek dira egungo gomendio estrategikoak: batetik, garapen iraunkorra eta ingurumena; eta, bestetik, hiri-herriak erakargarriago bihurtzea, oztopoak kenduz, zerbitzuak kalitatekoak izatea eta behar bezainbat zerbitzu izatea ziurtatuz, eta ingurumen aldetik zuten indarrari eutsiz; baita berdintasuna sustatzea; gizarteratzea; informazio- eta komunikazio-teknologia berriak; enpresa-espirtua; enpresa-ekimen berriak sustatzea...

Izartu programaren helburuen eta tokian tokiko kohesio-lehentasunen arteko koherentzia agerian gelditzen da tokiko ebaluazioek udalerrian udalerriko kohesioa handiagotzeko faktore berriei buruz dakartzaten erantzunak analizatzen ditugunean ere.

1) Onuradunen %75 inguruk proiektu berriak proposatu ditu nork bere udalerriaren kohesioa hobetzeko, Izartu 2001-2005 programak diruz lagun zitzakeen ekimenen ildoan:

- *Lurralde-batasunaren arazoak konpontzea;* programen %25ek jotzen du kohesio-erronka nagusietako bat dela.
- *Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak erabiltzen hastea;* programen %5ek aipatzen du epe laburreko erronkatzat.
- *Ingurune andeatuak bere onera ekartzea;* tokiko erakundeek %11k adierazi du ingurunea babesteari buruzko eskakizunak aldatzen ari direla eta gizarteak kontzientzia handiagoa duela.
- *Jardun ekonomikoa bultzatzea, enpresa berriak sustatuz;* onuradunen %20k du ekonomiaren sustapena funtsezkotzat.
- *Enpresaburuak, enpresa txikiak eta ertainak, turismoa eta udal-ondarea sustatzea;* arduradunen %18k nabarmendu du turismoa eta merkataritza dinamizatzeak garrantzi handia izango duela etorkizunean udalerri hauek guztiek bizirik irauteko.

- *Hiriguneko ingurumena hobetzea:* iraunkortasunaren aldeko apustuak indarrean jarraitzen du, eta programen %25ek du oinarritzat.
- *Udalerrriak gizarte-ekipamenduez hornitzea:* programen %15ek adierazten du kohesio-erronka berria izango dela datozen urteotan.
- *Zaharberritze-proiektuen bitartez, hiriaren itxura hobetzea:* onuradunen %40ren ustez da erronka nagusia sustatutako eremuetan eta beste auzo batzuetan zaharberritze-prozesuak aurrera eramatea.

2) Bestalde, Izartu 2001-2005 programak diruz lagun zitzakeen ekintza-motetatik kanpo, programen %25ek kohesio-faktore berriak aipatzen ditu, eta, haien harira, beharrezkoa da babes-ildo berriak sortu edo egungoak zabaldu beharra.

Esate baterako, mugikortasun iraunkorrarekin lotutako udal-ekintzak antolatu beharra (aparkaleku publikoak eraiki eta hiriko garraio-lineak sortu beharra) nabarmentzen dute, eta udalei laguntzak emateko ildoak antolatu beharra, eraikin, lur eta gune estrategikoak (naturalak edo hirikoak) eros ditzaten. Kirol-ekipamenduak eta kirol-zerbitzuak babesteko eta Izartu programaren esparruan egindako ekintzei eusteko ere eskatu dute onuradun hainbat udalerririk (gutxik).

4.1.3. EGOKITASUNARI BURUZKO ONDORIOAK

Amaierako ebaluazioetako informazioaren arabera, Izartu I programak izan dira estrategiarik egokiena lehen deialdian onuradun izan diren udalerrietan kohesio sozioekonomiko eta lurralde-kohesio handiagoa lortzeko.

Programen bidez lortutako emaitzak eta eragina hasiera batean finkatutako helburuekin bat datoz, eta tokiko arduradunek %100eko egokitasuna sumatzen dute tokian tokiko kohesio-lehentasunen aldean, bai ekimenean izen eman zutenean (2001. urtean), bai gaur egun (programak amaitu ostean).

Alde horretatik, onuradunen %72ren ustez, behin betiko emaitzen kariatara, argi dago planteatutako ekintzek hein handi batean lagundu dutela 2001ean arazotzat hartu zituzten egoerak konpontzen: eraberritzeari esker, andeatutako eremuak andeatutzat hartzeko modukoak izateari utzi diotela, lehenera etorri direlako, eta Izartu programaren ondoren andeatutzat hartu ezin diren adierazgarri da hori.

Gainerako %28aren ustez, berriz, Izartu programak ez ditu konpondu arazo guztiak, asko zeudela-eta, baina programa trakzio-elementu izan da andeatutako eremuok berritzeko prozesuan, eta prozesu baten hasieraren oinarri edo eragile izan da: eraberritze-prozesuei ekiteko baliabide ekonomiko urriak dituzten udalerrietako sozioekonomia eta hirigintza eraldatzeko prozesuarena.

Gaur egun, lehen bezala, onuradun guztiek diote esku hartzea baliagarria izan dela eta Eusko Jaurlaritzak Izartu programaren bidez bultzatu duen ekimena koherentea izan dela, eta nabarmendu dute duela zazpi urte proposatu zituzten neurriak beraiek gomendatzen eta antolatzen dituztela Erkidegoko, Espainiako eta eskualdean eskualdeko programek. Ildo horretan, onuradunen %75ek erronka berri jakin batzuk proposatu ditu: Izartu 2001-2005 programak diruz lagun zitzakeen ekimenean eta ekintza-moten helburuekin bat, programak sustatu zituen eremuetan edo beste batzuetan ekintzak egitea, kohesio sozioekonomikoa lortzeko eta hiriguneak egituratzeko.

4.2. EMAITZAK ETA ERAGINA

Atal honen xedea da, Izartu I programen amaierako ebaluazioa egiteko txostenetako informazioa erabiliz, analizatzea zenbateraino lortu ditugun aurrez finkatutako helburuak, zenbateraino eman dituzten emaitzak. Hartara, neurtuko dugu zenbateko gaitasuna duten programa hauek finkatutako helburuak eskura dituzten baliabideak erabiliz denbora jakin batean lortzeko; hots, zenbateko gaitasuna duten aurrez ezarritako xedek (aurrez finkatutako kalitatekoak eta aurrez finkatu bezainbat) aurrez finkatutako lekuan eta epean lortzeko. Horretarako, udal-helburuen lorpenaren analisi kuantitatibo eta kualitatiboa egingo dugu; alegia, aztertuko dugu zenbateraino lortu diren helburuak, aurrez ikusitako finantza-plangintzaren gauzatzearen denborazko analisia eta lorpenei eta emaitzei buruzko adierazleen analisia eginez.

Halaber, Izartu I programen eragina aztertuko dugu ekimenaren helburu orokorren aldean ere, aztertuz eta konparatuz zer ekarpen egin duten tokian tokiko programek eraldatu nahi duten egoera eraldatzeko: lurralde, ekonomia eta gizarte arloan hiriguneen egituraketa eta kohesioa areagotzeko. Programen eragina aztertzeko irizpidea Izartu I programen kohesio-helburu orokorrak izango dira, ondorioz atera ahal izan dezagun egindako ekintzek praktikan egin duten ekarpenari buruz; alegia, ondorioztatu ahal izan dezagun zenbateraino izan diren lagungarri ekintzak lurralde-batasuna lortzeko, informazio- eta komunikazio-teknologia berriak erabiltzen hasteko, ingurune andeatuak bere onera ekartzeko, jardun ekonomikoa sustatzeko, enpresaburuak eta enpresa txikiak eta ertainak eta turismoa eta udal-ondarea sustatzeko, hiriko ingurumena hobetzeko, udalerriak gizarte-ekipamenduez hornitzeko eta onuradun udalerrietako hirigunearen itxura hobetzeko.

4.2.1. FINANTZA-PLANGINTZAREN GAUZATZEA ETA DENBORAZKO PLANGINTZA

Finantza-plangintzaren gauzatzea

Aurreko atalean adierazi dugunez, oro har, onuradun 49 programek aurrez ikusitako inbertsioaren %100 gauzatu da 2007 amaitzerako: egindako gastua 215.228.186 eurokoa izan da, eta aurrez ikusten zuten inbertsioa 215.722.026 eurokoa zen. Egokitasuna bezala,

Izartu I programetarako aurrez ikusitako inbertsioaren gauzatzea ere oso handia izan da finantza arloan.

5. taula: Izartu I programetarako aurrez ikusitako inbertsioaren gauzatzea, kohesio-helburu orokorren arabera (2001-2007)

HELBURU OROKORRAK ETA EKINTZA-MOTAK	AURREZ IKUSITAKO INBERTSIOA	GAUZATUTAKO INBERTSIOA	%
LURRALDE-BATASUNA	53.461.078	55.217.320	%103
Bide eta sarbide berriak egitea edo zaharrak hobetzea	47.328.364	49.258.954	%104
Bide mekaniko (arrapala, eskailera, igogailu) berriak	3.098.507	3.071.143	%99
Oztopo arkitektonikoak kentzea eta oinezkoentzako eremueta metaketa arintzea	3.034.207	2.887.222	%95
INFORMAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-TEKNOLOGIA BERRIAK ERABILTZEN HASTE	932.703	906.286	%97
Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak erabiltzeko gunez eta ekipamenduez hornitzea	96.369	67.024	%70
Informazio-gizartea eta e-administrazioa sustatzea	836.334	839.262	%100
ANDEATUTAKO INGURUNEAK LEHENERA EKARTZEA	23.712.044	26.480.368	%112
Industria-inguruneak lehenera ekartzea	8.078.033	10.880.081	%135
Ingurune eta paisaia naturalak lehenera ekartzea	3.695.410	3.709.871	%100
Hiriguneko eremu andeatuak berrurbanizatzea	11.938.601	11.890.415	%100
JARDUN EKONOMIKOA SUSTATZEA, ENPRESA BERRIAK SUSTATUZ	8.916.987	8.795.988	%99
Enpresa-ekimena eta enpresak sortzea sustatzeko guneak eta zerbitzuak	3.223.372	3.098.750	%96
Industrian, merkataritzan eta hirugarren sektorean aritzeko lekuak egokitzea	5.693.614	5.697.239	%100
ENPRESABURUAK, ENPRESA TXIKIAK ETA ERTAINAK, TURISMOA ETA UDAL-ONDAREA SUSTATZEA	13.773.770	14.041.061	%102
Lanerako prestakuntza eta orientazioa	3.034.446	2.899.480	%96
Merkataritza sustatzea	573.491	561.861	%98
Ondarea eta turismoan interesa pizten duten lekuak eraberritzea	9.469.360	9.883.246	%104
Turismo-sustapena eta ekitaldiak antolatzea	696.473	696.473	%100
HIRIGUNEKO INGURUMENA	31.689.072	31.333.486	%99
Sareak eta azpiegiturak (saneamendukoak, hornikuntzakoak, argiztatzekoak...) hobetzea	12.943.326	12.939.746	%100
Kaleak oinezkoentzako bihurtzea	5.187.541	4.793.640	%92
Plazak urbanizatzea	5.865.092	5.727.010	%98
Parkeak eta aisia emateko lekuak egitea	7.693.113	7.873.090	%102
UDALERRIAK GIZARTE-EKIPAMENDUEZ HORNITZEA	35.067.266	34.296.289	%98
Gizarte- eta kultura-ekipamenduak	30.100.848	29.477.501	%98
Udal-zerbitzuak eta udal-programak	4.966.418	4.818.788	%97
HIRIGUNEAREN ITXURA HOBETZEA, ERABERRITZE-PROIEKTUEN BITARTEZ	46.459.013	42.506.777,65	%91
Eraikinak eta eraikinen aurrealdeak eraberritzea	5.749.743	5.745.764	%100
Alde zaharren itxura hobetzea	10.991.991	10.739.406	%98
Auzoetako kaleetako egoera hobetzea	29.717.278	26.021.608	%88
GUZTIRA (*)	214.011.933	213.577.578	%99,8

(*) Izartu I programetarako laguntza teknikoari dagozkionak alde batera utzita.

Finantza-plangintzaren eta denborazkoaren desbideratzeak

Finantza-plangintzak zioena baino gehiago gastatzeko arrazoia izan da zenbait ekintza gero eta garrantzi eta munta handiagokoak bilakatu izana denbora igaro ahala; halako desbideratze batzuk Izartu I programen hasieratik iragarri zituzten tokiko arduradunek, eta beste batzuk izan dira hasierako plangintza egiazko lanetara egokitzearen ondorio. Alde horretatik, amaierako ebaluazioek diotenez eta urteroko jarraipen-txostenen bidez adierazi izan dugunez, **udalek diruz lagundutako inbertsioaren bidez egin zitzaizketenak baino inbertsio handiagoko ekintzak egin ahal izan dituzte Izartu programari esker.**

Finantza-plangintzak zioena baino gutxiago gastatzeko arrazoiak, berriz, izan daitezke lanen kostua hasieran aurrez ikusitakoa baino txikiagoa izatea, sinergiak eta baliabide ekonomikoak eraginkortasunez erabiltzeko beste bide batzuk baliatzeagatik, edo, hainbat arrazoi direla medio (arazo teknikoak, bateraezintasuna, ekintzen arteko mendekotasuna, beste administrazioen batek baimenik ez ematea, lurren jabeekin adostasuna lortzea... direla medio), ekintza edo lan jakin batzuk egiteari uko egitea; aurreko taulan ikusten denez, halako desbideratzeak oso txikiak izan dira.

Bestalde, oro har, oso neurri handian (ia %100) egokitu gara azkenean Izartu I programak irauten zuen aldi osorako aurrez ikusitako inbertsiora baina, **pentsatzekoa denez, desbideratzea izan da programa bakoitzaren harira egindako gastuaren eta urte bakoitzerako aurrez ikusitako programazioaren artean Izartu I programen %95en esparruan.** Aurreikuspenen denborazko desbideratzeak lehen urteetan gertatu dira batik bat, Izartu I programak abian jarri zirenean; prestatu, plangintza egin eta gauzak berriz pentsatzeko eta, hartara, helburu errealistagoak finkatzeko urteak izan ziren haiek, zaila baitzen ekintza guztien trazabilitatea hain goiz aurrez ikustea, gertatuko zenarekin bat.

- ❖ 2001. eta 2002. urteetako aurrerapenari buruzko zifrek adierazten dute zenbat denbora behar den ekipamendu urriak eta gune txikiak dituzten erakundeetan hain proiektu garrantzitsuak martxan jartzeko. Araudiaren zati batzuen aldaketak, eskaintza publikoak, azterlan teknikoak, langileen kontratuak... egin behar izan dira ezarritako programak gauzatzeko, eta zaila zen halakorik zehaztea programak diseinatu zituztenean; hau da, ezberdintasun handiak daude hasierako aurreproiektuen eta aurreikuspenen aldean, inbertsioak eta epeak errealitatera egokitu behar izan baitira.

- ❖ Tarteko urteetan (2003an eta 2004an), Izartu I programen %80 inguru oso gauzatze-erritmo onari jarraiki zitzaion, baina tokian tokiko arduradunek aldaketa txikiak egin zituzten eta programaziotik desbideratu ziren. Horren ondorioz, hainbat gorabehera izan ziren: atzerapen txikiak ekintza jakin batzuk egiten, beste lanen bat egin behar zelako; atzerapenak proiektuak onartzen, beste administrazio batzuekin eta onuradunekin beraiekin adostu behar zirelako; baimenen falta; hitzarmenak; elkarren mendeko ekintzak; hainbat administrazioen eskumeneko lanak koordinatu beharra, leku berean egiten ari zirelako; zuzemenak eta udalek abian jarritako prozedurak luzatzea; plangintza aldatzeko eta ondasunak desjabetzeko prozesuak gauzatzeko zailtasunak...
- ❖ Azken urteetan, aipatutako oztopoetan gehienak gainditzeko asmatu zuten eta, azkenean, ez zuten izan eraginik Izartu I programen bilakaeran. Gauzatze-erritmoa biziagotu egin zen programek aurrera egin ahala, emaitzek bultzatuta, eta, proiektuak eta haien trazabilitatea zehazteari eta ekintzak gertutik jarraitu eta kontrolatzeari esker, ekintza guztiak Izartu programa osoa gauzatzeko aurrez ikusitako epean amaitu dira.

4.2.2. EMAITZAK ETA ERAGINA

Horren guztiaren ildoa, **hasiera batean Izartu I programen esparruan finkatutako helburuak ere oso neurri handian gauzatu dira, Izartu I programa oso eraginkorra izan da finkatutako helburuak lortzeko: oro har, programatutako lorpenen eta emaitzen %100 baino gehiago erdietsi dute, ondoko taula ikusten denez.**

Jarraian, Izartu I programak osatu zituzten **299 ekintzen bitartez lortutako emaitza nagusiak ageri dira**. Kohesio-helburu orokorren arabera sailkapena interpretatzeko, kontuan izan beharra dago Izartu programaren orokortasuna diruz laguntzen dituen ekintzetan ere islatzen dela eta, hortaz, litekeena dela ekintza bakarrak kohesio-helburu bat baino gehiago lortzeko balio izatea. Ildo horretan, gogoan izan behar dugu betiere bai Izartu programa, bai haren esparruan abiarazten diren ekintzak orokorrak direla, hobeto analizatzeko eta azaltzeko sailkatuta ere.

6. taula: Izartu I programen esparruan egindako ekintzak, lorpenei eta emaitzei buruzko adierazleen arabera (2001-2007)


HELBURU OROKORRAK ETA EKINTZA-MOTAK	Kop. (*)	LORPENA	EMAITZA
LURRALDE-BATASUNA	43	%153	%93
Bide eta sarbide berriak egitea edo zaharrak hobetzea	29	%99	%92
Bide mekaniko (arrapala, eskailera, igogailu) berriak	3	%100	%76
Oztopo arkitektonikoak kentzea eta oinezkoentzako eremuetako metaketa arintzea	11	%259	%111
INFORMAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-TEKNOLOGIA BERRIAK ERABILTZEN HASTE	6	%99	%117
Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak erabiltzeko gunez eta ekipamenduez hornitzea	3	%97	%53
Informazio-gizartea eta e-administrazioa sustatzea	3	%100	%181
ANDEATUTAKO INGURUNEAK LEHENERA EKARTZEA	34	%78	%73
Industria-inguruneak lehenera ekartzea	14	%81	%80
Ingurune eta paisaia naturalak lehenera ekartzea	9	%85	%68
Hiriguneko eremu andeatuak berrurbanizatzea	11	%68	%71
JARDUN EKONOMIKOA SUSTATZEA, ENPRESA BERRIAK SUSTATUZ	15	%105	%103
Enpresa-ekimena eta enpresak sortzea sustatzeko guneak eta zerbitzuak	7	%105	%126
Industrian, merkataritzan eta hirugarren sektorean aritzeko lekuak egokitzea	8	%104	%80
ENPRESABURUAK, ENPRESA TXIKIAK ETA ERTAINAK, TURISMOA ETA UDAL-ONDAREA SUSTATZEA	28	%116	%118
Lanerako prestakuntza eta orientazioa	12	%130	%114
Merkataritza sustatzea	4	%109	%123
Ondarea eta turismoan interesa pizten duten lekuak eraberritzea	9	%100	%112
Turismo-sustapena eta ekitaldiak antolatzea	3	%123	%123
HIRIGUNEKO INGURUMENA	45	%88	%102
Sareak eta azpiegiturak (saneamendukoak, hornikuntzakoak, argiztatzekoak...) hobetzea	16	%102	%117
Kaleak oinezkoentzako bihurtzea	5	%65	%91
Plazak urbanizatzea	9	%94	%92
Parkeak eta aisia emateko lekuak egitea	15	%92	%109
UDALERRIAK GIZARTE-EKIPAMENDUEZ HORNITZEA	58	%130	%213
Gizarte- eta kultura-ekipamenduak	37	%149	%184
Udal-zerbitzuak eta udal-programak	21	%111	%241
HIRIGUNEAREN ITXURA HOBETZEA, ERABERRITZE-PROIEKTUEN BITARTEZ	70	%99	%112
Eraikinak eta eraikinen aurrealdeak eraberritzea	14	%104	%150
Alde zaharren itxura hobetzea	25	%97	%96
Auzoetako kaleetako egoera hobetzea	31	%95	%91

(*) Helburu bakoitzaren eta ekintza-mota bakoitzaren esparruko ekintzen kopurua..

Lurralde-batasuna

Emaitzak: 43 ekintza egin dituzte guztira lehenengo helburuaren esparruan, eta eraginkortasuna oso handia izan da, aurreikuspenen %93koa. Nabarmentzekoa da, batasun-irizpideei eta oztoporik ez izateko irizpideei jarraiki, espazio publikoko 200.000 m² baino gehiago berritu izana, eta 60.000 m bide baino gehiago sortu edo/eta berritu izana; sortu edo/eta berritutako bideen erdia baino gehiago oinezkoentzako bideak izan dira.

11. grafikoa: Izartu I programen ekarpena lurralde-batasuna lortzeko



- **Balmasedan**, *Martin Mendia* eta *Pío Bermejillo* kaleak zolatu dituzte; 850 m kale oinezkoentzako bihurtu dituzte.
- **Elgoibarren**, eskailera mekanikoak (126 m) instalatu dituzte *Urasandi* auzoan.
- **Etxebarrin**, *San Antonio* auzoa urbanizatu dute; 43.469 m²-ko errepide-sare berria egin dute.
- **Ondarroan**, *Kamiñalde* eta *Iturribarria* artean, 238 m-ko errepide berria eta 252 m-ko oinezkoentzako bidea egin dituzte.
- **Pasaian**, ibilgailuentzako eta oinezkoentzako bidea egin dute *alde zaharrean*; oinezkoek dute lehentasuna. Gainera, espaloiak eta bidegorria eraiki dituzte.
- **Portugaleten (Azetan)**, *Sotera de la Mierren*, oinezkoentzako 760 m-ko pasealekua egin dute.
- **Sestaon**, *Kale Nagusiko* loturaren lehen fasea gauzatu dute.
- **Zaldibarko** sarreran, *CN-634* errepidearekiko *elkargune* berria egin dute.

Ondorio nagusiak, tokiko arduradunen ikuspegitik

Hainbat ekintzaren bidez (hala nola, bideak eginez eta hobetuz, sarbide berriak eginez eta oztopo arkitektonikoak kenduz), Izartu I programek hobekuntza nabarmena ekarri dute onuradun udalerrietara lurralde-batasunaren aldetik eta, hartara, ekarpen handia egin dute biztanle guztien ikuspegitik egituratuago eta ibilerrazagoa den hirigunea eraikitze beharrari erantzuteko. Helburu honen esparruko ekintzak egin dituzten Izartu I programen arduradun guztiek berretsi dute hori: bat datoz ekintzen eragina funtsezkoa eta oso ona izan dela.

Ildo horretan, arduradunen %100ek nabarmendu duenez, Izartu I programek ekarpen handia egin dute onuradun udalerrietako komunikazio-arazoak, oztopoek eragiten dituzten arazoak, etab. konpontzeko. Hona, tokian tokiko programen amaierako ebaluazioa egiteko txostenen bitartez, arduradunek azpimarratu dituzten ondorioetan zenbait: aldirietako auzoak eta iristen zailak direnak erdigunera hurbiltzea, oinezkoen zirkulazioa ugaritzea eta ibilgailu astunak diskriminatzea, mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea eta gizarte eta merkataritza arloko jarduna areagotzea.

- **Barakaldon**, N-634 errepidea estaliz, Gurutzeta eta Llano auzoak fisikoki lotu dituzte eta, hartara, hiriko oztopo fisikoak kentzen lagundu dute.
- **Bilbo Zaharrean**, *Cantalojas zubia* zabaltzeari esker, auzoa hirira hurbildu dute eta bai ibilgailuak, bai oinezkoak ibiltzeko bide eman dute.
- **Donostian (Altzan)**, auzo barneko bidearen bidez, auzoaren iparraldea eta hegoaldea lotu dituzte, zentraltasun-elementuak sortu dituzte auzoan eta 8.000 auzotarri egin diete mesede.
- **Etxebarrin**, *San Antonio auzoa* zeharo urbanizatuz (azpiegitura eta ekipamendu berrien bidez), Izartu I programa oso lagungarria izan da auzoa ingurunean barneratzeko.
- **Ondarroan**, Izartu I programari esker, *Kamiñalde* auzoa udalerriko erdigunera hurbildu dute, eta hara heltzea galarazten zuten oztopo orografikoak gainditu dituzte.
- **Portugaleten (Azetan)**, *Sotera de la Mier* kaleko oinezkoentzako pasealekuak komunikazio hobea ekarri die 4.300 auzotarri eta inguruko merkataritzaren irudia hobetu du.
- **Portugaleten (San Roken)**, bide berriak egiteari esker, hirian ezbehar bat izateko arriskua %20 txikiagoa da eta, eraginaren aldetik, hasieran finkatutako helburuak lortu dituzte.
- **Zaldibarren**, ibilgailu astunak industrialdera sartzeko bide bat eraikitzeak ekarri du industrialdeko enpresen kopurua handitzea; guztira, 22 enpresa gehiago daude egun.

Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak erabiltzen hastea

Emaitzak: emaitzen arabera, teknologia berriak erabiltzen hasteko eta teknologia berriak hedatzeko ekintzak oso eraginkorrak izan dira. 30 ekipamendu informatiko berri baino gehiago instalatu dituzte, erabiltzaileen kopurua %100 handiagotu da eta udal-zerbitzuetako barne-komunikaziorako sarea %113 berritu da.

12. grafikoa: Izartu I programen ekarpena informazio- eta komunikazio-teknologia berriak erabiltzen hasteko



- **Barakaldon (Gurutzetan)**, 14 KulturNet zentro instalatu dituzte, udalaren kultura-geletan eta liburutegietan.
- **Basaurin ere**, udal-zentro publikoak elementu eta ekipamendu informatikoez hornitu dituzte: 33 ordenagailu eta inprimagailu erosi dituzte, enplegu-zentro bat hornitzeko.
- **Loiun**, gizarte-etxea elementu informatiko eta zerbitzu telematiko berriez hornitu dute, eta aurreikuspenen %100 gauzatu dute erabiltzaileen eta bisitarien aldetik.



Informazio eta e-Audiri zerbitzuak elkarrekin
sustapena

IKTB zentro eta ekipamenduaren zuzkidura

Ondorio nagusiak, tokiko arduradunen ikuspegitik

Helburu honen esparruan egin dituzte ekintza gutxien baina, egia esan, Izartu I programek haren esparruan izan duten eragina eta ekarpena ez da ekintza horiena bakarrik izan. Aitzitik, helburu honen esparruan zuzenean dauden ekintzez gain, badira beste asko, zeharka, udalerrietan teknologia berriak erabiltzen hasteko lagungarri izan direnak argi eta garbi.


Hain zuzen ere, **Izartu I programen %5en esparruan egin dituzte zuzenean helburu honetan sartzekoak diren ekintzak eta, gainera, programen %38k zera nabarmendu du, ekintzen zeharkako ondorio gisa: informazio-gizartearen aukerak herritarrei (bereziki, baztertuen dauden taldeei) helarazi dizkiela; tokiko administrazioaren antolamendua, barne-funtzionamendua eta arreta hobetu dela; eta, are, enpresen lehiakortasuna handiagotu dela, teknologia berriak eskuratzeari esker.**

- **Loiun**, gizarte-etxea ekipamendu informatikoaz hornitzeari esker, Elotxelerriko auzotarrek teknologia berriak erabiltzeko aukera dute orain.
- **Muskizen**, Gaztegunean eta auditoriumean WIFI estaldura dute, eta eskura dauden ekipamendu informatikoak erabiltzen irakasten dute; WIFI estaldura librea eta doakoa da multzo osoan.
- **Santurtzin**, zaharrentzako eta emakumeentzako prestakuntza-ekintzek ere (tartean, teknologietan alfabetatzeko programek) lagundu dute helburu hau lortzen, zeharka.

Ingurune andeatuak bere onera ekartzea

Emaitzak: 34 ekintza egin dituzte helburu honen esparruan, eta aurrez ikusitako emaitzen %73 lortu dute ingurune andeatuak (bai hirikoak, bai industriakoak, bai naturalak) bere onera ekartzen: **industriako eta hiriko 168.000 m² lur berreskuratu dituzte, enpresak lekualdatuz, industriaren hondarrak garbituz eta pabiloiak eta lokalak zaharberrituz, eta ingurune naturalean esku hartu dute; ingurune naturalean, zehatz-mehatz, espazio publikoko 650.000 m² baino gehiago eraberritu dituzte, bideratze-lanak eginez, ibaiertzak bere onera ekarriz eta berdeguneak, parkeak eta pasealekuak eginez.**

13. grafikoa: Izartu I programen ekarpena ingurune andeatuak bere onera ekartzeko



Ondorio nagusiak, tokiko arduradunen ikuspegitik

Izartu I programei esker, onuradun udalerriek nork bere barrutiko ingurune andeatuetan esku hartu ahal izan dute: industrialdean edo hirian zein bereziki hondatutako ingurune naturaletan esku hartu dute. Ekintza horiek guztiak erabakigarriak izan dira eremuok berritzeko, beste helburu batzuetarako (bizitegitarako, industriarako, aisia emateko...) berreskuratu baitituzte, biztanle guztien onerako.

Ebaluazio-txostenen bitartez, **ingurune andeatuak bere onera ekartzeko ekintzak ezarri zituzten Izartu I programen arduradun guztiek adierazi dute ekintzok oso onak izan direla oso hondatuta zeuden lekuak lehenera ekartzeko, eta hobekuntza nabarmena sumatzen dela alde horretatik. %50ek baino gehiagok bereziki nabarmendu du halako ekintzen garrantzia, eta uste du ekintzon ekarpena garbi eta agerikoenetakoa dela eta, hortaz, onenetakotzat hartu beharrekoa.**

- **Deban**, *Agirretxe* industrialdearen barneko aldea erreformatzeko plan bereziaren esparruan, industriarako eremu andeatu bat bere onera ekarri dute eta paisaia zuen eraginaren %80 ezabatu dute.
- **Eibarren**, *Matsaria* urbanizatzeko ekarpen handia egin du hirigunea berritzeko eta enpresak lekualdatzeko, eta bizitegitarako eta industriarako eremuak berrantolatzea ekarri du.
- **Elgoibarren**, ibaiertzean *Arrantzaleen pasealekua* urbanizatuz, andeatutako espazio publiko bat eraberritu dute, eta 10.500 herritarrek erabil dezakete orain.
- **Ermuan**, enpresak lekualdatzeko esker, lan-eskaintza %10 handitu da, eta lekualdatutako enpresen lehiakortasuna %30 hazi da.
- **Irunen**, ibaiertza drainatzearen ondorioz, *Behobia* izeneko auzoa ibairantz eta oinezkoentzako bidexka baterantz begira jarri dute; litekeena da bidexkak *Artiaraino eta Osinbiribilaino* jarraitzea eta, hartara, auzoko ingurumena eta hornidura hobetuko lirateke.
- **Oiartzunen**, *Arditurri-Otsamantegi* meategiek osatzen duten gunea berrituz, ibaiaren metalengatiko kutsadura txikiagotu dute, eta arrain-espezieak aurkitu dituzte.
- **Mutrikun**, arduradunek nabarmendu dute programak ekarpen esanguratsua egin duela *Mijoa ibaira eta Saturraran* hondartzara industriako isuriak botatzeagatiko kalteak hain larriak ez izateko.
- **Ortuellan**, trenbideko lubakia estaliz, *Ralera eta Golifar* auzoak erdigunera hurbiltzea lortu dute, eta auzook hain bazter egoteari utz diezaioten lagundu dute.

Jardun ekonomikoa sustatzea, enpresa berriak sustatuz

Emaitzak: 15 ekintza egin dituzte helburu honen esparruan, eta haien eraginkortasuna %103koa izan da; emaitzen %103 lortu dute. Hartara, tokiko arduradunek espero zituzten helburuak erdietsi dituzte, alegia, **industriarako, merkataritzarako eta hirugarren sektoretako azpiegiturak egokitzea** -jardun ekonomikorako 75.000 m² egokitu dituzte- eta **enpresak sortzeko prestakuntza**-, **aholkularitza**- eta **laguntza-zerbitzuak ematea** -316 enpresa-ekimen babestu dituzte-.

14. grafikoa: Izartu I programen ekarpena, enpresa berriak sustatuz, jardun ekonomikoa sustatzeko



- **Amurrio**, 50 laguni baino gehiagori enpresak sortzeari buruzko prestakuntza espezializatua eman diete eta 11 enpresa sortu dira.
- **Barakaldo/Lutzanan**, *parkeak eta lorategiak zaintzea* izan da ekintzarik nabarmenetako bat: 35 langaberi egin die mesede eta langabeon %80 lan-merkatuan sartu da berri.
- **Muskizen**, erabilera anitzetarako zentro bat eraiki eta egokitu dute, aisialdirako eta merkataritzarako; 3.571,80 m²-ko azalera eraiki dute.
- **Portugaleten (San Roken)**, 10 saltoki berri sortu dituzte.
- **Zegaman**, pabiloi industrialen bi bloke berri egin eta 120 lanpostu sortu dituzte; 17 enpresarentzako 11.441 m² instalazio sortu dituzte.

Ondorio nagusiak, tokiko arduradunen ikuspegitik

Izartu I programen bidez, bultzada handia eman diote tokian tokiko garapen ekonomikoari. Izan ere, enpresa-ekimena eta enpresen sustapena bultzatzeko ekintzak egin dituzte. Hain zuzen ere, industriadako, merkataritzarako eta hirugarren sektoretako azpiegiturak egokitu dituzte udalerrietan, eta enpresak sortzeko prestakuntza-, aholkularitza- eta laguntza-zerbitzuak antolatu dituzte.


Programen arduradunak bat datoz, eta nabarmendu dute enpresen jardunerako azpiegiturak eta instalazioak hobetzeko ekintzek enpresa-ekimen berriak eta lan egiteko aukera berriak sortzea ekarri dutela udalerrietan; hartara, herritarren itxaropena piztu dute, aukera gehiago baitituzte orain udalerrian bertan lan egiteko, kanpora joan behar izan gabe.

- **Amurrión**, enpresen mintegia oihartzun gehien izan duen proiektuetako bat izan da, aberastasuna eta ongizatea sortzeko faktorea izan baita: mintegiak enpresen jarduna babesten du eta lanpostuak sortzen eta mantentzen laguntzen du.
- **Legazpi**, *Euskal Burdinaren Museoa* jaiotzeak herriko jardun ekonomikoa biziberritu du, beste enpresa batzuk (hala nola, landa-etxea eta aisia emateko beste proiektu batzuk) sortzea bultzatu baitu.
- **Basauri**, enplegu-ekimenen zentroak eta enpresen mintegiak enpresa-espirtua eta udalerrian enpresa berriak sortzea bultzatu dute, eta enplegu arloko aurreikuspenak ere hobetu dituzte.
- **Zegama**, *industrialde* berriak lanpostu berriak sortzea ekarri du, eta gazteek bertan lan egiteko aukera gehiago dituzte orain.

Enpresaburuak, enpresa txikiak eta ertainak, turismoa eta udal-ondarea sustatzea

Emaitzak: 28 ekintza egin dituzte helburu honen esparruan, eta haien eraginkortasuna oso nabaria izan da, aurreikuspenen %118 gauzatu baitute. Haien adierazgarri da prestakuntza arloko 104 modulu, ikastaro eta lantegi antolatu izana; 1.500 lagunek hartu dute parte, eta 299 lanpostu berri sortzea ekarri dute. Beste adierazgarri bat udal-ondareko 25.000 m² eraikuntza baino gehiago zaharberritu eta egokitu izana dugu; turismoa sustatzeko egin dute hori.

15. grafikoa: Izartu I programen ekarpena enpresaburuak, enpresa txikiak eta ertainak, turismoa eta udal-ondarea sustatzeko



- **Irunen**, auditoriumarekin lotura duten langileak prestatu dituzte: ikasle guztiak sartu dira lan-merkatuan eta 28 enpresa berri sortu dira.
- **Karrantzan**, *Pozalagua*, ingurua urbanizatu dute, eta 200.000 bisitari erakarri dituzte.
- **Leioan**, lanerako orientazio-zerbitzua sortu dute *Lamiako auzoan* -250 onuradun izan ditu-, eta 74 pertsona lan-merkatuan sarrarazi dituzte.
- **Ordizian**, 32 azoka antolatu eta 200 azokari baino gehiago erakarri dituzte; horretarako, 11.280 m² erakusketa egokitu dituzte.
- **Orduñan**, *Aduana eraikina* (5.000 m²-koa) bainuetxe bihurtu dute.
- **Santurtzin**, hirigunea biziberritzeko (igeltserotzako eta lorezaintzako) bi lantegi-eskolei esker, 60 lagun lan-merkatuan sartu dira.

Ondorio nagusiak, tokiko arduradunen ikuspegitik

Izartu I programak bai prestakuntza eta lan arloko ekimenen bidez enpresak laguntzeko, bai turismoa eta udal-ondarea berritzeko eta hari balioa emateko hainbat ekintzek ere osatu dituzte. Hartara, programak tokian tokiko enpresa-egitura sendotzen eta dinamizatzen lagundu du, baita onuradun udalerriek turismo eta ondare arloan zituzten aukerak areagotzen ere.


Helburu honen esparruko ekintzak antolatu dituzten Izartu I programen arduradunen %40k nabarmendu du ekintzok oso lagungarriak izan direla merkataritza eta enpresa txikiak babesteko. Babes horren beharra gero eta bistakoagoa da udalerri guztietan, eta zerbitzuak neurrikoak (enpresen eta saltokien behar espezifikoetara egokitutakoak) izatea dakar, eta horiek guztiek balio erantsi handiagoa izatea. Tokian tokiko turismoaren erakargarritasuna eta aukerak sustatzea ere Izartu programaren ekarpen esanguratsua izan da, eta arduradunen %35ek azpimarratu du amaierako ebaluazioa egiteko txostenetan.

- **Karrantzan**, eragina nabarmena izan da: enpresa berriak sortu dira, emakumeen jarduera-tasak gora egin du eta, *Pozalagua haizuloko* azpiegitura berrien eta turismo-bulego berriaren ondorioz, turismoaren hazkundera ere bistakoa izan da.
- **Mungian**, Behargintza sareko lokalak prestatzeak udalerriko lan-merkatua babestea eragin du, eta ekonomia askotariko esparruetara hedatzea, sektore berriak ezarri baitituzte.
- **Ordiziako** azokek, tokiko tradizio bat indartzeaz eta artisau-produktuen fabrikazioa sendotzeaz gain, alde zaharreko merkatuak eta saltokiek bezero eta salmenta gehiago izatea ekarri dute.
- **Orduñan**, *Aduana eraikina* zaharberritzeari eta enpresa-ekimen pribatuak sortzeari esker, turismoa sektore ekonomiko gisa sendotu da eta gorantz egiten ari da.
- **Trapagaranen**, merkataritza eta hirugarren sektorea sustatzeko eta babesteko ekintzek espero zituzten ondorioak izan dituzte onuradun enpresetan.

Hiriguneko ingurumena

Emaitzak: 45 ekintza egin dituzte helburu honen esparruan, eta hasiera bateko aurreikuspenen %102 gauzatu dute. Hain zuzen ere, **hornikuntzarako eta saneamendurako 38.566 m berritu dituzte, espazio publikoko 30.000 m² baino gehiago oinezkoentzako bihurtu dituzte, ia 25.000 m² plaza sortu dituzte eta, guztira, 370.000 m²-ko baino gehiagoko parkeak, berdeguneak eta aisia emateko gunek egokitu dituzte.**

16. grafikoa: Izartu I programen ekarpena hiriguneko ingurumena hobetzeko



- **Alonsotegin**, basabideak mendian ibiltzeko bide bihurtu dituzte, 51.500 m²-koak guztira, eta 1.000 m-ko bidegorri berria egin dute.
- **Donostian (Loiolan)**, 300 m-ko saneamendusare berria eta ekaitzaldietarako 2.000 m³-ko depositu berria egin dituzte.
- **Erandion**, *Obieta, Jado eta Ibarra* kaleak oinezkoentzako bihurtu dituzte; zehazki, 510 m oinezkoentzako bihurtu eta 5.765 m² errepide eta espaloi berrurbanizatu dituzte.
- **Errenterian**, *Arramendi parkea* (190.000 m²) eraberritu eta Naturaren Interpretazio Zentroa sortu dute.
- **Laudion**, *Aldaiquerreka eta Alberto Acero plazak* urbanizatu dituzte; 5.000 m² eta 250 m oinezkoentzat eta 55 saltokirentzat utzi dituzte.
- **Mungian**, erdialdeko hainbat leku oinezkoentzako bihurtu dituzte; 12.800 m² espaloi berrurbanizatu dituzte.
- **Tolosan**, lurpeko 14 edukiontzi instalatu dituzte, 332 m³ zabor biltzeko.

Ondorio nagusiak, tokiko arduradunen ikuspegitik

Izartu I progamek ekarpen nabarmena egin dute onuradun udalerrietako ingurumenaren kalitatea hobetzeko, eraginkortasun- eta iraunkortasun-irizpideei eta hiriguneko paisaia hobetzeko irizpideei jarraiki. Hiriguneko ingurumena zaintzea programen %25ean izan da funtsezkoa, eta horrela lortutakoa egoki eta oso ontzat dute programen arduradunek.


Programen arduradunek adierazi dutenez, hauek izan dira nork bere udalerrian sumatu dituen ondorio nagusiak: **osasunaren eta bizi-kalitatearen hobekuntza, ibilgailuek zirkulatzeari utzi diotelako edo/eta gutxiago zirkulatzen dutelako leku askotan (eta, hartara, ke, ezbehar, zarata... gutxiago dagoelako); energiaren eta baliabideen eraginkortasun eta aurrezte handiagoa, zerbitzu-sareak eta zerbitzu-azpiegiturak berritzearen ondorioz; udalerriko elementu naturalak bere onera ekartzea; eta berdegune eta landare gehiago izatea.**

- **Barakaldon (Lutxana-Enekurin)**, auzoko azpiegiturak berritu dituzte eta, tartean, hiriko hondakinak pneumatikoki biltzeko sistema moderno bat instalatu dute.
- **Donostian (Loiolan)**, *Atari Ederren* ekaitzaldietarako depositua eraikitzeari esker, hiriguneko ingurumena asko hobetu da eta ingurumenarengatiko arriskuak txikitu dira.
- **Erandion**, *Obieta, Jado eta Ibarra kaleak* oinezkoentzako bihurtzearen ondorioz, biztanle guztiek gehiago erabiltzen dituzte eta, gainera, merkataritzaren irudia hobetu da.
- **Errenterian**, Naturaren Interpretazio Zentroak eta *gotorlekua* eraberritzeak eragin dute *Arramendi parkeko* bisitarien kopurua %80 handitzea.
- **Laudion**, *Larañoko* urbanizazioa erreformatzeari esker, zerbitzu-sareek askoz ur eta energia gutxiago galtzen dute.
- **Mendaron**, *Garagarza* auzoko argiztapena eta hornikuntza-sareak hobetu dituztenetik, auzotarren kopurua %10 hazi da.
- **Tolosan**, zaborra lurpean biltzen hasteak hobekuntza handia ekarri du herritarren ikuspegitik, bai osasungarritasuna hobetu delako, bai hiriguneko paisaia eta irudia hobetu delako.

Udalerrriak gizarte-ekipamenduez hornitzea

Emaitzak: 58 ekintza egin dituzte helburu honen esparruan, eta aurreikuspenen %200 baino gehiago gauzatu dute. Batetik, gizarte eta kultura arloan erabiltzeko 38 ekipamenduk eta azpiegiturak 50.000 erabiltzaile baino gehiago izan dituzte eta 122 lanpostu sorrarazi dituzte eta, bestetik, 20 udal-programa eta udal-zerbitzu sortu dituzte; 16.000 lagunek erabili dituzte programa eta zerbitzu berriak, eta 800 lanpostu sortu dira haiek prestatu eta abian jartzeko.

17. grafikoa: Izartu I programen ekarpena udalerrriak gizarte-ekipamenduez hornitzeko



- **Berrizen**, kultura-etxea (1.017 m²) egokitu dute.
- **Bermeon**, *Josefinak* eraikina gizarte- eta kultura-etxe bihurtu dute.
- **Gordexolan**, *Santa Isabel komentua* erabilera anitzetarako zentro bihurtzeko lehen fasea gauzatu dute.
- **Legazpin**, *Doinu Eder* eraikina gizarte-eta kultura-erabileretarako egokitu eta gazte-txokoa sortu dute.
- **Mendaron**, etxez etxeko laguntza-zerbitzu berria sortu dute; 33 erabiltzaile ditu eta sei lanpostu sorrarazi ditu.
- **Mutrikun**, gizarte- eta kultura arloko eta hezkuntza arloko gune berriak sortu dituzte: gazte-lekua, *hiltegi zaharrea*, kultura-etxea, *Zabiel jauregia*, Luardo etxea; eta *Eguneta* musika-eskola.
- **Trapagaranen**, Emakumeen Saila eta Aukera Berdintasunerako Agentzia sortu dituzte, 3.000 erabiltzailearentzat.

Ondorio nagusiak, tokiko arduradunen ikuspegitik

Ekintza asko eta askotarikoak egin dituzte helburu honen esparruan, onuradun udalerriak laguntza, informazio eta kultura arloko ekipamenduez eta zerbitzuez, aisia emateko eta abarrez hornitzeko asmoz. Ekintzon bitartez, Izartu I programak pertsonen eta erkidegoaren garapen-eredu jakin baten alde egin du, aukera-berdintasunean oinarritutako ereduaren alde: aukera gehiago eman dizkie herritar guztiei (bereziki, talderik baztertuenei) eta, aldi berean, hirugarren sektoreko jarduna sustatu du.


Helburu honen esparruko ekintzak egin dituzten Izartu I programen arduradunak bat datoz ekintzok udalerrietan izan dituzten ondorioetan. Haiei **esker**, kultura-zerbitzuen eskaintza osatu eta, oro har, herritar guztiei helarazi diete; udalerriko jardun soziokulturala handitu dute, eta biltoki eta erreferente berriak sortu dituzte elkarteentzat eta taldeentzat; behar espezifikoak (gizarte edo prestakuntza arlokoak, aisialdikoak, etab.) dituzten taldeen (hala nola, zaharren, emakumeen eta langabeen) beharrei erantzun diete; eta aisia emateko beste aukera batzuk eman dizkiete haurrei eta gazteei eta, hartara, giro gatazkatsu edo arriskutsuetatik urrundu dituzte.

- **Alonsotegin**, *El Somo auzoko* basozainaren etxe zaharra gazte-aterpea bihurtuz espero zutena lortu dute, eta 500 lagunek erabili dute guztira.
- **Arrigorriagan**, kultura-etxea etxea eraikitzeak oihartzun handia izan du herritarrengan, eta espero zituzten bazkideen kopuruak halako bik (guztira, 1.000k) eman dute izena.
- **Bermeon**, Izartu programak eragin nabarmena izan du: udalerriko eskaintza soziokulturala handitzea ekarri du, erkidegoaren garapena, eta sinergiak eta hirugarren sektoreko jarduerak antolatze guneak sortzea.
- **Berrizen**, kultura-etxea egokitzearen ondorioz, herritar guztientzako (4.259 biztanlerentzako) eskaintza kulturala hobetu da, eta guztiek oso iritzi ona dute hartaz.
- **Gordexolan**, *Santa Isabel komentua* eraberrituz, aukera gehiago izango dituzte hirugarren sektorea eta erkidegoa gizarte, kultura eta turismo arloan garatzeko.
- **Sestaon**, Plan Zuzentzailearen eta erakunde arteko mahaiaren jardunaren bitartez, hirigintza-helburuak gizarte- eta kultura-helburuekin bat egitea lortu dute eta, hartara, Txabarrin bizi direnak gizarteratzeko aukera gehiago sortu dituzte.
- **Soraluzen**, emakumeentzako telelan-zentroari esker, prestakuntza-zerbitzuen eskaintza eta lana bilatzeko aukerak hobeak dira, eta horrek oihartzuna izan du herritarrengan eta erakundeetan.

Eraberritze-proiektuen bidez, hirigunearen itxura hobetzea

Emaitzak: 70 ekintza egin dituzte guztira helburu honen esparruan; hartara, helburu honek bildu ditu ekintza gehien Izartu I programen esparrukoaren artean. Gainera, ekintzak oso eraginkorrak izan dira, aurrez ezarritako emaitzen %112 lortu baitute. Zehatz-mehatz, **etxebizitzak eta eraikinak** eraberritzeko 400 lan baino gehiago egin dituzte, alde zaharretako 35.000 m² baino gehiago berrurbanizatu, 10.000 m zerbitzu-sare berri, eta 16.000 m² bide oinezkoentzako bihurtu.

18. grafikoa: Izartu I programen ekarpena, eraberritze-proiektuen bidez, hirigunearen itxura hobetzeko



- **Arrigorriagan**, *Ollargan auzo zaharra* eraberritu dute: 2.220 m² eraikin eraitsi eta 108 eraikin berri egin dituzte eta 250 m oinezkoentzako bihurtu dituzte.
- **Bilbon (Bilbo Zaharrean)**, auzoa eraberritzeko programa gauzatu dute, eta ia 100 eraikinetan esku hartu dute.
- **Bilbon (Otxarkoagan)**, urbanizazio-lanak egin dituzte: 15.100 m² espaloi egin dituzte, 160 argi eta 6.441 m argi instalatu, hornikuntza-sareko 6.134 m eraiki eta 1.254 m² lorategi sortu dituzte.
- **Donostian (Altzan)**, 39 etxebizitza, 11 estalki, 22 aurrealde eta eraikuntzetako beste hainbat elementu zaharberritu dituzte.
- **Galdakaon**, *Usansoloko hirigunea* eraberritu dute: 11.160 m² espaloi egin dituzte, 996 m oinezkoentzako bihurtu eta euri-uren sareko 3.600 m berri, eta hornikuntza-sarea 960 m zabaldu dute.
- **Gueñesen**, *Elubarri auzoa* urbanizatu eta eraberritu dute: 3.950 m zerbitzu-sare egin eta 744 m² kale oinezkoentzako bihurtu dituzte.
- **Urretxun**, *alde zaharra* berrurbanizatu dute: bideak egokitu, kaleak oinezkoentzako bihurtu eta hornikuntza elektrikoko sareak berri dituzte.

Ondorio nagusiak, tokiko arduradunen ikuspegitik

Ekintza asko egin dituzte helburu honen esparruan eta, pixkana-pixkana, hiriguneak berpizteko prozesua jazo da onuradun udalerrietako auzo eta kale askotan. Hirigunearen itxura eta egoera hobetzen ez ezik, erakargarritasun sozioekonomikoa eta, azken batean, herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea handitzen ere ari da. Izartu I programen arduradunek beraiek ere aipatu dute ekintzok eraldaketa nabarmena ekarri dutela onuradun udalerrietara; alde horretatik, programen berezitasunen arabera, udalerri batzuek besteek baino gehiago nabaritu dute eragina baina, edonola ere, agerikoa eta garbia izan da guztietan. Bestalde, arduradunek sumatu dute ekintza gehiago egitea piztu eta eragiteko ere balio dutela ekintzek: eraberritzearen aldeko jarrera sustatzen dute herritarren artean eta, hirigunearen itxura hobetzen den neurrian, are gehiago eskatzen dute herritarrek ekintzoi eusteko.

- **Bilbon (Otxarkoagan)**, urbanizazio-lanen eragin nagusia izan da, auzoko bizi-kalitatea hobetzeaz gain, auzotarrei sentiaraztea udalerriko beste auzoetako biztanleen maila berean daudela.
- **Galdakaon**, *Usansoloko* hirigunea bere onera ekartzeak bertakoen eta beste herritarren bizi-kalitatea hobetzea eragin du, azpiegitura berriak eta itxura atseginagoa dituen gunek bat baitute orain.
- **Gueñesen**, *Elubarri auzoa* eraberritzeari esker, onuradun etxebizitzak erabiltzeko modukoak eta segurtasun- eta kalitate-estandarren arabekoak dira orain, eta lehengo kaltetuen bizi-kalitatea hobetu da.
- **Leioan**, *Lamiako auzoan* egindako hobekuntzen ondorioz, bertakoen eta bisitarien bizi-kalitatea argi eta garbi hobetu da, aisia emateko espazio publiko berriak baitituzte orain inguruan.
- **Urretxun**, alde zaharreko kaleak urbanizatzeko eta bere onera ekartzeko lanek ondorio nabarmenak izan dituzte: bisitarien kopurua handitzea, ibilgailuen zirkulazioa txikitzea, paisaiaren gaineko eragina txikitzea eta inguruko merkataritzaren irudia hobetzea.

Izartu I programen beste ondorio batzuk

Udalerri bakoitzak tokian-tokian aurrez ikusi zituen ondorioez gain, Izartu I programen arduradunek beste hainbat ondorio aipatu dituzte; ez ziren ageri hasierako aurreikuspenetan, baina sumatu egin dituzte ekintzak amaitzerako. Izan ere, **Izartu I** programek hainbat ondorio izan dituzte onuradun udalerrietan, aurrez finkatutako ondorioez gaindi.

- ❖ **Izartu I programa trakzio-ekimena izan da.** Udal-jardunari tira egin diote zinez programa hauek, tokian tokiko arduradunen konfiantza eta motibazioa handitzeko baliagarri izan baitira; orain artekoen gisako ekintzen bidez, sinergiak baliatuz, nork bere udalerriaren pizkunde sozioekonomikoaren alde lan egiten jarraitzera bultzatu ditu. Arduradunen beraien esanetan, "Izartu I programa abiapuntua izan da, ekintza berri eta gero eta espezifikagoak antolatze eta, hartara, udalerri bakoitzeko baliabide ekonomikoak eta naturalak, giza baliabideak, etab. sendotzeko. Izartu programaren esparruko ekintza askok balio izan dute epe laburrean martxan jarri ezingo ziratekeen ekintzak abiarazteko eta hobekuntza-dinamikak sortzeko".
- ❖ **Izartu I programaren esparruko ekintzetatik ekintza gehiago ondorioztatu dira.** Aurreko paragrafoan esandakoaren ildoan, tokian tokiko programen arduradunek adierazi dute programek hiriguneetara ekarritako hobekuntzek eragina izan dutela herritarrei kontzientzia harrarazteko eta gero eta gehiago eskatzeko hiriguneak biziberritzeko, beste eremu batzuetan heldu beharreko arazoak eta erronkak antzeman baitituzte. Ebaluazio-txostenek diotenez, "programak gauzatu ondoren, herritarrek beraiek eskatzen dute udalerriko beste eremu batzuetan antzeko ekintzak egiteko, haiek ere biziberritu behar omen baitira".
- ❖ **Nork bere udalerriaren aukeretan duen konfiantza handitu da.** Hirigintzan, ekonomian, horniduran... izandako ondorioez gain, Izartu I programek ondorio psikologiko garrantzitsu bat ere izan dute: herritarrei eta eragile sozioekonomikoei konfiantza handiagoa sentiarazi diete beren udalerrietan hobekuntzak jazo zezakeen aukeretan. "Orain arte "ahaztutzat" hartzen ziren lekuetan izandako aldaketei eta haien eta inguruaren artean batasun eta berdintasun handiagoa dagoela sumatzeari

esker, onuradun udalerrietako herritarrek konfiantza handiagoa dute berriz beren auzoetan eta, halaber, auzook erakargarriagoak dira kanpokoak bertara aldatzeko”.

- ❖ **Ekimen pribatuak tokian tokiko garapenean esku hartzea bultzatu dute.** Nork bere udalerrriaren aukeretan konfiantza handiagoa izatearen ondorioz, onuradunak konpondu beharreko arazoekin bat etorri dira eta gehiago esku hartu dute udalek sustatu dituzten ekintzetan. Esate baterako, prestakuntza-zerbitzuen eskaintza handitzeak eta lanerako orientazio-zerbitzu hobeak emateak eragin dute hartzaileek motibazioa eta jarrera ona izatea enpresak sortzeari ekiteko eta lana bilatzeko; alde zaharretako hirigunearen itxura hobetzeak eta leku andeatuak eraberritzeko ekintzek ere oso ondorio onak izan dituzte, inbertsio pribatua sustatu baitute eta etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzera bultzatu baitute ekimen pribatua.

4.2.3. ONURADUNEN IRITZIA EMAITZEI ETA ERAGINARI BURUZ

Onuradunen iritzia eta irizpenak

Ondo ulertzeko zer ondorio izan dituzten zinez Izartu I programen esparruko ekintzek sustatutako eremuetako herritarren bizi-kalitatean, funtsezkoa da onuradunen iritzia zein den jakitea, haiek baitira ekimenaren hartzaileak azkenean; hain zuzen ere, 326.397 lagun izan dira ekintzon zuzeneko onuradun. Azken batean, kontua da jakitea zenbateraino uste duten herritarrek balio izan dutela programek egoera sozioekonomikoa eta hirigunearen eta ingurumenaren egoera hobetzeko, ekonomia eta lan arloko aukerak handitzeko, udalerrriak ekipamenduz eta zerbitzuz hornitzeko, berdintasuna eta kohesioa lortzeko... nor bizi den tokian.

Alde horretatik, programen amaierako ebaluazioa egiteko inkesten eta elkarrizketen bitartez, onuradunen %82k adierazi du pozik edo oso pozik dagoela Izartu I ekimena nor bere udalerrrian gauzatu den moduarekin.

Izartu I programaren esparruko ekintzei esker, onuradunek ikusi dute nola gauzatzen zituzten hainbat hobekuntza, neurri handi batean, beraiek ere aspaldi eskatzen zituztenak. Haien ustez, Izartu I programak balio izan du arazo handiak zituzten auzo edo/eta herri asko biziberritzeko prozesuak abian jartzeko; zehazki, arazo hauek zituzten: loturak eta

oztopoak, oinarrizko azpiegituren gabezia, hirigintza-ordenarik eza, gutxieneko baldintzak betetzen ez zituzten etxebizitzak, industriako hondakinak, lurzorua ren kutsadura, berdeguneen eskasia, langabezia, gizarte-gatazkak...

Inkesten eta elkarrizketen bidez, azaldu dute, behin tokian tokiko programak amaitu eta gero, berdegune gehiago eta aisia emateko eta paseatzeko gune gehiago daudela nor bere udalerrian; auzoak hobeto komunikatuta daudela eta haurrak eta zaharrak errazago ibil daitezkeela kalean; bertakoek erabat berritutako zerbitzu-sareak dituztela; gizarte-, kultura- eta prestakuntza-zerbitzuen eskaintza gero eta handiagoa dela; lana aurkitzeko zailtasunak zituzten taldeek lan-merkatuan sartzeko aukera gehiago dituztela orain...

Hori dela-eta, ekintzen onuradunek ildo horretan jarraitzera bultzatzen dituzte tokiko kudeatzaileak. Hain zuzen ere, uste dute hau egiten jarraitu behar dutela: enpresa berriak sortzen eta erakartzen; merkataritza sustatzen; lanpostuak sortzen; turismoaren interesa eta indarra aprobetxatzen aberastasuna sortzeko; eta gizarte-zerbitzu eta gizarte-etxe berriak martxan jartzen. Betiere, udalerrri bakoitzaren egoera eta ezaugarriak izan omen behar dituzte kontuan, eta herritarrek eta gainerako eragile sozioekonomikoei iritzia emateko eta parte hartzeko aukera izan behar omen dute; helburua da ekintza berriak diseinatzea, aurrekoen bidez bezala, eraginkortasunez erantzuteko udalerrien eta herritarren benetako beharrei.

Iritzi eta irizpen horiek guztiak 2.000 onuraduni zuzenean egindako inkesten bitartez bildu dituzte. Gainera, programa gehienen amaierako ebaluazioa egiteko, onuradunak ordezkatzan dituzten elkarten ekarpenak ere bildu dituzte, hala nola, auzo-, kultura-, emakume-, erretirodun- eta merkatar- elkarleenak.

Jarraian, onuradunek Izartu I programari buruz nabarmendu dituzten ezaugarri nagusiak azalduko ditugu.

- ❖ **Egoera soziala eta egoera ekonomikoa hobetu da.** Izartu I programen %51ren onuradunek berariaz esan dutenez, programek funtsezko ekarpena egin dute egoera soziala eta egoera ekonomikoa hobetzeko.

Hainbat leku degradatuta zeuden: gutxieneko baldintzak betetzen ez zituzten etxebizitzak zeuden, eta gizarte-gatazkak zituzten. Eremuok bere onera ekarri eta biziberritu dituzte eta, horri esker, bertakoen egoera soziala eta ekonomikoa hobetu da: gaur egun, leku duinagoetan bizi dira, oztopo gutxiago dituzte norik bere hirigunean eta giroa osasungarriagoa da; era berean, jardun ekonomikoa eta aberastasuna sortzea dakar horrek. Gainera, onuradunek diotenez, hobekuntza ez da izan egun leku horietan bizi direnen onerako bakarrik; aitzitik, eremuok erakargarriagoak dira gazteen ikuspegitik, eta zenbait udalerritako egungo joerari (biztanleria zahartzeari eta udalerrriak hutsik geratzeari) aurre egin diezaioke.

- ❖ **Hirigintzaren edo/eta ingurumenaren kalitatea hobetu da.** Izartu I ekimenak ekarpen nabarmena egin du onuradun udalerritako hirigintzaren edo/eta ingurumenaren kalitatea hobetzeko; horixe diote amaierako ebaluazioa egiteko inkestei eta elkarriketei erantzun dietenen %85ek.

Oro har, alor honetako ekintzak dira nabarmenenak, horiexek sumatzen baitituzte herritarrek gehien. Hirigintzari dagokionez, sustatutako hiriguneetako hobekuntza oso ontzat dute, bide eta sarbide berriak egokitu dituztelako bereziki; haiei esker, oinezkoak eta ibilgailuak errazago ibil daitezke, eta auzoak hobeto komunikatuta daude edo oztopo arkitektoniko gutxiago daude. Ingurumena hobetzeko ekarpenari dagokionez, berriz, ekintzarik hobetsienak berdeguneak eta aisia emateko guneak sortzekoak izan dira, besterekin jarduteko eta egoteko bide ematen baitute eta biltoki baitira.

Zerbitzu- eta hornikuntza-sareen berrikuntza ere ontzat jo dute; bizi-kalitatea hobetzearekin lotu ohi dugu hori, baina ez dugu kontuan hartzen ingurumenean ere duela eragina.

- ❖ **Lan egiteko eta jardun ekonomikoan aritzeko aukerak handitu dira.** Izartu I programen onuradunen %46ren iritziz, programek udalerrietako jardun ekonomikoa eta enplegua sustatu dute, zuzenean edo zeharka.

Langabezia, lanaren egonkortasunik eza eta talde jakin batzuek lanpostu bat aurkitzeko zailtasunak izatea kezka-iturri potoloak dira eta, hortaz, onuradunek oso ontzat dute ekoizpena eta merkataritza biziberritzeko eta, hartara, nork bere udalerrian enpresa bat sortzeko eta lan egiteko aukerak hobetzeko edozein ekimen. Esate baterako, nabarmendu dute, programei esker, hartzaileek aukera gehiago dituztela negozio bat sortzeko ideiak gauzatu edo programen esparruan egindako ekintzaren batekin zerikusia duen lanpostu bat aurkitzeko, eta hartzaileek lan egiteko gaitasunak eta trebeziak hobetzeko aukera izan dutela, prestakuntza-ikastaroen bidez.

- ❖ **Ekipamenduak eta zerbitzuak egokitu dituzte.** Izartu I programen amaierako ebaluazioen %61ek adierazten du, onuradunen ustez, aurrerapauso handia eman dutela programen bidez udalerrian udalerriko gizarte- eta kultura-beharrei erantzuteko.

Txostenek nabarmentzen dutenez, alor honetan egindako ekintzek balio izan dute bai gizartearen aspaldiko eskakizunei erantzuteko, bai egungo biztanleriaren behar berrietara egokitzeko. Zehazki, hobekuntza hauek aipatzen dituzte hobetsientzat: zaharrentzako edo/eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako eta haien senideentzako zerbitzuen eskaintza hobetzea, gazte taldeek aisia emateko bide berriak antolatzea, emakumeei eta haurrei laguntzeko programak eta ekipamenduak sortzea eta teknologia berriak herritar guztiei helaraztea.

- ❖ **Berdintasuna, kohesioa, beste.** Izartu I programen %45en arabera, onuradunek sumatu dute jadanik zer-nolako eragina izan duten ekintzek tokian-tokian kohesioa eta gizarte-berdintasuna lortzeko.

Alde horretatik, kontuan hartuz kohesioa dela programen ardatz nagusia, berez, programaren esparruko ekintza guztiek izan dute eraginik horretan, batera edo bestera.

Hona onuradun udalerrietan berdintasuna eta kohesioa lortzeko ekarpenaren adierazgarriak: zailtasun bereziak edo bazter gelditzeko arriskuan dauden taldeentzako ekintzak (prestakuntza, lan-merkatuan sartzeko laguntza) jartzea abian, auzo bereko eta udalerria osatzen duten auzoetako eragileen eta pertsonen (elkarteen, ikastetxe ezberdinetako ikasleen) arteko harremana eta lotura bideratzeko biltokiak sortzea, gizon-emakumeen arteko berdintasuna lortzeko programak antolatzea eta hiriguneko bizi-kalitatearen estandarrak udalerri bereko beste gune batzuetakoekin eta, are, inguruko beste udalerri batzuetakoekin parekatzea.

Ildo berean, onuradunek azpimarratu dute programek funtsezko hobekuntza ekarri dutela nor bere auzoko edo udalerriko gizartearen jardunera eta bizitzara; izan ere, zaharrak eta gazteak kalean gehiago egotea ekarri dute, herritarrek gehiago parte hartzeko aukera, eta auzotarrek kezka handiagoa izatea beren auzoari buruz.

4.2.4. EMAITZEI ETA ERAGINARI BURUZKO ONDORIOAK

Onuradun udalerriek egindako txostenetako eta ebaluazioetako informazioaren analisitik ondorioztatzen denez, **Izartu I programen gauzatzea oso eraginkorra eta egokia izan da, bai aurrez ikusitako inbertsioa gauzatzearen ikuspegitik, bai lortutako emaitzen aldetik.**

Alde horretatik, aztertuta zenbateraino gauzatu diren onuradun programa bakoitzerako aurrez ikusitako inbertsioa eta programa bakoitzaren esparruan finkatutako lorpenak eta emaitzak, ondorioztatzen dugu, oro har, oso neurri egokian gauzatu direla; hori frogatzen dute adierazleak.

Batetik, aurrez ikusitako inbertsioaren gauzatzeari dagokionez, eraginkortasuna oso handia izan da oro har; horren adierazgarri da 49 Izartu I programen esparruan aurrez ikusitako inbertsioaren %100 gauzatu izana. Lehenengo urteetan batez ere, izan da denborazko desbideratzerik aurreikuspenen aldean, prestakuntza-, plangintza- eta hausnarketa-

beharra zela-eta, baina horrek ez du galarazi programak eraginkortasunez gauzatzea eta, azkenean, ekintza guztiak Izartu programarako aurrez ikusitako epean egin dira.

Bestetik, programen esparruan ezarritako lorpenak eta emaitzak neurri handi batean gauzatu dira, eta haiei buruzko adierazleak hasieran kohesio-helburu orokor eta ekintza mota askotan esparruan finkatutakoak baino hobeak ere izan dira. Horixe adierazten dute onuradun udalerriek egindako txostenetako eta amaierako ebaluazioetako datuek, batez beste %116 gauzatu direla baitiote.

Hartara, onuradun udalerri bakoitzak finkatutako helburu espezifikoak neurri handi eta oso egoki batean gauzatu dituzte, eta ekintzek zenbakitan eman daitezkeen ageriko emaitzak eman dituzte; gainera, eraginari buruzko atalean ikusiko dugunez, emaitzek Izartu I programaren helburu orokorretan ere izan dituzte ondorio garbiak udalerrian-udalerrian.

Bestalde, ondorioei dagokienez, Izartu I programak ekarpen argi eta oso esanguratsua egin du egituraketa hobia eta batasun handiagoa lortzeko onuradun udalerrietan, bai lurraldeen artean, bai ekonomia eta gizarte arloan. Tokiko arduradunek eta ekintzen hartzaileek (herritarrek) beraiek uste dute hori, baita programak gauzatzen parte hartu duten beste eragileek ere.

Arduradun guztiak bat datoz, eta nabarmendu dute, programei esker, nor bere udalerriek asko aurreratu dutela lurraldearen batasunaren, andeatutako eremuak bere onera etortzearen, hirigunearen itxura hobetu eta ingurumena zaintzearen, jardun ekonomikoa sustatu eta lanpostuak sortzen laguntzearen, ekipamendu berriak egitearen eta teknologia berriak eskura jarri edo hedatzearen aldetik.

Tokian tokiko arduradunen aburuz, Izartu I programa trakzio-elementu izan da nor bere udalerriko hirigunea berritzeko eta udalerrietako bertako sozioekonomia suspertzeko prozesuan eta, onuradunen bizi-baldintzak eta bizi-kalitatea hobetzeko ez ezik, esparru honetan ekintza gehiago egitea piztu eta eragiteko ere balio izan du, programaren ondoren konfiantza handiagoa izan baitute andeatutako eremuak garatu egingo zirela.

Udalerri bakoitzeko programen emaitza onak onuradun biztanleriak berak ere sumatu ditu eta, inkesten bitartez, adierazi dute nor bere auzoan eta hirigunean egindako hobekuntzek

eragin argia izan dutela eguneroko bizitzan. Nabarmendu dutenez, programen esparruan egindako ekintzak hein handi batean etorri dira bat haien beharrekina eta, eskura zeuden baliabideen kudeaketa egokiari esker, guztiz bat etorri dira espero zutenarekin: udalerriak berri, polit eta zabalagoak dira eta errazago ibil daitezke; erakargarriak dira bai bertakoen, bai kanpokoek ikuspegitik; kalitateko bizilekuak eta zerbitzuak daude... Azken batean, hori guztia lortzea beharrezkoa omen da dendatarako guneak lehenera etortzeko, jardun ekonomikoa biziberritu eta berpizteko eta aberastasuna sortzeko.

Azken batean, programan parte hartu dute eragileen ikuspuntutik, programak hobekuntza nabarmena eragin du onuradun udalerrietako hiriguneen, gizartearen eta ekonomiaren garapenean, eta ondorio esanguratsuak izan ditu hartzaileen bizi-kalitatean. Hau da, oso ekarpen ona egin dio kohesio-helburu orokorrak lortzeari, eta ekarpena aurrerantzean ere nabariko da, tokian-tokian ez ezik, baita eskualdean eta are barruti handiagoan ere.

4.3. BIDERAGARRITASUNA ETA IRAKASPENAK

Azkenik, atal honetan aztertuko dugu zenbateraino iraungo duten denboran Izartu I programaren ondorioz egindako aldaketek, zenbat iraungo duten emaitzek programaren esparruko laguntza amaitu eta gero. Halaber, zehaztuko ditugu hainbat gomendio eta jardunbide egoki, udalen ikuspegitik; Izartu I programaren lehen deialdian parte hartzetik ateratako irakaspenak dira.

4.5.1. BIDERAGARRITASUNA

Bai tokiko arduradunen ikuspegitik, bai onuradunen ikuspegitik, ikusirik Izartu programek eragin nabarmena izan dutela sustatutako udalerrietan eta eremuetan hiriguneen egituraketa hobea eta kohesio sozioekonomiko handiagoa lortzeko, geure buruari galdetu behar diogu emaitza on horiek epe ertainean eta luzean iraungo duten ala laguntzak ematen jarraitzearen mende dauden.

Izartu I programen %80ren arduradunek diotenez, lortutako emaitzek iraun egingo dute, laguntzak eman edo ez eman. Are gehiago, argi eta garbi dago azpiegitura fisikoak egiteko ekintzen emaitzek (Izartu programak diruz lagundutako ekintza gehienek) iraun egingo dutela denboran: sarbideek, ondare zaharberrituak, urbanizazioak, sareek eta hornikuntzak, degradatuta zeuden eta lehenera ekarri dituzten lekuek, jardun ekonomikoan aritzeko eremuek... Horrez gain, Izartu programei esker jaiotako zerbitzu asko (gizarte- eta kultura-hornidura berrietako ekipamendu eta zerbitzu publikoak, etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko laguntzen programa publikoak, etab.) udal-zerbitzuen barnean daude martxan, eta hainbatek ez dute udalarenaz kanpoko laguntzarik; salbuespen bakarra dira prestakuntza-zerbitzuak, jardunean aritzeko diru-laguntzak, etab.

Ildo horretan, onuradunen bi herenek adierazi dute neurriak ezarri dituztela udal-aurrekontuetan programak amaitu ondoren, beharrezko diru-sailak bideratzeko eta, hartara, onuradun udalerrietako azpiegiturretan egindako hobekuntzak eta hiri-ekipamendu eta gizarte- eta kultura-ekipamendu berria mantentzeko. %4k, berriz, uste du udalez gaindikoko laguntzak eman behar direla Izartu programaren esparruan hasitako ekintzei eta haien emaitzei eusteko: sarbide mekanikoei, etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko diru-laguntzei, eta abarri.

Oro har, onuradunen iritzia oso ona da, batez ere, programei esker, beren baliabideen bitartez nekez egin zitzaketan azpiegiturak eta ekintzak egin ahal izan dituztelako kohesio soziala eta ekonomikoa hobetzeko, eta **emaitzek irautea, funtsean, udalek bideratzen dituzten diru-laguntzen eta inbertsioen araberakoa da**. Alabaina, udalerri hauetako guztietako gabezia sozioekonomikoak eta ingurumen eta hirigintza arloko gabezia guztiak gainditzeko, munta handiko lanak egin beharko lirateke, eta udalez gaindiko (batez ere, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru lurralde historikoetako foru-aldundien) laguntzak beharko lirateke berriz ere.

Programen %28k adierazten duenez, sustatutako esparruetan esku hartzen jarraitu beharra dago. Erabilitako estrategien arrakasta eta lortutako emaitzek eta ondorioek denboran iraungo dutela nabarmentzen du, baina baita, onuradun udalerrietan arazo handiak zeudela-eta, oraindik ez dietela erantzun hainbat beharri eta helbururi eta, horregatik, beharrezkoa dela beste erakunde batzuek laguntza ekonomikoa ematea. Hain zuzen, onuradunek nahi dute Eusko Jaurlaritzak aukera ematea sustatutako esparruetan proiektu berriak aurkezteko; helburua da auzo edo udalerri jakin bat guztiz eraberritzea eta, hartara, haren egoera besteenarekin parekatzea, litekeena baita baztertuta egon izana hamarkadetan.

Ildo berean, tokiko zenbait arduradunek nabarmendu dute ez dela nahikoa bost urterako ekintzen programazioa egitea, hainbat udalerri eta lekuk arazo larriak baitituzte. **Izartu I programen onuradunen %55i aitortu diote behar hori, eta Izartu II programaren bigarren deialdiko onuradun izendatu dute**. Zehatz-mehatz, **Izartu I programaren 27 onuradun udalerri eskuratu dituzte zortzi urterako (2001-2008 aldirako) inbertsio-programak**: Arrigorriagak, Balmasedak, Basaurik, Bermeok, Bilbok, Donostiak, Elgoibarrek, Erandiok, Ermuak, Errenteriak, Etxebarriak, Galdakaok, Gueñesek, Irunek, Karrantzak, Legazpik, Leioak, Lezok, Mungiak, Mutrikuk, Oiartzunek, Portugaletak, Sestaok, Soroluzek, Tolosak, Trapagaranak eta Zegamak.

Azken batean, biziberritze-prozesuek udalerri gehienetan jarraitzen dute aurrera, dela Izartu II programan parte hartzen ari direlako udalerriok, dela udaleko beste ekimen batzuetan (plan estrategikoetan, Tokiko Agenda 21 egitasmoan eta abarretan) edo/eta udalez gaindiko beste ekimen batzuetan parte hartzen ari direlako. Izan ere, tokiko arduradunek uste dute kohesio sozioekonomiko handiagoa eta hiriguneen egituraketa hobea lortzea denboran irauten duen prozesua dela.

4.5.2. IRAKASPENAK

Izartu programaren indargune nagusiak

Izartu I programa aitzindaria eta orokorra izan da lurraldean. Lehenengo deialdiak baztertutako eremuak biziberritzen esku hartzeko esparru berri bat ezarri du, tokiko administrazioetan oinarritutakoa azkenean. Era berean, programaren berritasuna ikuspegi orokorra ere izan da. Beste laguntza batzuk ez bezala, ez zuten udalez gaindiko erakundeen eskumeneko sektorean sektoreko ekintzek osatzen; aitzitik, babestu dituen lan-ildoak eta proiektuak tokiko erakundeen eskumenen esparruan egituratutakoak izan dira, eta elkarren osagarriak, eta, hartara, programak oro har heldu die eremuotako arazo espezifiko guztiei. Bestalde, Izartu I programak eragin nabarmena izan du Euskadiko udalen inbertsioetan; izan ere, 216 milioi euroko inbertsioa bideratu dute udalek eta, tartean, 150 milioi euroko diru-laguntzak eman dituzte programak sustatzeko.

Erakunde publikoen arteko lankidetza esparru hori oso ontzat jo dute 49 onuradun programek. Izartu 2001-2005 programaren indarguneak garbi daude, batetik, programaren emaitzak eta eragina ikusirik eta, bestetik, tokiko arduradunek ez ezik, herritarrek ere iritzi ona eman dutela ikusirik; herritarrek, hain zuzen ere, ikusi dute lurraldeko administrazioa osatzen duten erakundeek batera lan egin dutela herritarren eskakizunei eta beharrei erantzuten.

1. Lehenik, laguntzen bidez egindako inbertsio handiari eta emandako babes handiari esker, udalerriek arazo nagusiei aurre egin ahal izan diete; beren baliabideak erabili behar izan balituzte, ezingo zuketen. Oro har, gizarte-taldeen eta, bereziki, udal-arduradunen programari buruzko iritzi orokorra ezin biribilagoa da: "Formula magiko bat bezalakoa izan da: hari esker, kohesio soziala eta ekonomikoa hobetzeko azpiegiturak eta ekintzak egin ditugu; bestela, ezingo genituzkeen egin inoiz". Izartu programa diru-laguntza esanguratsua izan da: pizgarria izan da, edukiaren eta izariaren aldetik, udalerrietan eragin handia izan duten proiektuak proposatzeko eta gauzatzeko, eta gizarteak duela urte askotatik lortu nahi zituen helburuak erdiesten lagundu du.
2. Bigarrenik, Izartu programak aukera eman du lurraldearen garapenean ikuspegi orokorretik lan egiteko, eta, hain zuzen ere, udalerrietan oro har esku hartzearen aldeko ikuskera izan da indargune nagusia. Onuradun askoren ustez, ezinbestekoa

izan da programak bide ematea elkarri lotutako askotariko neurriak eta ekintzak finantzatzeko; hartara, beste sail edo erakunde batzuen laguntza partzialen bidez nekez egin ahal izango zituzketen ekintzak bateratu dituzte. Hain zuzen ere, programari esker, batera edo elkarren osagarri heldu ahal izan diete hainbat beharri eta eskakizuni, eta ekintzen artean koherentzia izatea eta ahalik eta sinergia gehien sortzea lortu dute; ekintzen eragina are handiagoa izan da horren ondorioz.

3. Hirugarrenetik, Izartu programaren ikuskera orokorrak udal bakoitzeko sailen arteko lankidetzari ere bide eman dio eta, hartara, elkarlanean aritu dira proiektua sortu zutenetik (diagnostiko orokorra egin zutenetik) programa kudeatu eta abian jarri arte. Alde horretatik, Izartu programak udaletako sailen, departamentuen eta autonomiadun erakundeen arteko koordinazioa lantzeko aukera eman du, eta antolamendu bati jarraiki, sistematizatuta eta jarraituki funtzionatu duten elkarlanerako guneak sortzea ekarri du. Programari esker, lan egiteko modu berri bat sortu da hainbat udalerritan, proiektuetan esku hartzen duten eragile guztien parte-hartzean oinarritutakoa. Denbora gehiago behar da horretarako, baina hobeto erantzuten zaie alderdi guztien beharrei eta emaitza iraunkorragoak lortzen dira.
4. Laugarrenetik, ebaluazio-taldeek diotenez, neurri handi batean, Izartu I programaren eraginkortasuna orduan eta handiagoa izan da, zenbat eta malguagoa izan eta zenbat eta gehiago egokitu udalerrien beharretara, udalerriei programa ezartzeko autonomia emateak zuzeneko eragina izan baitu espero zituzten emaitzen lorpenean. Horrexegatik, indargunetzat dute programaren malgutasuna. Izan ere, hari esker, ekintzak eta programa gauzatzeari buruzko aurreikuspenak nork bere egoerara eta garapen-beharretara egokitu dituzte udalerriek; horrek ez du esan nahi prozedurak normalizatu eta ikuskatu behar izan ez dituztenik.

5. Bosgarrenik, programaren beste indargune bat izan da beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna, udalek ekintzak finantzatzeko mugak kontuan izanik. Izan ere, beste babes publiko edo/eta pribatu batzuekin bateratu zitezkeen Izartu I programak diruz laguntzen zituen ildo estrategikoak.
6. Azkenik, onuradunek nabarmendu dutenez, Eusko Jaurlaritzaren planteamendu sendo eta osoaren eredu izan da Izartu programa; laguntzak zegokionean ordaintzeak eta kontrol-eta ikuskatze-lanen zorrotasunak haren ikuskera errealista indartu dute, eta konfiantza piztu dute udalerrietan, bultzatu dituzte ekimenak plangintzarekin bat burutzera eta ezarritako helburuak lortzera.

Irakaspenak eta gomendioak

1. Lehenik, Izartu I programen tokiko arduradunek ateratako lehenengo irakaspena, edo programaren antzeko ekimen batean parte hartu nahi duten udalerrientzat eman duten gomendio estrategikoa da ezinbestekoa dela zer arazo konpondu eta zer helburu lortu nahi ditugun zehatz-mehatz finkatzea, eta estrategia ondo aukeratzea. Ezartzen diren neurriek eta ekintzek udalerrian udalerriko desoreka sozioekonomikoaren ondoriozko arazoekin bat etorri behar dute, eta horixe sumatu behar dute onuradunek.

Izartu programaren bidez egiten diren ekintzek esku hartzeko esparruari edo ekintzen emaitzei buruzko hausnarketa estrategiko koherente baten fruitua izan behar dute, behin betiko emaitzak agerikoak izan daitezen herritarren ikuspegitik eta gizarte, hirigintza eta ekonomia arloko egiturazko beharrei erantzun diezaieten. Hori dela-eta, arduradunek nabarmendu dute egokiena dela elkarren artean lotuta dauden ekintzez osatutako plana prestatzea, ziurtatzeko, behin plana burutu eta gero, erro anitz dituen arazo bat konpondu dugula eta eragin orokorra izan dugula sustatutako udalerraren edo eremuaren hobekuntzan.

Seguru asko, tokiko arduradunek muga ekonomiko handiak dituzte horretarako eta, horregatik, komenigarria da baliabide publikoak ahalik eta hobekien erabiltzea; horretarako, programa diseinatzen hasten direnetik, azpiegiturek eta hornidurek helburu askotarako balio izatea izan behar dute kontuan, ekintzen artean sor litezkeen sinergiak ahal bezain ondoen aprobetxatzeko.

2. Bigarrenik, ildo berean, programa zehaztu ondoren, oso garrantzitsua da ekintzen plangintza xehea egitea. Plangintza lehentasunen arabera egin behar da baina, halaber, aintzat hartu behar da ekintzak egiteko ezartzen diren epean gauzatu daitekeen. Alde horretatik, Izartu I programaren onuradun udalerriek aipatu dute argi eta garbi izan behar dela zer-nolako arazoak dituzten halako ekimenetan parte hartzen duten hiriguneek eta zer konplexuak diren egin beharreko ekintza asko. Hain zuzen ere, tokiko arduradunek ohartarazi dute izapide konplexuak egin behar direla askotan proiektuak gauzatu aurretik, eta izapideon eta errealitatearen arabera ezarri behar direla ekintzen epeak. Izan ere, sarritan, litekeena da hirigintza-plangintza aldatu behar izatea ekintzak egiteko edo, ahalik eta adostasun handiena lortzeko kaltetuen artean eta administrazio publikoko beste maila batzuetan, ekintzak epe ertaineko eta epe luzeko prozesuen esparruan sartzea.
3. Hirugarrenik, programa gauzatzeko beharrezko baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak lehen fasean antolatu beharra adierazi dute. Hasiera batetik, programa diseinatzeko, gauzatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko beharrezko udal-zerbitzuak bideratu behar dituzte udalek eta, horregatik, beharrezkoa da udalek hasiera-hasieratik esku hartzea Izartu programa gauzatzen. Alde horretatik, arduradunek funtsezkotzat dute adostasun politikoa, udaleko pertsona eta sail guztiek esku hartzea eta bitartekoak bideratzea programaren esparruko ekintza guztiak eta programan esku hartzen duten erakunde guztiak koordinatzeko eta kudeatzeko.

Halaber, komenigarria da egiten diren ekintzak kaltetu/onuradun guztiekin hitzartzea. Helburua ez da herritarren eskakizunetara eta beharretara gehiago egokitzea soilik, sinergiak aprobetxatzea eta herritarren bizimoduan eta jardun ekonomikoan ahalik eta traba gutxien egitea ere baizik.

Hots, komunikazio-politika egokia aplikatu behar da Izartu programa hasi aurretik, programak irauten duen bitartean eta programa amaitu ondoren, eta informazioa eta jakinarazpenak trukatzeko bideak paratu behar dira proiektuen kudeaketaz eta gauzatzeaz arduratzen diren eragileen eta egiten diren ekintzen onuradun izango diren pertsonen artean.

Baliabide ekonomikoei dagokienez, ekintza bakoitza egiteko baliabideak egokiro bideratzeko eta udal-aurrekontuak ardura- eta gertagarritasun-irizpideei jarraiki osatu eta hasiera batean ezartzen denaren arabera gauzatzeko, udal-teknikariek baliabideen kudeaketan duten esperientzia aprobetxatzea komeni da; izan ere, baliabide urriak kudeatzen ohituta daude. Alde horretatik, jardunbiderik egokiena da, gastua osatzeko, udalez gaindiko baliabideak bilatu dituzten udalerriena eta aurrekontuan edozein gertakizuni erantzuteko sailak ezarri dituztenena.

4. Laugarrenik, programa gauzatu bitartean, komeni da atzeratu egiten diren ekintzen epeak zorrozkia kontrolatzea. Izan ere, programaren gauzatzea denboran atzeratzen bada, arriskua dago bai arduradunen, bai onuradunen itxaropena eta ilusioa neurri handi batean zapuztu eta frustrazio bihurtzeko; arriskua dago herritarrek axolagabekeria eta desilusioa sentitzeko. Alde horretatik, oso zaila da zuzen eta huts egin gabe zehaztea aurrekontua, askotariko ekintzak izan behar baitira kontuan, denboran sakabanatutakoak; seguru asko, hasieran finkatutako programazioa aldatu behar da. Halakoetan, aztertu behar da proposatzen diren aldaketa ekonomikoak egokiak diren, eta kontu izan behar da proiektuak eta irtenbide teknikoak zehazten, baliabideak ahalik eta eraginkorrenak izateko helburuak lortzen. Azken batean, sinergiak aprobetxatu behar dira eta eskalako ekonomiak erabili behar dira lanak azpikontratatzeko eta egiteko; konponbide merkeagoak bilatu behar dira.

Azkenik, ildo horretan, ekintzak eta lanak gertutik kontrolatzea komeni da, azkar erantzun ahal izateko ekintzak egiten sortzen diren arazoei. Izan ere, lanak ondo kudeatu eta esleipendun enpresekin koordinatuz gero, askoz ere errazagoa da diseinatzen diren ekintzen bilakaera behar bezalakoa izatea.

5. IZARTU II PROGRAMAREN AURRERAPENARI BURUZKO OROITIDAZKIA

Azken atalean aztertuko dugu, abian jarri zituztenetik orain arte (2004 eta 2007 artean), zenbat aurreratatu duten Izartu II programek ezarritako helburuak lortzen esku hartzeko esparru bakoitzean eta programaren onuradun lurralde bakoitzean.

5.1. PROGRAMAREN AURRERAPENARI BURUZKO EBALUAZIOA IKUSPEGI FUNTZIONALETIK ETA LURRALDE-IKUSPEGITIK

5.1.1. PROGRAMAREN AURRERAPENA, INBERTSIOAREN IKUSPEGITIK

Izartu 2004-2008 programak amaitzen ari diren honetan, oro har, programaren aurrerapenari buruzko onuradun udalerrien iritzia oso ona da.

Izartu II programek 2004 eta 2007 artean egindako gastuak (116.568.971 eurokoak) programak irauten duen aldi osorako aurrez ikusitako inbertsioaren bi heren baino gehixeago (%67) osatzen du.

Bestalde, bederatzi Izartu 2004-2008 programa (onuradunen %13) amaitu dira jadanik. Hain zuzen ere, 2006an, Hondarribiko Izartu 2004-2008 programa amaitu zen eta, 2007an, Abantoko, Andoaingo, Otxandioko eta Zegamako programak amaitu dira. Arrigorriagako, Lekeitioko, Gasteizko eta Zierbenako programak amaituta daude ia, eta programa osorako bideratutako inbertsio guztiaren ehuneko handi bat erabili dute.


Azkenik, Izartu II programak diruz lagundutako ekintzen %50 inguru amaitu da; programen %74ren esparruan sartzen ziren ekintzok. Hartara, Izartu 2004-2008 programen (68 programen) onuradunetan 50ek nork bere programaren esparruko ekintza bat edo gehiago amaitu izanari buruzko datuak eman dituzte 2007ko ekitaldian.

Programaren aurrerapena, esku hartzeko esparruen arabera

2004-2007 aldian egindako ekintzei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu esku hartzeko esparruak antzera aurreratzen ari direla, baina neurriak, ez. Aurrez ikusitako inbertsioaren zer ehuneko gauzatu duten, 3.6. Gizarte- eta kultura-zerbitzuak, 3.1.

Gizarteratzea, 2.1. Garraio-azpiegiturak, 2.3. Energia-azpiegiturak eta 1.4. Tokiko sustapena, turismoa eta ondarea neurriek egin dute aurrera gehien. Aitzitik, 1.2. Ekoizpen-azpiegitura sortzea eta garatzea, 3.2. Aukera-berdintasuna, 2.8. Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegitura, 2.4. Ingurumen-azpiegitura eta 2.2. Telekomunikazio-azpiegitura eta informazio-gizartea neurriak aurreratu dira gutxien.

19. grafikoa: Esku hartzeko esparruak. Izartu II programen esparruan orain arte metatutako gastua, inbertsioa osoaren aldean




Programaren aurrerapena, lurralde-ikuspegitik

Lurralde-ikuspegitik, lurralde bakoitzerako aurrez ikusitako inbertsioa zenbat gauzatu den konparatzen badugu, ikusiko dugu **Arabak egin duela aurrera gehien**, inbertsioaren %73 gauzatu baitu; **Bizkaian**, berriz, **inbertsioaren %69 erabili dute**, eta 60.466.717 euro gastatu dituzte; **eta**, azkenik, **Gipuzkoan**, 52.144.532 euro gastatu dituzte **eta %66 erabili dute**.

Eskualdeei dagokienez, Enkarterrik, Bidasoa Behereak, Plentzia-Munziak, Bilbok, Tolosak, Arratia-Nerbioik, Markina-Ondarroak eta Goierrik aurrez ikusitako inbertsioaren %80 baino gehiago erabili dute, eta lehenengo hirurek, baita %90 baino gehiago ere. Aitzitik, gutxien erabili dute Eskuinaldeak, Gernika-Bermeok, Donostialdeko ekialdeko ingurabideak, Debabarrenak, Txoriherri eta Nerbioi Garaiak.

20. grafikoa: Eskualdeak. Izartu II programen esparruan orain arte metatutako gastua, inbertsioa osoaren aldean



Tokian tokikoen inbertsioa eta hartutako diru-laguntzak

2004-2008 deialdiko Izartu programaren onuradun udalerriek haren zati bat finantzatu behar izan dute: **batez beste, programa bakoitzeko %37 finantzatu dute, gutxi gorabehera.**

Alde horretatik, gogoan izan behar da batzuek eta besteek egin behar duten inbertsioa ezberdina dela baterako finantzazioaren tasa zenbatekoa den; izan ere, sozioekonomiaren hondamena zehazteko irizpideetan oinarrituta, diru-laguntzak inbertsioaren %30, %50 edo %75 finantzatzen laguntzen du. Zehatz-mehatz, 47 programari eman diete inbertsioaren %75eko diru-laguntza; %50ekoa, 17ri; eta %30ekoa, lauri.

Hartara, 2004 eta 2007 artean Izartu II programen esparruan gastatutako 116,5 milioi euroetatik, programaren beraren diru-laguntza kontuan izanik, 43,1 bat milioi tokiko erakundeek inbertitu dituzte.

Bestalde, programa beste administrazioen eta erakundeen diru-laguntzekin eta laguntzekin bateragarria da oraindik ere -bada salbuespenik: Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuen laguntzak eta Eusko Jaurlaritzaren programa espezifikoek bidez hartzen direnak- eta, batzuetan, oso lagungarria da hori udalek dagokien zatia finantzatzeko.

Zehazki, 2007an, udalek 1.564.036,40 euro hartu dituzte Izartu II programaren esparruko ekintzak (diruz) laguntzeko. Kopuru horri onuradun udalerriek aurreko bi ekitaldietan bildutakoa gehitzen badiogu, 8.970.993 euro ditugu, egindako gastu guztiaren %9; hartara, inbertsioaren %24 tokian-tokian egin behar izan dute. Diruz lagundu dituzten ekintza motak *2.5. Antolamendu- eta eraberritze-azpiegiturak, 2.7. Aisia emateko eta kultura arloko azpiegiturak eta 3.6. Gizarte- eta kultura-zerbitzuak* neurrien esparrukoak izan dira, hurrenkera horrexetan.

Aurreko urteetan bezala, baliabide gehien foru-aldundiek eman dituzte, eta, zehazkiago, Udal Harremanetako eta Hirigintzako Sailak, Kultura Sailak eta Gizarte Politikako Sailak.

5.1.2. PROGRAMAREN AURRERAPENARI BURUZKO EBALUAZIOA, UDALEN IKUSPEGI OROKORRETIK

Oro har, tokiko arduradunek orain arte Izartu 2004-2008 programaren esparruan egindako ekintzei buruz duten iritzia oso ona da, eta aurreko ataletan aipatu ditugun emaitzekin bat dator. 2007an abian zeuden 67 programen 63 onuradunek ontzat dute ekimena.

Tokian-tokian pozik daudela nabari da, Izartu II programen orain arteko denboran lortutako emaitzak direla eta. Ikusi dugunez, **bost onuradunek amaitu dituzte beren programak.** Hain zuzen ere, 2006an, Hondarribiko Izartu 2004-2008 programa amaitu zen eta, 2007an, Abantoko, Andoaingo, Otxandioko eta Zegamako programak amaitu dira. Arrigorriagako, Lekeitioko, Gasteizko eta Zierbenako programen esparruko ekintzak amaituta daude ia.

Ildo berean, **Izartu II programaren esparruko 126 ekintza (diruz lagundutako guztien %50 inguru) amaitu dira.**

Bigarren deialdiko onuradunen ia %75ek ekintzaren bat amaitu dute: Abantok, Agurainek, Andoainek, Antzuolak, Areatzak, Arrigorriagak, Artzentalesek, Astigarragak, Azpeitiak, Balmasedak, Basaurik, Bergarak, Bilbok, Deriok, Donostiak, Elgoibarrek, Elorriok, Ermuak, Erreterriak, Eskoriatzak, Etxebarrik, Gasteizek, Gueñesek, Hernanik, Hondarribiak, Ibarrek, Igorrek, Irunek, Iurretak, Karrantzak, Lasarte-Oriak, Legorretak, Lekeitiok, Lemoizek, Markina-Xemeinek, Mungiak, Oriok, Otxandiok, Portugaletak, Sopuertak, Tolosak, Turtziozek, Ugaok, Villabonak, Zaldibiak, Zallak, Zeanurik, Zegamak, Zierbenak, Zornotzak eta Zumaiak.

Bukatutako ekintza gehienak BIGARREN ARDATZAREN ("Tokiko oinarrizko azpiegiturak" ardatzaren) esparrukoak dira, eta, zehazkiago, 2.5. Antolatze- eta eraberritze azpiegiturak neurriaren esparrukoak, baina aurrerapenik handiena 1.3. Enpresaburuak, enpresa txikiak eta ertainak, eta eskulan-enpresak sustatzea, 3.1. Gizarteratzea, 3.6. Gizarte- eta kultura-zerbitzuak eta 2.1. Garraio-azpiegiturak neurrien esparruan jazo da.

7. taula: Izartu 2004-2008 programek amaitutako ekintzen analisia, esku hartzeko esparruen arabera (2007. urtea)


ARDATZAK ETA NEURRIAK	EKINTZAK, GUZTIRA	AMAITUTAKO EKINTZAK	%
1. ARDATZA. EKOIZPEN-INGURUNEA ETA ENPLEGUA	14	6	%43
1.1. Jardunean laguntzeko egiturak sortu eta garatzea	7	3	%43
1.2. Ekoizteko azpiegiturak sortu eta garatzea	2	0	-
1.3. Enpresaburuak, enpresa txikiak eta ertainak, eta eskulan-enpresak laguntzea	1	1	%100
1.4. Tokiko sustapena, turismoa eta ondarea	4	2	%50
2. ARDATZA. TOKIKO OINARRIZKO AZPIEGITURAK	251	118	%47
2.1. Garraio-azpiegiturak	21	17	%81
2.2. Telekomunikazio-azpiegiturak eta informazio-gizartea	4	0	-
2.3. Energia-azpiegiturak	6	4	%67
2.4. Ingurumen-azpiegiturak	46	15	%33
2.5. Antolamendu- eta eraberritze-azpiegiturak	156	75	%48
2.6. Gizarte- eta osasun-azpiegiturak	5	2	%40
2.7. Aisia- eta kultura-azpiegiturak	11	4	%36
2.8. Hezkuntza- eta prestakuntza-azpiegiturak	2	1	%50
3. ARDATZA. GIZARTERATZEA ETA TOKIKO ZERBITZUAK	4	1	%25
3.1. Gizarteratzea	1	1	%100
3.2. Aukera-berdintasuna	1	0	%0
3.3. Gizarte-hezkuntza eta gizarte-prestakuntza	-	-	-
3.4. Herriarren segurtasuna	-	-	-
3.5. Gizarte- eta laguntza-zerbitzuak	-	-	-
3.6. Zerbitzu soziokulturalak	1	1	%100
3.7. Tokiko oinarritzko beste zerbitzu batzuk	1	0	%0

5.1.3. PROGRAMA AURRERA EGITEN LAGUNTZEKO NEURRIAK

Izartu I programaren aldean, **Izartu II** programaren onuradunek ekintza gehiago egin dituzte laguntza teknikoaren esparruan, eta neurri horretan gastatutakoaren ehunekoa handiagoa izan da aurrez ikusitako inbertsio guztiaren aldean. Hain zuzen, 56 udalerrik (onuradunen %80k baino gehiagok) kontratatu dute kanpo-laguntza, 2,4 milioi euroren baino gutxiagorekin trukean; Izartu 2004-2008 programa osorako inbertsioaren %1,4 da kopuru hori.


2004 eta 2007 artean, Izartu II programak aurrera eramaten laguntzeko neurrietarako aurrez ikusitako gastuaren **%58 egin dute ia**. Ondoko grafikoa ikusten denez, 2007an egindako inbertsioa aurreko urteetako gastua baino handiagoa izan da.

21. grafikoa: Izartu II programarako laguntza teknikorako gastua 2004 eta 2007 artean




2007an, laguntza teknikoko zerbitzuak Izartu II programen jarraipen- eta kudeaketa-dokumentuak prestatzeko lanak egiten lagundu du gehien, eta, bigarrenik, kudeaketa-lanak eta programak gauzatzen esku hartzen duten udal-sailak koordinatzeko lanak egiten. Hirugarrenik, nabarmentzekoak dira, helburuen arabera, programari buruzko araudia betetzen den kontrolatzeko lanak.

22. grafikoa: Izartu 2004-2008 programetarako laguntza tekniko emateko jardueren nagusiak 2007. urtean



Izartu programari buruzko araudiak berak xedatzen duenez, tokian tokiko programen esparruko ekintzak behar bezala iragarri behar dira nahitaez. Udalek horretarako ezarri dituzten neurrien artean, sustatzen dituzten esparruetan kartelak eta publizitate-panelak jartzeaz gain, beste dibulgazio-bide batzuk paratu dituzte, herritarrei informazioa helarazteko: udalaren webgunea, udal-buletinak eta tokiko aldizkariak, informazioa postontzietan sartzea, proiektuak jendaurrean erakustea...

23. grafikoa: 2007. urtean Izartu 2004-2008 programen esparruan erabilitako komunikazio-, informazio- eta zabalkunde-bitartekoak



5.2. HIRIGUNEAK BIZIBERRITZEKO PROZESUEN AURRERAPENAREN EBALUAZIOA

Azkenik, atal honetan aztertuko dugu zenbaterainoko ekarpena egin duten programek aldatu nahi duten egoera aldatzeko. Hau da, **aztertuko dugu zenbateraino lortu dituzten Izartu 2004-2008 programen esparruko ekintzen helburuak eta zer-nolako eragina izan duten ekintzok kohesio-helburu orokorretan.**


Lehenengo deialdian bezala, Izartu programaren bigarren deialdiko helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko hirigune baztertuetako sozioekonomia suspertzea, **ekintza bateratu eta orokorren** (hiriguneak biziberritze programen bateratuen) **bidez, eremu bakoitzeko arazo espezifikoak** (sozialei, ekonomikoak, ingurumen arlokoak...) **oro har heltzeko eta, hartara, lurralde-kohesioa eta kohesio ekonomikoa eta soziala lortzeko.** Hori dela-eta, Izartu 2004-2008 programak diruz lagundutako ekintzak kohesio-helburu orokor baten edo hainbaten barnean sailkatu ditugu, ekintza motaren eta haren bidez lortu nahi dugun helburuaren edo emaitzaren arabera:

- **Lurralde-batasunaren alorreko arazoak konpontzea.** 59 ekintzak (Izartu II programarako inbertsio guztiaren %20k)osatzen dute helburu orokor hau, eta aldirietako auzoetako oztopoak kentzea eta hirigunearen egoera hobetzea da haien xedea, edo oztopo fisikoak gainditzea eta hirigunearen egituraketak kohesio handiagoa izatea.
- **Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen hastea.** Zazpi ekintzak (inbertsio guztiaren %3k)osatzen dute helburu orokor hau, eta xedea da zuntz optikoa erabiltzea eta udaletako administrazio-zerbitzuak digitalizatzea.
- **Hondatutako edo/eta bazter utzitako eremuak lehenera ekartzea.** 108 ekintzak (inbertsio guztiaren %49k)osatzen dute helburu orokor hau, eta xedea da degradatutako inguruneak eta eremuak lehenera ekartzea, inguruneaz gozatzeko guneak eta ekipamenduak antolatzea eta gizarteari ingurumena zaintzeko kontzientzia harraraztea.
- **Enpresaburuak, enpresa txikiak eta ertainak, turismoa eta udal-ondarea sustatzea.** 23 ekintzak (inbertsio guztiaren %6k)osatzen dute helburu orokor hau, eta xedea da enpresa berriak sortzeko eta erakartzeko aukerak handitzea eta lehendik dauden enpresek negozio-aukera gehiago izatea, gizartea eta hirugarren sektorea garatzeko ekipamenduak paratzea hiriguneetan eta turismoa sustatzea.

- **Hiriko jardunak ingurumenean duen eragina txikiagotzea.** 63 ekintzak (inbertsio guztiaren %20k)osatzen dute helburu orokor hau, eta xedea da hirigintza arloan hobekuntzak egitea eta udal-zerbitzuak eta udal-sareak hobetzea; alde zaharrak, eraikinak eta etxebizitzak zaharberrituz, hiriguneen itxura hobetzea; azpiegiturak eta espazio publikoak instalatzea hiriguneetan...
- **Gizartetik eta lan-merkatutik bazter gelditzeko arriskuan dauden taldeen aldeko diskriminazioa.** Bederatzi ekintzak (inbertsio guztiaren %2k)osatzen dute helburu orokor hau, eta gizarte-zerbitzuak eta hirugarren sektoreko ekipamenduak (gizarte- eta kultura-etxeak; liburutegiak; zaharrentzako, emakumeentzako, gazteentzako eta gizartetik bazter gelditzeko arriskuan dauden taldeentzako guneak...) dira jomuga.


Gogoan izan beharra dago, lehen deialdian bezala, **ekintzen sailkapena ez dela zehatza; izan ere, Izartu programaren orokortasuna dela-eta, ekintza batek helburu bat edo gehiago lortzen lagun dezake.** Bestalde, aipatzekoa da Izartu 2004-2008 programen esparruan ekintza gehien eta inbertsioaren ehunekorik handiena biltzen duten helburuak direla *Lurralde-batasunaren alorreko arazoak konpontzea, Hondatutako edo/eta bazter utzitako eremuak lehenera ekartzea eta Hiriko jardunak ingurumenean duen eragina txikiagotzea.* Ondoko grafikoak erakusten duenez, helburu horiek baldintzatzen dute nagusiki programak aurrera egiteko erritmoa; hain zuzen ere, bai haien esparruan egindako inbertsioaren aldetik, bai aurrez ikusitako emaitzak eta ondorioak lortzearen aldetik, aurreikuspen guztien bi heren gauzatzea ekarri dute gutxi gorabehera.

24. grafikoa: Kohesio-helburu orokorrak. 2001-2007 aldian egindako gastua, inbertsio osoaren aldean



Aurreko ekitaldietan bezala, **ekintzen esparruan aurrez ikusitako lorpenak** (kohesio-helburu orokorra erdiesteko bitartekoak) **zenbateraino gauzatu diren jakiteko, tokiko arduradunen ikuspegiak deskripzio xeheagoa ematen digu** ekintzen egoerari eta aurrerapenari buruz; ekintzen lorpenei buruzko adierazleen bidez neurtu dugu arduradunen ikuspegia.

25. grafikoa: Kohesio-helburu orokorrak. 2001-2007 aldiko lorpenak, hasierako aurreikuspenen aldean



Udal-ikuspegitik, ezarritako lorpenak gauzatzeko erritmoa aurrez ikusitako inbertsioa gauzatzekoa baino txikixeagoa da, baina batez bestekoak nahiko antzekoak dira. Ildo horretan, lorpenen aldetik gehien aurreratu diren helburuak (*Lurralde-batasunaren alorreko arazoak konpontzea eta Hondatutako edo/eta bazter utzitako eremuak lehenera ekartzea*) garrantzitsuenak dira, eta helburu bakoitzaren esparruko lorpenei buruzko datuak helburu horren esparruko ekintzetarako finkatutako inbertsioa gauzatzeari buruzkoen antzekoak dira.

Azkenik, emaitzetan oinarrituta, ondorioak aztertzen baditugu, ikusiko dugu helburu gehienek gutxixeago egin dutela aurrera; izan ere, azpiegitura eta ekipamendu berriek ez dituzte izan oraindik espero genituen ondorio guztiak eta, nagusiki, datozen ekitaldietan emango dituzte emaitzak.

5.2.1. Lurralde-batasunaren alorreko arazoak konpontzea

Izartu II progamek aurrera jarraitzen dute helburu hau lortzeko bidean, eta aurrez ikusitako emaitzen %60 lortu dute laugarren urterako: **35.520 m² bide berritu dituzte, 8 km errepide hobetu, 30 km baino gehiago pasealeku eta espaloi eraberritu edo sortu, hainbat kale oinezkoentzako bihurtu, hiriguneak altzariz eta ekipamenduz hornitu eta errazago ibiltzeko elementu berriak** (zortzi arrapala eta eskailera, bi igogailu eta bi pasabide) egin.

- **Abanton**, *Meatzariaren etorbideko* espaloiak zabaldu eta 460 m² oinezkoentzako bihurtu dituzte.
- **Agurainen**, alde zaharreko ekialdeko ingurabideko 720 m oinezkoentzako bihurtu dituzte eta bi pasabide instalatu dituzte.
- **Andoainen**, eskailera eta arrapala mekaniko berriak instalatzeak ekarri du motordun ibilgailuak nabarmenki gutxiago erabiltzea eta kutsadura atmosferikoa eta akustikoa nabarmen txikiagotzea.
- **Antzuolan**, bide bat eraiki dute *Uzarraga auzoa Lizarraga etorbidearekin* lotzeko eta, hartara, inguruko oztopoak kendu dituzte eta komunikazioa hobetu dute.
- **Basaurin**, *Fleming doktorearen kalean* oztopoak kentzeko eta errazago ibiltzeko ekintza amaitu dute.
- **Ermuan**, amaitutzat eman dituzte N-634 errepidea *Abeletxe auzoarekin* trenbidearen azpitik lotzeko bidea egiteko lanak eta, horri esker, errazago sar daiteke auzoan eta trenbidearen gaineko pasagunea kendu dute.
- **Etxebarrin**, oinezkoentzako 65 m-ko pasabide berria egin dute, *Lezama-Legizamon auzora* errazago joateko.
- **Gasteizen**, Abetxukon, *Zadorra* ibaiaren gaineko zubia eraberritzeko lanak amaitu eta 645 m² oinezkoentzatzat eta txirrindularientzatzat eta 475 m² garraiobide publikoentzatzat.
- **Gueñesen**, *Sodupe Goikoa kalea* urbanizatzeari esker, 2.400 m² espazio publiko egokitu dituzte, 4.000 herritarren baino gehiagoren mesedetan.
- **Irunen**, *Artia auzoko* ekipamendu eta sarbide berrien proiektua amaitu dute: igogailu bat eta bi pasabide instalatu dituzte.
- **Iurretan**, espazioak oinezkoentzako bihurtzearen alde egin dute, eta *Zubiaurre kaleko* 2.800 m² oinezkoentzatzat dira egun.
- **Karrantzan**, hiriguneko loturetan eta bideetan egiteko asmoa zuten hobekuntzak amaitu dituzte; besteak beste, *Ambasaguas* eta *La Tejera* lotzeko espaloi bat egin dute.
- **Lasarte-Orian**, ibaiertzeko 1.520 m² pasealeku eraberritu dituzte industrialdean eta, hartara, erabiltzaile gehiago erakarri dituzte hara.
- **Legorretan**, *Legorreta-Zaharreko* auzotarren bizi-kalitatea hobetu da, auzoan sartzeko bide berri bat egin dutela eta auzoa kalitateko urez hornitu dutela eta.
- **Portugaleten**, espaloi berria egin dute *Ramón y Cajal* kalean eta, horri esker, *Repelega auzoa* barneratuago dago hiriko egituran.
- **Ugaon**, *Particular Torre de Ugao*, *Bide Zahar*, *San Bartolome* eta *Sabino Arana* kaleetako 2.000 m² baino gehiago berrurbanizatu dituzte.
- **Zornotzan**, *Tantortako* espaloia urbanizatzeako proiektuari esker, auzoaren eta erdialdearen arteko komunikazioa hobea da orain.

- Helburu honen esparruan, ekintza hauek ere aurrera egiten jarraitzen dute, besteak beste: **Bermeon**, *Erriberako* igogailuak instalatzeko lanek - inguruko herritarren ikuspegitik duten lehentasuna dela-eta, oihartzun handia izaten ari dira-; eta **Leioan**, *Pikueta* inguruan eta *Gaztelubide* eta *Langileria* kaleetan esku hartzeko prestakuntza-lanek -auzoen arteko lotura nabarmen hobetzea ekarriko dute-.

5.2.2. Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak erabiltzen hastea

Bigarren helburuaren esparruan, orain arte izandako emaitzei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu Izartu II programen esparruko aurreikuspenen %64 gauzatu dutela. Zehatz-mehatz, **sare, gun, ekipamendu eta programa informatikoak eta teknologikoak instalatu dituzte, eta 39.000 erabiltzaile baino gehiago dituzte jadanik.**

- **Elorrión**, udalerrian informazio- eta komunikazio-teknologia berriak sustatzeko ekarpena izan dira liburutegi eta kultura-etxe berria eta bertako ekipamendua.
- **Igorren**, kultura-etxe berria egin dute: 1.420 m²-ko sotoak, 1.375 m²-ko behe-solairuak eta 775 m²-ko lehen solairuak osatzen dute.
- **Mutrikun**, e-administrazioa sustatzen jarraitzen dute, eta 14 administrazio-prozedura jarri dituzte abian Interneten.

5.2.3. Hondatutako edo/eta bazter utzitako eremuak lehenera ekartzea

Aurrez ikusitako emaitzen %68 gauzatu dute orain arte. Hain zuzen ere, 600.000 m²-ko baino gehiagoko eremua lehenera ekarri dute eta, tartean, 250.000 m² inguru garbitu eta egokitu dituzte, ingurune naturalean eta hirigunean, oinezkoentzako eremuak, plazak, lorategiak eta parkeak, etab. egiteko. **Era berean, 416 sare eta zerbitzu hobetu dituzte.**

- **Astigarragan**, 21. eremua (Mundarro) oro har urbanizatzeko proiektuaren bitartez, 16.618 m² bere onera ekarri eta egokitu dituzte eta inguruko saneamendu- eta argiztapen-sarea berri dute.
- **Azpeitian**, industrialderako sarbide bat bere onera ekarri dute, eta han dabiltzanen segurtasuna handitu dute, oinezkoentzako eta txirrindularientzako pasabide bat eraikiz.
- **Balmasedan**, alde zaharrean, Campo de las Monjas eta Gaztelu kaleak lotuz, 3.200 m²-ko eremua eta 702 m azpiegitura berri dute.
- **Errearterian**, Alameda eraikina eraisteari esker, bi kale lotzeaz gain, eraikinak paisaia zuen eragina txikitu eta hirigunearen itxura hobetu dute.

- **Eskoriatzan**, *Santa Marina* urbanizatzearen ondorioz, industria zaharkituek betetzen zuten espazio publiko bat berreskuratu dute; Deba ibaiaren ibilgua azaleratu dute eta aisia emateko eta etxebizitza berriak egiteko guneak sortu dituzte.
- **Hernanin**, *Elizatxo auzoan*, 541 m² espaloi eta plaza egokitu dituzte, 443 m hornikuntza- eta saneamendu-sare berritu, eta 17 argi instalatu.
- **Hondarribian**, auzo degradatu bat (*Amute auzoa*) urbanizatu dute: zoladura berria, bide-seinaleak, altzariak eta zirkulazio-argiak jarri dituzte.
- **Ibarran**, *San Inazio auzoan eta Emeterio Arrese parkean*, 4.000 m²-ko baino gehiagoko espazio publikoa urbanizatu dute, eta %20 handitu da inguru horretan aisia ematen ibiltzen diren oinezkoen kopurua.
- **Lekeition**, *Aldamiz Etxebarria* eremuan egindako ekintzari esker, lehen oso hondatuta zegoen 10.200 m²-ko eremua egokitu dute.
- **Markina-Xemeinen**, *Arretxinaga etorbidea* lehenera ekartzen eta *Osteko kalea* bere onera ekarri eta oinezkoentzako bihurtzen amaitu dute.
- **Orion**, *Iturbide kalea* lehenera ekartzeari esker, oinezkoentzako 700 m² sortu dituzte, eta saneamenduko eta gas-hornikuntzako inguruko sareak berritu.
- **Otxandion**, *Indusi, Omega eta Elizabarri* urbanizatzeko lanak amaitu dituzte, eta 3.000 m²-ko eremua lehenera ekarri dute.
- **Sopuertan**, *Mercadillo plaza* eta *Santa Mariaren Jasokundea elizaren* ingurua urbanizatu dituzte, eta, hartara, herritarrek aisia emateko eta elkarrekin egoteko leku berriak sortu.
- **Tolosan**, kale arteko patioak eta espazio publikoak zabaltzeko programari esker, haietako osasungarritasuna hobetu dute eta herritarrek erabiltzeko eta gozatzeko eremuak egokitu dituzte alde zaharrear.
- **Villabonan**, *Aurrera auzoa* berrurbanizatzeko lanak amaitu dituzte, eta 1.145 m²-ko espazio publikoa egokitu dute guztira.
- **Zaldibian**, *Santa Fe kalea* zeharo berritzeko lanak egin dituzte, oinezkoentzat, eta 400 m oinezkoentzako bide eta kaleko 100 altzari paratu dituzte, besteak beste
- **Zeanurin**, *San Isidro kaleko* ekintzak amaitu dituzte, eta lehenera ekarri dituzte 2.100 m² plaza eta aisia emateko gune.
- **Zierbenan**, *Kardeo auzoko* hirigintza bere onera ekarri dute, eta 5.000 m²-ko eremua urbanizatu eta 49 eraikin eta etxebizitza berri dituzte guztira.

- **Arrasaten**, *Matzakena* auzo degradatua lehenera ekartzen jarraitzen dute, eta 4.480 m kanalizazio egokitu dituzte orain arte; **Durango**, *San Fausto auzoa* oro har eraberritzeko lanak egiten ari dira, eta 4.475 m²-tan esku hartu dute orain arte; **Legazpin**, langile-auzoak urbanizatzen ari dira, eta 53.000 m² baino gehiago berrurbanizatu eta 30 zerbitzu-sare berritu dituzte; **Lezon**, *Markesane parkea eta Euskal Herria plaza* erreformatzen ari dira, eta eraikuntzako forjaren 1.431 m² egin dituzte orain arte; **Mallabian**, berrurbanizatzeko programa dute abian, eta espazio publikoko 4.290 m² berrurbanizatu dituzte dagoeneko; **Oiartzunen**, zubi-azpia urbanizatu dute eta *Ipar Arragua* eremua berrurbanizatu dute; eta **Soraluzen**, espazio publikoko 7.130 m² berrurbanizatu dituzte.

5.2.4. Enpresaburuak, enpresa txikiak eta ertainak, turismoa eta udal-ondarea sustatzea

Helburu honen esparruko ekintzek gutxi egin dute aurrera beste helburuen esparruko ekintzen aldean -aurrez ikusitako emaitzen %30 bakarrik lortu dute- baina, edonola ere, nabarmentzekoak dira, hainbat eremutako berrurbanizatzeko-lanez eta ekonomiaren eta merkataritzaren garapenerako azpiegitura-hornikuntzaz gain, enpresak laguntzeko 154 ekimen eta ekintza.

- **Bergaran**, *Arostegi etxea* erakusketa-aretoarako egokitzen amaitu dute; 381 m² neurtzen du, eta 2.000 erabiltzaile ditu guztira.
- **Donostian**, enpresaburuak laguntzeko eta aholkatzeko ekintzen esparruan, etengabeko prestakuntza lantzeko 18 ekintza egin eta berrikuntzari, kalitateari, prebentzioari eta teknologiarri buruzko 80 diagnostiko eta aholku eman dituzte.
- **Lemoizen**, *Armintza* urbanizatu ondoren, hobekuntza nabarmena sumatu da bideetako zirkulazioan, oinezkoen joan-etorrietan eta hiriaren itxuran, eta gizarte-bizitza eta jarduna areagotu da.
- **Mungian**, *Butroi-Arizpetxu*, egokitzeko lanak amaitu dituzte, inguruko merkataritza tradizionala eta xehetakoa sustatzeko: 750 m² asfaltatu dituzte, eta argiak, bankuak, zakarrontziak, zuhaitzak... paratu dituzte.
- **Zallan**, *Mimetiz eta Aranguren* hiriguneetako eraberritze-lanei esker, auzoak biziberritu dituzte eta, orain, auzotarren kopurua %30 handiagoa da.
- **Zumaian**, *Torreberri* eraikina berreraiki dute, ondasun arkitektonikoa den aldetik, udalerriko turismo-eskaintzaren esparruan sartzeko.

- Amaitutako ekintzak alde batera utzita, **Ataunen**, hiru plaza berri eta oinezkoentzako 250 m bide egokitzen ari dira, hiriguneko gizarte-bizitza eta merkataritza sustatzeko; eta **Gernika-Lumon**, Jai-Alai lehenera ekartzeko eta balioztatze lanak egiten ari dira.

5.2.5. Hiriko jardunak ingurumenean duen eragina txikiagotzea

Con un grado de avance medio del 45%, a través de estas actuaciones se ha reurbanizado una superficie de 77.800 m² en barrios y calles centrales, renovándose más de 20.000 m lineales de canalizaciones para servicios y suministros.

- **Areatzan**, *Aita Sakramentinoen inguruan*, hornikuntza- eta saneamendu-sareko 1.500 m berritu dituzte eta, horren ondorioz, eraginkorrakoak dira ingurumen arloan.
- **Arrigorriagan**, *Atxukarro egikaritze-unitatean*, saneamenduko eta hornikuntzako udal-sareak erreformatu dituzte; 4.000 m² kanalizazio berritu dituzte ia.
- **Artzentalesen**, *Santa Kruz auzoa* argiztapen-sistema publikoaz hornitu dute; hain zuzen ere, 20 argi berri jarri dituzte.
- **Bilbon**, edateko uraz hornitzeko sareak berritzeko lanak amaitu dituzte, eta hoditeriaren hausturak eta hornikuntza-etenak %30 jaitsi dira.
- **Turtziozen**, 108 argi berri instalatu dituzte, eta energia banatzeko sareko 50 km eraginkorrakoak dira orain.
- **Zegaman**, udaletxearen, elizaren eta kultura-etxearen ingurua argiztatzeko hobekuntzak amaitu dituzte; guztira, 20 kale-argi berri instalatu dituzte eta instalazioaren eraginkortasuna %20 handiagotu dute.

- **Galdakaon**, zerbitzu-azpiegituren sistema berritzeko ekintzak egiten jarraitzen dute, eta 240 argi instalatu dituzte orain arte; **Seguran**, oraindik ez dituzte amaitu alde zaharra gasez hornitzeko sarea instalatzeko lanak; eta **Trapagaranen**, A8 errepidean, *Ugarte auzoan* zarataren aurkako pantailak instalatuz heldu diete helburu honen esparruko erronkei.

5.2.6. Gizartetik eta lan-merkatutik bazter gelditzeko arriskuan dauden taldeen aldeko diskriminazioa

Azkenik, helburu honen esparruko emaitza nagusien artean -aurreikuspenen %36 gauzatu dute-, nabarmentzekoa da **9.320 m²-ko eremua bideratu dutela guztira kultura eta gizarte arloan erabiltzeko, eta ekipamendu berriak 13.000 lagunek baino gehiagok erabiliko dituztela espero dutela.**

- **Derion**, *Larrabbarri baserria* eraberritzeko eta berreraikitze lanen azken fasea amaitu dute, eta lantegi-eskolatarako eta erabilera anitzetarako lokaletarako egokitu dute.
- **Elgoibarren**, 386 biztanlek atera dute etekina gazteentzako gizarte- eta kultura-programa berritik.
- Azkenik, **Erandion**, laguntza-ekipamendua eta gizarte-eta kultura-ekipamendua sortu eta jarri dute abian *Goikoan*.



1. ERANSKINA

IZARTU programetako finantzei

buruzko taulak

2001-2005 ALDIKO IZARTU PROGRAMAK	GASTUAREN PLANGINTZA ETA GAUZATZEA																											
	GUZTIZKOA	INBERTSIOA	% DIRU LAG.	DIRU-LAGUNTZA	BIZTANLE ONURADUNA K	INBERTSIO A BIZTANLEEN ARABERA	2001. URTEA			2002. URTEA			2003. URTEA			2004. URTEA			2005. URTEA			2006. URTEA			2007. URTEA			METATUTAKO GASTUAREN % GUZTIZKO INBERTSIOAREN ARABERA
							BETEARRAZPENA			BETEARRAZPENA			BETEARRAZPENA			BETEARRAZPENA			BETEARRAZPENA			BETEARRAZPENA			BETEARRAZPENA			
							PLANGINTZA	GUZTIZKOA	O PLANGINTZARI DAGOKIO	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	PLANGINTZARI DAGOKIO	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	PLANGINTZARI DAGOKIO	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	PLANGINTZARI DAGOKIO	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	PLANGINTZARI DAGOKIO	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	PLANGINTZARI DAGOKIO	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	PLANGINTZARI DAGOKIO	
GUZTIZKOA	215.722.025 €	%66	146.695.182 €	326.397	661 €	32.820.125 €	14.001.800 €	%43	32.820.125 €	14.001.800 €	%43	32.820.125 €	14.001.800 €	%43	32.820.125 €	14.001.800 €	%43	32.820.125 €	14.001.800 €	%43	32.820.125 €	14.001.800 €	%43	32.820.125 €	14.001.800 €	%43	32.820.125 €	14.001.800 €
ARABA	9.327.739 €	%75	6.995.805 €	29.447	317 €	1.189.996 €	64.848 €	%5	3.202.026 €	742.977 €	%23	2.806.298 €	1.632.968 €	%58	2.837.116 €	1.341.425 €	%47	2.932.922 €	2.609.035 €	%89	1.546.860 €	941.448 €	%61	1.222.279 €	1.945.063 €	%159	%99	
Kantauri Arabarra	9.327.739 €	%75	6.995.805 €	29.447	317 €	1.189.996 €	64.848 €	%5	3.202.026 €	742.977 €	%23	2.806.298 €	1.632.968 €	%58	2.837.116 €	1.341.425 €	%47	2.932.922 €	2.609.035 €	%89	1.546.860 €	941.448 €	%61	1.222.279 €	1.945.063 €	%159	%99	
AMURRIO	4.663.869 €	%75	3.497.903 €	9.753	478 €	208.084 €	64.848 €	%31	1.046.507 €	352.771 €	%34	1.287.159 €	996.220 €	%67	1.804.126 €	1.111.479 €	%62	1.777.922 €	1.621.383 €	%91	517.169 €	497.624 €	%96	- €	- €	%100		
LLODIO	4.663.869 €	%75	3.497.902 €	19.694	237 €	981.912 €	- €	-	2.155.519 €	390.206 €	%18	1.519.139 €	636.748 €	%42	1.032.990 €	229.946 €	%22	1.155.000 €	987.652 €	%86	1.029.690 €	443.824 €	%43	1.222.279 €	1.945.063 €	%159	%99	
GIPIZKOA	67.095.780 €	%58	42.213.190 €	102.639	654 €	8.713.853 €	5.760.085 €	%66	23.301.491 €	12.731.817 €	%55	21.628.541 €	15.059.184 €	%70	10.026.875 €	7.449.988 €	%74	13.706.476 €	14.405.265 €	%105	11.114.967 €	8.419.139 €	%76	1.008.003 €	7.547.361 €	%749	%106	
Bidasoa Behea	6.053.627 €	%50	3.026.814 €	4.257	1.422 €	1.178.809 €	667.451 €	%57	4.484.520 €	2.379.040 €	%53	517.260 €	1.901.541 €	%368	- €	19.263 €		629.912 €	510.301 €	%81	576.032 €	576.032 €	%100	- €	- €	%100		
IRUN	6.053.627 €	%50	3.026.814 €	4.257	1.422 €	1.178.809 €	667.451 €	%57	4.484.520 €	2.379.040 €	%53	517.260 €	1.901.541 €	%368	- €	19.263 €		629.912 €	510.301 €	%81	576.032 €	576.032 €	%100	- €	- €	%100		
Debabarena	21.210.263 €	%75	15.907.697 €	29.413	721 €	2.872.952 €	2.262.289 €	%79	5.979.763 €	4.154.187 €	%69	6.130.121 €	3.903.341 €	%64	3.537.415 €	2.880.793 €	%81	4.824.274 €	4.159.994 €	%86	3.044.152 €	3.323.090 €	%109	329.962 €	3.661.368 €	%1110	%115	
DEBA	2.421.263 €	%75	1.815.947 €	5.127	472 €	159.268 €	158.620 €	%100	96.810 €	129.053 €	%133	646.088 €	1.373.140 €	%213	986.955 €	273.242 €	%28	- €	- €		204.200 €	81.200 €	%40	283.008 €	403.441 €	%143	%100	
EIBAR	3.496.962 €	%75	2.622.721 €	4.274	818 €	138.855 €	49.764 €	%36	367.241 €	43.093 €	%12	801.349 €	22.379 €	%3	16.784 €	16.748 €	%100	1.517.987 €	1.121.673 €	%74	1.800.000 €	2.242.066 €	%125	46.954 €	3.257.927 €	%6939	%193	
ELGOIBAR	3.411.395 €	%75	2.558.546 €	10.732	318 €	- €	- €	-	1.202.024 €	1.004.572 €	%84	1.041.754 €	42.254 €	%4	376.069 €	333.195 €	%89	1.370.925 €	1.124.922 €	%82	910.061 €	861.301 €	%95	- €	- €	%99		
MENDARO	2.688.307 €	%75	2.016.230 €	225	11.948 €	780.207 €	323.291 €	%41	1.098.796 €	343.263 €	%31	914.247 €	966.744 €	%106	397.111 €	430.794 €	%108	627.523 €	623.018 €	%99	- €	- €	%99	- €	- €	%100		
MUTRIKU	3.587.230 €	%75	2.690.423 €	4.774	751 €	877.478 €	813.469 €	%93	939.345 €	939.345 €	%100	1.278.208 €	584.092 €	%46	435.113 €	833.367 €	%192	413.958 €	409.932 €	%99	- €	- €	%99	- €	- €	%100		
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	5.605.106 €	%75	4.203.830 €	4.281	1.309 €	917.144 €	917.144 €	%100	2.275.547 €	1.694.861 €	%74	1.448.475 €	914.732 €	%63	1.325.382 €	993.447 €	%75	893.881 €	880.449 €	%98	129.890 €	138.524 €	%107	- €	- €	%99		
Ekialdeko ingurabidea	13.450.938 €	%75	10.088.204 €	28.617	470 €	945.993 €	227.695 €	%24	3.941.710 €	1.929.947 €	%49	3.148.890 €	2.336.813 €	%74	3.495.830 €	1.219.611 €	%35	2.398.872 €	3.525.537 €	%147	4.731.463 €	2.096.333 €	%44	436.309 €	3.300.792 €	%757	%109	
ERRENTERIA	4.483.333 €	%75	3.362.499 €	20.194	222 €	318.536 €	227.695 €	%71	1.147.004 €	1.241.405 €	%108	1.065.363 €	1.322.773 €	%124	733.777 €	429.384.85 €	%59	377.419 €	883.781 €	%234	550.425 €	374.934 €	%68	164.005 €	1.007.087 €	%614	%122	
LEZO OIARTZUN	4.035.752 €	%75	3.026.814 €	5.753	702 €	195.930 €	- €	-	938.781 €	276.230 €	%29	881.502 €	899.141 €	%102	1.397.535 €	519.859 €	%37	465.211 €	1.261.723 €	%271	1.720.364 €	879.558 €	%51	154.946 €	315.538 €	%204	%103	
PASAJA	4.931.854 €	%75	3.698.890 €	2.670	1.847 €	431.527 €	- €	-	1.855.925 €	412.313 €	%22	1.202.024 €	114.899 €	%10	1.364.517 €	270.367 €	%20	1.556.242 €	1.380.033 €	%89	2.460.675 €	841.841 €	%34	117.358 €	1.978.167 €	%1686	%101	
Donosti	10.070.573 €	%50	5.035.287 €	17.476	576 €	805.646 €	26.035 €	%3	3.691.225 €	10.117 €	%0	6.097.268 €	2.253.524 €	%37	587.791 €	682.597 €	%116	4.585.491 €	5.074.233 €	%111	2.024.069 €	2.022.972 €	%100	- €	- €	%100		
DONOSTIA ALTZA	4.689.728 €	%50	2.344.864 €	10.999	426 €	375.178 €	20.725 €	%6	1.477.599 €	10.117 €	%1	2.990.035 €	2.200.602 €	%74	552.530 €	573.479 €	%104	1.858.513 €	1.755.926 €	%94	128.880 €	128.880 €	%100	- €	- €	%100		
DONOSTIA LOIOLA	5.380.845 €	%50	2.690.423 €	6.477	831 €	430.468 €	5.310 €	%1	2.213.627 €	- €	%0	3.107.233 €	52.922 €	%2	35.261 €	109.118 €	%309	2.726.978 €	3.318.307 €	%122	1.895.189 €	1.894.092 €	%100	- €	- €	%100		
Goierni	12.409.090 €	%50	6.204.545 €	20.217	614 €	2.598.350 €	2.110.147 €	%81	3.902.626 €	3.159.103 €	%81	4.578.012 €	3.602.446 €	%79	1.807.547 €	1.670.500 €	%92	916.273 €	838.547 €	%92	739.251 €	400.711 €	%54	241.732 €	585.201 €	%242	%100	
LEGAZPI	4.035.281 €	%50	2.017.641 €	9.278	435 €	322.823 €	361.998 €	%112	877.972 €	1.026.911 €	%117	1.382.635 €	1.492.093 €	%108	733.235 €	358.783 €	%49	509.660 €	521.079 €	%102	226.396 €	226.396 €	%100	48.022 €	458.315 €	%954	%110	
ORDIZIA	3.348.395 €	%50	1.674.198 €	9.222	363 €	580.980 €	583.952 €	%101	989.155 €	689.165 €	%70	1.366.535 €	1.003.941 €	%73	409.799 €	348.001 €	%85	266.406 €	225.041 €	%84	305.000 €	38.578 €	%13	193.710 €	126.886 €	%66	%90	
URRETUXU	2.018.346 €	%50	1.009.173 €	417	4.840 €	550.278 €	196.191 €	%36	917.393 €	665.807 €	%73	866.810 €	144.380 €	%17	549.582 €	756.332 €	%138	47.780 €	- €	%0	207.855 €	135.738 €	%65	- €	- €	%94		
ZEGAMA	3.007.067 €	%50	1.503.534 €	1.300	2.313 €	1.144.269 €	968.005 €	%85	1.118.105 €	777.220 €	%70	962.031 €	962.032 €	%100	114.932 €	207.384 €	%180	92.427 €	92.427 €	%100	- €	- €	%100	- €	- €	%100</		

2004-2008 ALDIKO IZARTU PROGRAMAK	GUZTIZKO INBERTSIOA	% DIRU-LAG.	DIRULAGUNTZA	BIZTANLE ONURADUNAK	INBERTSIOA BIZTANLEEN ARABERA	GASTUAREN PLANGINTZA ETA BETEARAZPENA												METATUTAKO GASTUAREN % GUZTIZKO INBERTSIOAREN ARABERA	2008. URTEA
						2004. URTEA			2005. URTEA			2006. URTEA			2007. URTEA				
						BETEARAZPENA			BETEARAZPENA			BETEARAZPENA			BETEARAZPENA				
						PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2004EKO PLANGINTZARI DAGOKIOEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2005EKO PLANGINTZARI DAGOKIOEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2006EKO PLANGINTZARI DAGOKIOEZ	PLANGINTZA	GUZTIZKOA	% 2007EKO PLANGINTZARI DAGOKIOEZ		
GUZTIZKOA	172.933.904 €	%62	109.000.000 €	439.471	394 €	1.333.335 €	8.069.433 €	%605	28.145.648 €	28.141.070 €	%100	56.642.343 €	34.837.824 €	%62	55.537.567 €	45.520.643 €	%82	%67	33.707.337 €
ARABA	5.438.098 €	%50	2.719.050 €	5.751	946 €	33.260 €	46.713 €	%140	866.182 €	923.325 €	%107	1.233.391 €	2.585.485 €	%210	2.136.485 €	402.198 €	%82	%73	1.023.977 €
Arabako Lautada	5.438.098 €	%50	2.719.050 €	5.751	946 €	33.260 €	46.713 €	%140	866.182 €	923.325 €	%107	1.233.391 €	2.585.485 €	%210	2.136.485 €	402.198 €	%82	%73	1.023.977 €
SALVATIERRA/AGURAIN	2.697.133 €	%50	1.348.567 €	4.006	673 €	16.496 €	46.713 €	%283	429.405 €	543.995 €	%127	352.357 €	315.531 €	%90	1.216.805 €	378.845 €	%82	%48	537.267 €
VITORIA-GASTEIZ	2.740.965 €	%50	1.370.483 €	1.745	1.571	16.764 €	- €	%87	436.777 €	379.330 €	%87	881.034 €	2.269.954 €	%258	919.680 €	23.353 €	%82	%98	486.710 €
GIPUZKOA	79.566.533 €	%63	45.910.511 €	178.969	445 €	561.598 €	2.870.360 €	%511	13.282.914 €	11.588.953 €	%87	26.852.634 €	14.665.349 €	%55	26.859.279 €	23.019.870 €	%82	%66	17.525.191 €
Debagoiena	16.064.253 €	%35	5.432.614 €	21.465	748 €	66.454 €	536.612 €	%73	2.843.369 €	2.073.518 €	%73	5.200.025 €	4.162.123 €	%80	4.602.568 €	2.409.461 €	%82	%57	3.631.328 €
ANTZOLUA	3.899.956 €	%30	1.169.987 €	1.899	2.054 €	14.312 €	28.285 €	%198	880.173 €	323.848 €	%37	1.727.061 €	1.110.688 €	%64	997.479 €	1.145.322 €	%82	%67	1.194.277 €
ARRASATE/MONDRAGON	3.066.685 €	%50	1.533.343 €	2.800	1.095 €	18.756 €	68.406 €	%365	988.610 €	1.091.593 €	%21	1.697.814 €	1.027.258 €	%172	1.027.258 €	129.749 €	%82	%65	540.498 €
BERGARA	4.852.280 €	%30	1.455.684 €	14.965	324 €	17.807 €	388.777 €	%2183	787.603 €	1.117.758 €	%142	843.819 €	793.115 €	%94	1.626.600 €	89.072 €	%82	%49	858.083 €
ESKORIATZA	4.245.332 €	%30	1.273.600 €	1.801	2.357 €	15.579 €	51.144 €	%328	684.030 €	530.319 €	%78	1.640.535 €	560.506 €	%34	951.231 €	1.045.318 €	%82	%52	1.038.469 €
Bidasoa Behea	4.560.420 €	%75	3.420.315 €	35.322	129 €	41.839 €	16.468 €	%39	1.181.580 €	562.155 €	%48	1.934.677 €	1.276.668 €	%66	2.006.506 €	2.455.042 €	%82	%95	49.736 €
HONDARRIBIA	1.795.041 €	%75	1.346.281 €	1.301	1.380 €	16.468 €	16.468 €	%100	741.072 €	536.163 €	%72	1.037.501 €	1.224.994 €	%118	- €	- €	%82	%99	- €
IRUN	2.765.379 €	%75	2.074.034 €	4.206	657 €	25.371 €	- €	%0	440.508 €	25.992 €	%6	897.176 €	51.674 €	%6	2.006.506 €	2.455.042 €	%82	%92	49.736 €
Debabarrena	9.362.146 €	%58	5.304.113 €	19.375	483 €	64.881 €	101.843 €	%157	1.502.412 €	896.301 €	%60	2.479.743 €	552.944 €	%22	2.895.360 €	1.896.653 €	%82	%37	2.668.294 €
ELGOIBAR	3.637.165 €	%50	1.818.583 €	10.440	348 €	22.245 €	44.395 €	%200	587.516 €	323.860 €	%55	1.177.026 €	47.999 €	%4	190.072 €	140.825 €	%82	%23	1.867.606 €
MUTRIKU	3.232.822 €	%50	1.616.411 €	4.775	677 €	19.772 €	55.280 €	%280	519.506 €	442.754 €	%85	495.778 €	137.525 €	%28	1.872.586 €	1.195.246 €	%82	%57	366.425 €
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	2.492.159 €	%75	1.869.119 €	4.160	599 €	22.864 €	2.168 €	%9	395.390 €	129.866 €	%33	806.939 €	367.419 €	%46	832.703 €	290.582 €	%82	%32	434.263 €
Donostialdea / Donostia San Sebastian	2.473.773 €	%75	1.855.330 €	2.115	1.170 €	22.695 €	- €	%0	392.353 €	343.960 €	%88	800.867 €	481.428 €	%60	826.631 €	992.314 €	%82	%73	431.228 €
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN	2.473.773 €	%75	1.855.330 €	2.115	1.170 €	22.695 €	- €	%0	392.353 €	343.960 €	%88	800.867 €	481.428 €	%60	826.631 €	992.314 €	%82	%73	431.228 €
Mendebaldeko ingurabidea	10.307.646 €	%63	6.224.845 €	52.390	197 €	76.146 €	1.076.510 €	%1414	1.639.801 €	3.813.724 €	%233	2.894.737 €	1.278.985 €	%44	3.105.264 €	1.928.736 €	%82	%79	1.442.548 €
ANDOAIN	2.156.467 €	%75	1.617.350 €	13.814	156 €	19.784 €	310.890 €	%1571	339.954 €	1.529.280 €	%450	696.068 €	274.013 €	%39	721.832 €	826.569 €	%82	%136	378.829 €
ASTIGARRAGA	2.862.964 €	%50	1.431.482 €	2.634	1.087 €	17.511 €	39.000 €	%223	457.300 €	1.499.540 €	%328	669.737 €	191.444 €	%29	147.833 €	493.104 €	%82	%78	506.854 €
HERNANI	3.160.597 €	%50	1.580.299 €	18.747	169 €	19.331 €	726.620 €	%3759	507.359 €	523.986 €	%103	842.390 €	795.932 €	%94	1.151.115 €	24.667 €	%82	%66	474.147 €
LASARTE-ORIA	2.127.618 €	%75	1.595.714 €	17.195	124 €	19.520 €	- €	%0	335.188 €	260.918 €	%78	686.542 €	17.596 €	%3	1.084.484 €	584.396 €	%82	%41	82.718 €
Ekialdeko ingurabidea	8.061.855 €	%67	5.120.911 €	14.672	549 €	62.641 €	3.248 €	%5	729.636 €	241.276 €	%33	3.184.701 €	667.644 €	%21	1.530.581 €	2.007.934 €	%82	%36	4.677.305 €
ERREENTERIA	2.545.015 €	%75	1.908.761 €	11.455	222 €	23.349 €	3.248 €	%14	824.117 €	24.523 €	%6	824.396 €	282.472 €	%34	850.160 €	1.152.197 €	%82	%57	442.992 €
LEZO	1.814.917 €	%75	1.361.188 €	1.935	938 €	16.651 €	- €	%0	283.551 €	133.763 €	%47	583.263 €	13.985 €	%2	12.181 €	182.856 €	%82	%18	1.654.988 €
OIARTZUN	3.701.923 €	%50	1.850.962 €	1.282	2.888 €	22.641 €	- €	%0	41.968 €	82.991 €	%198	1.777.042 €	371.187 €	%21	668.240 €	672.881 €	%82	%30	2.579.326 €
Goierri	11.832.398 €	%65	7.467.665 €	10.370	1.141 €	91.348 €	151.110 €	%165	2.295.896 €	1.477.575 €	%64	4.888.023 €	2.926.652 €	%60	4.926.354 €	5.092.875 €	%82	%82	1.559.762 €
ATAUN	1.917.684 €	%75	1.438.263 €	1.514	1.267 €	17.593 €	9.198 €	%52	300.521 €	418.264 €	%139	617.204 €	238.554 €	%39	642.968 €	324.210 €	%82	%52	339.398 €
LEGAZPI	2.949.969 €	%50	1.474.984 €	4.820	612 €	18.043 €	52.283 €	%290	471.934 €	471.938 €	%100	950.062 €	743.819 €	%78	987.208 €	845.282 €	%82	%72	694.721 €
SEGURA	2.319.911 €	%75	1.739.934 €	1.225	1.894 €	21.284 €	44.802 €	%610	366.944 €	39.902 €	%11	1.015.429 €	481.931 €	%47	775.814 €	1.330.936 €	%82	%82	455.819 €
ZALDIBA	2.676.563 €	%50	1.338.281 €	1.517	1.764 €	16.371 €	- €	%0	425.948 €	105.899 €	%25	859.762 €	172.360 €	%20	2.328.479				